

Emakumeei, Bakeari  
eta Segurtasunari buruzko

1325

Ebazpena nazioarteko  
lankidetzaren tresna gisa

Euskal GGKEen eta Hegoalde Globaleko  
emakumeen erakundeen ikuspegia

Irantzu Mendia Azkue (argtz.)

Argitalpen hau *Recursos especializados para un apoyo estratégico a defensoras de derechos humanos en países en conflicto, posconflicto y tensión*. proiektuaren esparruan egin da. PRO-2020K30025.

eLankidetzeta–Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak finantzatua.



Emakumeei, Bakeari eta Segurtasunari buruzko 1325 Ebazpena nazioarteko lankidetzaren tresna gisa. Euskal GGKEen eta Hegoalde Globaleko emakumeen erakundeen ikuspegia

**Koordinazioa eta edizioa:** Irantzu Mendia Azkue

**Kapituluen egileak:** Sheida Besozzi, Irantzu Mendia Azkue, iker zirion landaluze, Itziar Mujika Chao, Gloria Guzmán Orellana, Yulia Serkezyuk

2022



[www.hegoa.ehu.eus](http://www.hegoa.ehu.eus)

UPV/EHU • Zubiria Etxea

Lehendakari Agirre Etorbidea, 81 • 48015 Bilbo

Tel.: 94 601 70 91 • Faax: 94 601 70 40

UPV/EHU • Carlos Santamaria Zentroa

Elhuyar Plaza 2 • 20018 Donostia

Tel.: 943 01 74 64 • Faxes: 94 601 70 40

UPV/EHU • Arabako Campuseko Liburutegia

Nieves Cano kalea, 33 • 01006 Gasteiz

Tel.: 945 01 42 87 • Faxes: 945 01 42 87

Euskarazko itzultzailea: Iñigo Gallastegi Zorrilla

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

ISBN: 978-84-16257-96-6



Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Espainia. Lan honek Creative Commons lizentzia du. Baimenduta dago lan hau kopiatzea, banatzea eta publikoki komunikatzea egilea aitortzen bada eta helburu komertzialekin erabiltzen ez bada. Ezin da lan hau aldatu, eraldatu edo lan honetatik

beste bat eratorri. Lizentzi osoa, hemen: Licencia completa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/>

# Aurkibidea

<b>Aurkezpena</b>	<b>6</b>
<b>Irantzu Mendia Azkue</b>	
<b>I. Emakumei, Bakeari eta Segurtasunari buruzko 1325 Ebazpenaren balantze kritikoa</b>	<b>10</b>
<b>Sheida Besozzi</b>	
1. Sarrera	10
2. 1325 Ebazpenaren jatorria eta Emakumeen, Bakearen eta Segurtasunaren nazioarteko agendaren garapena	11
3. Erabilgarritasuna eta potentzialtasuna	13
3.1. Eragiteko tresna emakumeen eta feministen erakundeentzat	13
3.2. Garapen normatibo eta diskurtsiboa	13
3.3. Eragina neurtzeko eta ebaluatzeko proposamenak	14
4. Kritikak eta mugak	15
4.1. Giza eskubideak babesteko esparrutik aldentzea	15
4.2. Emakumeen, Bakearen eta Segurtasun agendaren instituzionalizazioa	15
4.3. Aurrerapen gutxi gatazketan sexu-indarkeria prebenitzeko, babesteko eta zigortzeko	16
4.4. Estatuaren konpromiso falta	16
4.5. Militarismoa desarmatzearen eta gatazken prebentzioaren orde	17
5. Ondorioak	17
6. Bibliografia	18
<b>II. Euskal GGKEak 1325 Ebazpenaren aurrean</b>	<b>21</b>
<b>Irantzu Mendia Azkue</b>	
1. Sarrera	21
2. Ezaguera eta erabilera maila	24
3. Nazioarteko lankidetzaren tresna gisa duen erabilgarritasunaren pertzepzioa	26
4. Lankide diren emakumeen eta feministen erakundeentzat duen erabilgarritasunaren pertzepzioa	28
5. Emakumeen, Bakearen eta Segurtasunaren agendako beste erreferentzia tresna batzuk	29
6. Ondorioak	30

<b>III. 1325 Ebazpena Kongoko Errepublika Demokratikoan.</b>	
<b>Ekintza Plan Nazionalak eta emakumeen erakundeen balorazioa</b> .....	<b>33</b>
<b>iker zirion landaluze</b>	
1. Sarrera	33
2. Bi Ekintza Plan Nazional, inplementazio ahula	35
3. 1325 Ebazpenaren ardatzak bigarren belaunaldiko Ekintza Plan Nazionalean	37
3.1. Parte-hartzea	37
3.2. Prebentzioa	38
3.3. Babesa	39
3.4. Errehabilitazioa	40
4. Kongoko emakumeen erakundeek 1325 Ebazpenari eta haren inplementazioari buruz duten balorazioa	40
4.1. Ezaguera eta erabilera	41
4.2. Ekintza Plan Nazionaletan parte hartzea	41
4.3. Arau erreferenteak	41
4.4. Nazioarteko lankidetzaren eginkizuna	42
5. Ondorioak eta gomendioak	44
6. Bibliografia	45
<b>IV. 1325 Ebazpena inplementatzeko esperientziak Bosnia eta Herzegovinan eta Kosovon</b> .....	<b>47</b>
<b>Itziar Mujika Chao</b>	
1. Sarrera	47
2. 1325 Ebazpena politika publikoetan sartzea	48
2.1. Ekintza Plan Nazionalak Bosnia eta Herzegovinan	48
2.2. Ekintza Plan Nazionala Kosovon	50
3. Emakumeen erakundeak, nazioarteko lankidetzaren eta 1325 Ebazpena	51
4. Ondorioak eta gomendioak	54
5. Bibliografia	56
<b>V. 1325 Ebazpena El Salvadorren estatuaren eta emakumeen mugimenduaren ekimenetik</b> .....	<b>58</b>
<b>Gloria Guzmán Orellana</b>	
1. Sarrera	58

2. Emakumeen, Bakearen eta Segurtasunaren nazioarteko agenda El Salvadorreko politika publikoetan: 1325 Ebazpenari buruzko Ekintza Plan Nazionala (2017-2022)	59
2.1. Ikuspegia eta nazioarteko eta nazio-mailako erreferenteak	60
2.2. Lehentasunak eta ezarritako neurriak	60
3. El Salvadorreko emakumeen erakundeak 1325 Ebazpenaren aurrean	62
3.1. Eraginik ez edo gutxi gerraostean	62
3.2. Gaur egungo jarrerak	63
3.3. Nazioarteko lankidetzak 1325 Ebazpena sustatzeko duen eginkizunari buruzko ikuspegiak	65
4. Ondorioak eta gomendioak	67
5. Bibliografia	69
<b>VI. 1325 Ebazpena eta Kolonbiako bake-prozesua</b>	<b>71</b>
<b>Yulia Serkezyuk</b>	
1. Sarrera	71
2. Emakumeen, Bakearen eta Segurtasunaren agenda Bake Akordioaren aurreko lege eta politika publikoen esparruan	72
2.1. Parte-hartzea	73
2.2. Prebentzioa eta babesa	73
2.3. Errehabilitazioa eta erreparazioa	74
3. Bake Akordioaren generoko neurriak eta inplementazioa	74
3.1. Landa Erreforma Integrala	75
3.2. Parte-hartze politikoa	75
3.3. Gatazkaren amaiera	75
3.4. Legez kontrako drogen arazoaren konponketa	76
3.5. Gatazka armatuaren biktimak	76
3.6. Egiaztapena	77
4. Emakumeen eta feministen erakundeek bakearen eraikuntzan duten ibilbidea	77
5. Emakumeen eta feministen erakundeak 1325 Ebazpenaren aurrean eta nazioarteko lankidetzaren eginkizuna	78
6. Ondorioak eta gomendioak	80
7. Bibliografia	81

# Aurkezpena

---

Irantzu Mendia Azkue

Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak 2000n onartutako 1325 Ebazpena, Emakumeei, Bakeari eta Segurtasunari buruzkoa, funtsezko erreferentzia bilakatu da gatazkak eraldatzeko eta bakea eraikitzeko nazioarteko lankidetzaren jardueretan. Ebazpenak, bada, generoaren arabera gatazka armatuetako esperientzia desberdina izaten dela onartzen du, emakumeak haien aurkako indarkeria mota guztien aurrean babesteko deia egiten du eta emakumeek bakea sustatzeko eremu guztietan eta erabakitzeke maila guztietan parte har dezaten bermatzera premiatzen du. Azken bi hamarkadetan, Segurtasun Kontseiluak antzeko beste ebazpen batzuk ere bermatu ditu eta, hala, Emakumeen, Bakearen eta Segurtasunaren nazioarteko agenda delakoa sortzen lagundu du. Oro har, agendak lau oinarri hauek ditu: emakumeek bakearen eraikuntzan parte hartzea, indarkeria prebenitzea, eskubideak babestea eta biktimei erreparazioa eskaintzea.

Onartu zenetik igaro diren 20 urte pasatxo hauetan, hainbat ebaluazio egin dira nazioarteko, eskualdeko eta estatuko mailetan. Horiek 1325 Ebazpenaren “argien eta itzalen” berri eman dute. Argitalpen honen helburua, izan ere, egindako ebaluazioei berezitasun bat gehitzea da, hau da, Ebazpenaren potentzialtasunen eta mugen azterketa, gatazkako, gatazka osteko edo tentsio sozio-politikoko egoeran dauden herrialdeetako GGKEen eta emakumeen eta feministen kolektiboen ikuspegitik.

Zehazki, lan hau gure ingurunetik abiatzen da euskal GGKEen eta euskal lankidetzaren hartzen duten toki hauetako emakumeen eta feministen erakundeen ikuspegiaren eta esperientzien berri emateko: Kolonbia, El Salvador, Kongoko Errepublika Demokratikoa (KED) eta Balkanak. Horiek beraz, lan honen kasu-azterketak dira. Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzaren VI. Gida Planaren indarraldian (2018-2021)<sup>1</sup> (haren esparru estrategikoetako bat gatazken eraldaketa eta bakearen eraikuntza da), euskal lankidetzaren herrialde horietan guztietan izan da. Egindako jarduerak 39.901.763 euroko finantzamendua izan dute eta horren zati handiena Kolonbiara bideratu da, eta horren atzetik El Salvadorrera eta Balkanetara<sup>2</sup>.

---

1 2022-2024 aldirako luzatua.

2 Eskualde horretan, jarduerak Serbia eta Bosnia eta Herzegovinan izan dira.

1. taula.					
Euskal lankidetzaren zenbatekoak kasu-azterketa bakoitzeko (2018-2021) (euroak)					
Herrialdeak	2018	2019	2020	2021	Guztira
Kolonbia	4.320.836	4.157.254	4.404.746	4.482.460	17.365.296
El Salvador	3.503.653	3.619.465	2.776.183	4.467.677	14.366.978
RDC	1.664.937	1.752.180	1.732.974	1.829.398	6.976.489
Balkanak (Bosnia eta Herzegovina eta Serbia)	500.000 (S)	350.000 (BH)	290.000 (BH)	50.000 (BH)	1.190.000

Iturria: egilea, Euskal Lankidetzaren Publikoaren Atariko datuak erabiliz<sup>3</sup>.

Lau kasuetan erronka garrantzitsuak daude bakearen eraikuntzarako. Gainera, emakumeen eta feministen mugimenduak aurkitzen ditugu, haien herrialdeetan inplementatutako bake- eta segurtasun-politiketan genero-ikuspegia sartzeko borrokan ibilbide luzea dutenak.

Hala ere, 1325 Ebazpenaren gaineko ikuspegiak eta esperientziak desberdinak dira. Adibidez, RDCn eta Bosnia eta Herzegovinan eta Kosovon, 1325 Ebazpena eta hura inplementatzeko Ekintza Plan Nazionalak funtsezko laguntza izan dira emakumeen eta feministen erakundeentzat, batez ere gizartean eta erakundeetan emakumeen eskubideen alde eragiteko helburuei dagokienez. El Salvadorren, aldiz, 1325 Ebazpena eta herrialdeko Ekintza Plan Nazionala ez dira hain pizgarri garrantzitsuak izan gatazka armatuko giza eskubideen urraketan aurrean justiziaren eta erreparazioaren alde borrokatzen duten erakundeentzat. Kolonbian, gerra oso luze baten osteko bake-prozesu betean, ez da 1325 Ebazpena aplikatzeko Ekintza Plan Nazionalik oraindik onartu, emakumeen eta feministen mugimendua denbora luzez hori eskatzeko mobilizatu den arren.

Proposatutako helburua lortzeko, argitalpen honek, lehenengo kapituluan, 1325 Ebazpenaren eta antzeko beste ebazpen batzuen jatorriaren, edukiaren eta bilakaeraren ikuspegi orokorra ematen du. Halaber, haren potentzialtasunen eta mugen balantze kritikoa egiten du, hainbat ikerketa, txosten eta ebaluaziotan oinarrituta.

Bigarren kapituluak euskal lankidetzaren sektorera eramaten gaitu, GGKEek dimentsio hauetan 1325 Ebazpenarekin duten harremanera hurbiltzeko asmoz: Ebazpenaren ezaguera eta erabilera inplementatutako proiektuetan, horrek lankidetzarako eta sektorean aritzen diren emakumeen eta feministen erakundeentzat tresna gisa duen erabilgarritasuna ulertzeko modua, eta Emakumeen, Bakearen eta Segurtasunaren agendarekin lotutako nazioarteko beste tresna batzuen ezagutza. Euskadin egoitza duten eta aipatutako herrialde batean edo batzuetan lan egin duten GGKEez ari gara.

3 Atariak euskal lankidetzako eragile publikoek 2014az geroztik egindako jardueri buruzko informazioa jasotzen du, eLankidetzaren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, hiru Foru Aldundiek, hiru hiriburu eta Udalek eta Euskal Fonda-Tokiko Euskal Erakunde Kooperanteen Elkarteak emandako datuen arabera. Ikus: <https://euskalankidetz.hegoa.ehu.es/?locale=es>.

Hirugarren kapituluan, RDCren kasua lantzen da. Hura izan da azken urteotan Euskaditik finantzamendu publiko gehien jaso duen afrikar herrialdea, atzetik Senegal eta Mendebaldeko Sahara dituelarik. Testuak, bada, sakon aztertzen ditu RDCan 1325 Ebazpenaren inguruan onartu diren Ekintza Plan Nazional bien edukia eta bilakaera, horietako bigarrenari arreta berezia eskainiz. Gainera, herrialdeko emakumeen eta feministen erakundeek Ebazpenaren inguruan egiten dituzten balorazioak aurkezten ditu, baita Ekintza Plan Nazionalak egitean izan duten parte-hartzea, horien arau erreferenteak Emakumeen, Bakearen eta Segurtasunaren agenda herrialdean sustatzeko, eta sustapen horretan nazioarteko lankidetzari ematen dioten eginkizuna ere, gatazka biolentoak aldizka berpizten diren goera batean.

Laugarren kapituluan, Europako testuingurua aztertuko da, hain zuzen ere, Balkanetako. Hura kontinenteko azkeneko gatazka armatuak izan dituen eskualdea da. Esparru horretan, testuak 1325 Ebazpenaren edukiak Bosnia eta Herzegovinako eta Kosovoko gerraosteko bake eta segurtasun politika publikoetan izan duen eragina aztertzen du, momentura arte onartutako Ekintza Plan Nazionalen bitartez. Aldi berean, herrialde bietako hainbat erakunderen ikuspegiaren berri ematen da, 1325 Ebazpenari eta horrek bakearen eraikuntzaren arloko nazioarteko lankidetzarekin duen harremanari dagokienez. Lankidetzak hura gero eta urriagoa izan da azken hamarkadan.

Bosgarren kapituluan Erdialdeko Amerikara eta, hain zuzen ere, El Salvadorrera mugitzen gara. Bertan, 1325 Ebazpena aplikatzeko Ekintza Plan Nazionalak indarrean jarraitzen du. Lan honetan, lehenik, Plan horren aurrekariak, ikuspegiak, lehenetsunak eta burutze maila aztertzen ditugu. Bigarrenik, El Salvadorreko emakumeen eta feministen erakundeen ikuspegira hurbiltzen gara, hain zuzen, 1325 Ebazpenak haien lanean duen eraginari eta nazioarteko lankidetzak Emakumeen, Bakearen eta Segurtasunaren agendan duen eginkizunari buruz duten iritzia ikusiko dugu, indarkeria maila handiak eta birmilitarizazio prozesu bat bizi duen herrialde batean.

Azkenik, seigarren kapituluan, Kolonbiaren esperientzia jasotzen da. Hura da ikerketa honetako herrialdeen artean 1325 Ebazpena aplikatzeko Ekintza Plan Nazionalik onartu ez duen bakarra, emakumeen eta feministen mugimenduak bakea lortzeko prozesuan protagonismo eta eragin handia izan duen arren. Testu honek, gainera, Emakumeen, Bakearen eta Segurtasunaren nazioarteko agendaren lau oinarriak Kolonbiako politika publikoetan zenbateraino sartu diren aztertzen du, baita azken Bake Akordioetan (2016) dauden genero-neurriekin duten lotura ere. Halaber, kapituluak emakumeen eta feministen erakundeek bakegile gisa duten ibilbidea, horiek 1325 Ebazpenari buruz duten iritzia eta nazioarteko lankidetzak hura sustatzeko izan dezakeen eginkizuna aintzat hartzen du.

Argitalpen honetan lortutako eta aurkeztutako datuak, gaiaren inguruko berrikuspen bibliografikoaz gain, 2021eko uztailetik abendura bitartean *online* egindako galdetegi batean oinarritzen dira. Horretan Euskadiko zenbait GGKEk eta aipatutako herrialdeetako emakumeen eta feministen erakunde batzuek parte hartu zuten.

Konturatzen gara lortutako datuak ezin direla orokortzat hartu, ikerketak aipatzen dituen erakundeen esperientziaz harago. Hala ere, uste dugu argitalpen honek ondorio garrantzitsuak eskaintzen dizkiola nazioarteko lankidetzari eta, batez ere kasu-azterketetan, emakumeen eta feministen kolektiboek zuzenean emandako gomendioetatik datoz. Izan ere, kolektibo horiek ezagutza eta



ibilbide handia dute 1325 Ebazpena haien testuinguruetan inplementatzeari dagokionez. Hain justu ere, lan honetan, argitu nahi dugu 1325 Ebazpenak gaitasuna duen –eta nola– kolektibo horiek indartzeko eta, horrekin batera, nazioarteko lankidetzari dagokion eginkizunari buruz hausnartzeko, Emakumeen, Bakearen eta Segurtasunaren nazioarteko agenda aurrera eramateari dagokionean.

# I. Emakumeei, Bakeari eta Segurtasunari buruzko 1325 Ebazpenaren balantze kritikoa

---

Sheida Besozzi<sup>1</sup>

## 1. Sarrera

Emakumeei, Bakeari eta Segurtasunari buruzko 1325 Ebazpena Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak aho batez onartu zuen 2000ko urriaren 31an. Hura, gaur egun, Emakumeen, Bakearen eta Segurtasunaren (EBS) nazioarteko agenda delakoaren tresna nagusia da. Agendak, alabaina, 1325 Ebazpenaz gain, azken bi hamarkadetan Kontseiluak onartutako antzeko beste ebazpen batzuk hartzen ditu. Ebazpen berri bakoitzak EBS agenda zabaltzeko balio izan du baina, arlo horretan, 1325 Ebazpena ezagunena eta erabiliena da bai mundu osoko emakumeen eta feministen erakundeen artean bai nazioarteko lankidetzako eragileentzat<sup>2</sup>.

Kapitulu honen helburua, beraz, Ebazpenaren eta horren inguruan eraikitako EBS nazioarteko agendaren edukia aztertzea da, haren erabilgarritasunari eta potentzialtasunari eta kritikei eta identifikatutako mugei erreparatuz. Lehenengo kasuan honako hauek azpimarratu nahi ditut: 1325 Ebazpena erreferentea dela mundu osoko emakumeen eta feministen erakunde askorentzat eta hauek ahalegin handiak egiten dituztela hura inplementatzeko; 1325 Ebazpenaren eraginez sortutako garapen diskurtsibo eta normatiboa; eta haren inpaktuak neurtzeari dagokionez izandako aurrerapausoak. Kritikei eta mugei dagokionez, honako hauek aztertuko ditut: EBS agenda giza eskubideen esparrutik aldentzea; agenda horren instituzionalizazioa, genero-desberdintasuna gutxien eraldatzen duen bertsioa garatuz; gatazka testuingurueta sexu-indarkeriaren prebentzioan, babesean eta zigortzean izan duen eragin eskasa; estatuek hura inplementatzeko duten borondate politiko eza; eta gatazken prebentzioko, desarmatzeko eta desmilitarizazioko helburuak ez izatea.

---

1 Doktoretza aurreko ikertzailea UPV/EHUko Hegoa–Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenari buruzko Ikasketen Institutuan. Bere doktore tesiak Espainiako Estatuko irandar diasporaren eraikuntza eta horrek jatorrizko herriarekin duen lotura sozial, politiko eta kulturalak aztertzen ditu. Horretarako, lehen eta bigarren belaunaldiko irandar jatorriko pertsonen narratibak hartzen ditu oinarri gisa. Honako hauek dira bere ikerketa gai nagusiak: diasporak, migrazio transnasionala, giza eskubideak, Iran eta Ekialde Ertaina, feminismoak eta ikasketak poskolonialak.

2 1325 Ebazpenaren zabalkunde eta erabilera mailaren adierazle argia da mundu osoan 100 hizkuntza baino gehiagotara itzuli dela (Klot, 2015).

Lan hau gaiaren inguruan dagoen dokumentazio espezializatu ugariaren berrikuspen bibliografikoan oinarritzen da (besteak beste, nazioarteko arauak, artikuluak, liburuak eta Nazio Batuen eta gobernu kanpoko erakundeen txostenak).

## 2. 1325 Ebazpenaren jatorria eta Emakumeen, Bakearen eta Segurtasunaren nazioarteko agendaren garapena

1325 Ebazpenaren jatorria emakumeen eta feministen mugimenduak 1990ko hamarkadan bakearen alde egindako lan handiarekin lotuta dago (Magallón, 2006 eta 2008; Shepherd, 2020). Izan ere, Ebazpena mugimendu horren lorpen garrantzitsutzat hartu zen, Segurtasun Kontseiluaren eztabaidaren muinean kokatu baitzuen ordura arte nazioarteko bakerako eta segurtasunerako garrantzi nahikoa ez zuen gai bat.

Ebazpenak, bada, “gatazka armatuak emakume eta neskegan eragiten duen efektu neurrigabea eta bereizgarria (gizonek eta mutilek jasaten duten horren desberdina) aintzat hartzen du, baita emakumeek gatazkak prebenitzeko eta konpontzeko eta bakea eraikitzeko eta finkatzeko duten funtsezko eginkizuna ere” (Solanas, 2015: 1). Carol Cohn (2004) eta Carmen Magallón (2006) bezalako idazleek azpimarratu dute Ebazpenak emakumeek bakegile gisa duten rol aktiboa aintzat hartzen duela. Ordura arte, aldiz, bakeari eta segurtasunari buruzko nazioarteko arauak emakumeak biktima eta “talde kaltebera” gisa ikusten zituen (Mendia Azkue, 2014). Gainera, gatazkak konpontzeko eta bakea eraikitzeko ekimen guztietan –estatu mailakoetan eta nazioartekoetan– genero-berdintasun printzipioa txertatu beharri erantzuten dio 1325 Ebazpenak (Villemas, 2020). Ebazpenak hainbat aurrekari zuzen ditu. Horietako lehengoa, Giza Eskubideen Nazioarteko Biltzarra (Viena, 1993). Horretan, lehen aldiz, emakumeen eta nesken giza eskubideak giza eskubide unibertsalen osagai besterenezina eta zatiezina direla adierazi zen. Biltzar horren emaitzetako bat *Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeari buruzko Adierazpena* izan zen (NBE, 1993), zeinaren arabera “emakumeen giza eskubideen urraketak, gatazka armatuko egoeran, giza eskubideen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren funtsezko printzipioen urraketak dira” (Mendia Azkue eta Guzmán Orellana, 2019).

Bigarrenik, Emakumeei Buruzko Munduko IV. Biltzarraren Adierazpena eta Ekintza Plataforma (Pekin, 1995) 1325 Ebazpenaren aurreko arkitektura horren zatia da. Adierazpenak emakumeei eta gatazka armatuei buruzko helburu espezifikoak aipatzen zituen, hala nola emakumeek gatazkan konpontzeko erabakietan duten parte-hartzea handitzea, gatazka armatuko egoerak pairatzen dituzten emakumeak babestea, edo gastu militarrek eta armen eskuragarritasuna murriztea (NBE, 1995).

1325 Ebazpena onartu baino hilabete batzuk lehenago Nazio Batuen Bake Operazioen Sailak Windhoekeko Adierazpena eta Namibiako Ekintza Plana (2000koa, Bakea Babesteko Operazio Multidimentsionaletan Genero Ikuspegia Txertatzeari buruzkoa) onartzea sustatu zuen. Haren hitzetan “bake operazioen eraginkortasuna genero-berdintasun printzipioa bake misioen maila guztietan iragaztearen menpe” zegoen (Mendia Azkue eta Guzmán Orellana, 2019).

Aurrekari horiek, besteak beste, 2000ko urrian 1325 Ebazpena onartzen lagundu zuten. Hura hiru ardatz hauetan oinarritu zen: emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea, haien eskubideak

babestea eta emakumeek bakeari eta segurtasunari buruz erabakitzeke eremuetan parte hartzea. Hurrengo bi hamarkadetan, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak beste hamar ebazpen hartu ditu: 1820 (2008koa), 1888 (2009koa), 1889 (2009koa), 1960 (2010ekoa), 2106 (2013koa), 2122 (2013koa), 2242 (2015ekoa), 2467 (2019koa), 2493 (2019koa) eta 2538 Ebazpena (2020koa). Horiek aipatutako hiru ardatz horiek (prebentzioa, babesa, parte-hartzea) zabaltzen lagundu dute, indarkeria pairatu duten emakumeen errehabilitazioa edo erredukzioa horietan sartuz. Horiek guztiek EBS nazioarteko agenda osatzen dute<sup>3</sup> (ikus 1. taula).

1. taula. Emakumeen, Bakearen eta Segurtasunaren nazioarteko agendaren Ebazpenak		
Ebazpena	Urtea	Eduki nagusiaren laburpena
1325	2000	Gatazka armatuek emakumeengan dituzten ondorioak aztertzen ditu eta emakumeek gatazkak prebenitzeko eta konpontzeko eta bakea mantentzeko eta eraikitzeke duten eginkizuna aintzat hartzen du. Emakumeek bake eta segurtasun eragile gisa berdintasunez parte-hartzearen garrantzia azpimarratzen du.
1820	2008	Gatazka armatuetan emakumeen aurka erabiltzen den sexu-indarkeria gerrako arma eta krimen gisa identifikatzen du eta hura prebenitzeko deia egiten du.
1888	2009	Gatazka armatuetan sexu-indarkeria areagotu dela salatzen du eta eskatzen du, alde batetik, hari aurre egiteko lidergo bat eta, bestetik, hura gertatzen denean talde adituak hedatzea.
1889	2009	Bake-prozesuen etapa guztietan emakumeek parte hartzearen garrantzia nabarmentzen du, emakumeak babesteko eta ahalduntzeko deia egiten du eta 1325 Ebazpenaren implementazioa neurtzeko adierazleak sortzeko eskatzen du.
1960	2010	Gatazka armatuetako sexu-indarkeriarekin amaitu beharra azpimarratzen du eta horretarako dispositiboak sortzera premiatzen du.
2106	2013	Gatazka armatuetan sexu-indarkeriaren aurkako neurriak ezartzearen eta biktimek justizia lor dezaten erraztearen garrantzia azpimarratzen du.
2122	2013	Bake iraunkorra lortzeko “ikuspegi integral” bat funtsezkoa dela adierazten du; emakumeek bakea eraikitzean duten parte-hartzea handitzeko neurriak identifikatzen ditu; eta gatazken ondorioz kaltetutako emakumeei laguntzeko zerbitzuak emateko deia egiten du.
2242	2015	Gizarte zibilarekin lan egitearen, genero-berdintasunerako funtsak handitzearen eta EBS agenda estatuen politiketan txertatzearen garrantzia nabarmentzen du.

3 Ebazpen guztiak eskuragarri daude, hemen: <https://www.un.org/securitycouncil/es/content/resolutions>. EBS agendan beste kontu batzuk sortu dira, hala nola “estremismo bortitzaren aurkako borroka” (Basu, Kirby eta Shepherd, 2020: 6), baina azken hauek ez dute aurreko lau oinarrien ibilbide eta adostasun bera.

Resolución	Año	Síntesis de contenido principal
2467	2019	Gatazka armatuetan emakumeen aurka erabiltzen den indarkeria haien aurkako indarkeria <i>continuum</i> baten parte dela onartzen du, eta estatuek indarkeria horren oinarritzko kausei aurre egiteko duten erantzukizuna identifikatzen du. Halaber, biktimek justizia eta erreparazioa lortzeko dituzten aukerak indartzera premiatzen du.
2493	2019	Emakumeen eskubide guztiak sustatzeko, EBS agendaren finantzamendua handitzeko eta emakumeek bakearen eraikuntzan eta giza eskubideen defentsan egiten duten lanerako inguru segurua sortzeko deia egiten du.
2538	2020	Emakumeek bakea mantentzeko operazioetan duten parte-hartzea handitzeko neurriak hartu behar direla nabarmentzen du.

Iturria: egilea, honako hauetan oinarrituta: WILPF (2020: 42-43) eta Mujika Chao (2021: 20).

2015ean 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH) onartu zirenetik, Nazio Batuen sistemak 1325 Ebazpena Agenda horrekin eta, batez ere, GHI 5 (Genero Berdintasuna) eta GHI 16 (Bakea, Justizia eta Erakunde Sendoak) helburuekin lotzea sustatu du (Coomaraswamy, 2015).

### 3. Erabilgarritasuna eta potentzialtasuna

#### 3.1. Eragiteko tresna emakumeen eta feministen erakundeentzat

Mundu osoko emakumeen eta feministen erakundeek politikan eragiteko egiten duten lanerako duen erabilgarritasuna da 1325 Ebazpenaren funtsezko elementu bat. 2020. urtean, Kvinna till Kvinna Fundazioak Ebazpenaren eta EBS agendaren inplementazioaren lehen hogeitun urteak baloratzen dituen ikerketa egin zuen. Horretan herrialde hauetako 91 emakume bakegile eta giza eskubideen defendatzaile elkarrizketatu zituzten: Siria, Irak, Armenia, Azerbaijan, Ukraina eta Bosnia eta Herzegovina. Ikerketaren arabera, emakume horietako gehienek 1325 Ebazpena erabiltzen dute gatazkak konpontzeko eta bakea eraikitzeko dituzten jardueretan. Halaber, txostenak erakusten du Ebazpen horrek ekarpen handia egin duela emakumeen eskubideak legitimatzeari eta haien parte-hartze sozio-politikoari dagokienez.

Beraz, emakumeen eta feministen erakunde askok 1325 Ebazpena erabiltzen dute haien gobernuen presioa egiteko, haien eskaeran entzun ditzaten lortzeko eta politikan eragiteko, bai estatu-mailan bai nazioartean. Zentzu horretan, bada, erakunde horiek 1325 Ebazpena babesteko oinarririk sendoena bihurtu dira, haiek baitira gobernuen eta nazioarteko erakundeen aurrean Ebazpena aplikatzeko eragin handiena egiten dutenak.

#### 3.2. Garapen normatibo eta diskurtsiboa

Bestalde, 1325 Ebazpenak emakumeei, bakeari eta segurtasunari buruzko arkitektura normatibo eta diskurtsibo garrantzitsua sortu du bere inguruan (Solanas, 2015). Bakearen eta Askatasunaren

aldeko Emakumeen Nazioarteko Ligak EBS agendaren lehen hogeitun urteei buruz egindako txosten baten arabera (WILPF, 2020), Ebazpenaren eraginez sortutako *corpus* teorikoa oso sendoa da eta, hari esker, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak hainbat gai landu ditu, hala nola giza eskubideen defendatzaile diren emakumeen egoera, erreparazioak genero-ikuspegitik, genero-desparekotasun estrukturalak edo emakumeek bakea eraikitzeko prozesuetan duten rol aktiboa.

Gainera, emakumeek bakegile eta giza eskubideen defendatzaile gisa egiten duten lana aintzat hartzeak lan hori nazioartean legitimatzen lagundu du. Nazio Batuen Idazkari Nagusiak 2020an EBS agendaren aurrerapenei buruz egindako txostenaren arabera, 2017tik 2019ra bitartean Segurtasun Kontseiluak onartutako ebazpenen % 70k emakumeak, bakea eta segurtasuna aipatzen zituzten. 1325 Ebazpena onartu ondorengo lehen hamabost urteetan, ordea, % 15 besterik ez ziren izan. Txosten horren arabera ere, beren planteamenduetan genero-berdintasuna sartzen duten bake-akordioen kopuruak gora egin du, % 14tik 1995ean % 22ra 2019an (NBE, 2020).

Aurrerapen normatiboak eta diskurtsiboak estatu, eskualde eta gobernu arteko eremuetara ere heldu dira. Gaur arte, Nazio Batuen kide diren 98 herrialdeetatik % 52k 1325 Ebazpena inplementatzeko Ekintza Plan Nazionalak (EPN) garatu dituzte<sup>4</sup>. Halaber, azken hamabost urteetan hamar Eskualdeko Ekintza Plan baino gehiago onartu dituzte Europar Batasunak (2008), Afrikar Batasunak (2014), Arabiar Ligak (2015) eta Asia-Pazifiko eskualdeak (2016). Oraintsuago, Iparralde eta Hegoalde Globaleko zenbait herrialdek “kanpo-politika feministak” sortu dituzte. Horiek genero-berdintasunaren diskurtsoak –eta horren barnean 1325 Ebazpenak eta EBS agendak– nazioartean izan duen eraginaren emaitza direla uler daiteke<sup>5</sup>.

### 3.3. Eragina neurtzeko eta ebaluatzeko proposamenak

1325 Ebazpenarekin eta EBS agendarekin lotu daitekeen beste efektu bat da arlo horretako politiken eragina neurtzeko ahaleginei dagokiena. Ikusi dugun bezala, 2009ko 1889 Ebazpenak horretarako mekanismoak sortzera premiatu zuen eta, 2010ean, Nazio Batuen Idazkari Nagusiak 26 adierazle kualitatibo eta kuantitatibo proposatu zituen, lehen aipatutako EBS agendaren lau ardatzen arabera antolatuta: parte-hartzea, prebentzioa, babesa eta erreparazioa (NBE, 2010).

Halaber, 2017an AEBetako *Georgetown Institute for Women, Peace and Security* (GIWPS) eta Norvegiako *Peace Research Institute* (PRIO) institutuek elkarrekin lan egin zuten zenbait adierazle sortzeko, gero *Women, Peace and Security Index* indizea ekarriko zutena. Gaur egun, indize horrek 170 herrialde sailkatzen ditu eta hiru dimentsioren arabera egituratzen da: “inklusioa (ekonomikoa, soziala eta politikoa), justizia (lege formalak eta diskriminazio informala) eta segurtasuna (pertsonala, komunitarioa eta soziala)” (Solanas, 2019: 1), eta emaitzak aldizka argitaratzen dira<sup>6</sup>. Dena den, indizeak kritikak jaso ditu erabilitako aldagaien gabeziengatik, esate baterako, ez ditu kontuan hartzen gastu militarrik, eta ez du gatazkan eta gatazka osteko

4 Ekintza Plan Nazionalak buruzko informazio gehiago, hemen: <https://1325naps.peacewomen.org>

5 Nolanahi ere, politika horien izaera berritzailea eta eduki feminista ere zalantzan jartzen dute zenbait egilek. Adibide bezala, ikus: Rubio Grundell, de Lima Grecco eta Ruiz-Giménez Arrieta (2021). Kanpo-politika feministei buruzko xehetasun gehiago, hemen: <https://centrefor feministforeignpolicy.org/feminist-foreign-policy>

6 Informazio gehiago, hemen: <https://giwps.georgetown.edu/the-index>

egoeretan emakumeek gatazkak prebenitzeko eta bakea eraikitzeko lanean duten parte-hartzea neurtzen (Basu, Kirby eta Shepherd, 2020).

Inpaktuak neurtzeko ildo beretik, 2013ko 2122 Ebazpenak 1325 Ebazpenaren inplementazioaren mundu mailako ebaluazioa eskatu zuen eta haren emaitza Radhika Coomaraswamyk lideratutako *1325 Ebazpenaren Inplementazioari buruzko Ikerketa Globala* izan zen (2015). Ikerketa horretan gizarte zibileko ehunka erakundek hartu zuten parte, tartean emakumeen eta feministen zenbait erakundek ere. Ikerketa zabala eta zorrotza da eta hutsak, erronkak, sortzen diren joerak eta ekintzarako lehentasunak identifikatzen ditu.

Jarraian ikusiko dugun bezala, zehazki hainbat dira emakumeen eta feministen erakundeek Ebazpenaren inplementazioari buruzko balantzeetan identifikatutako kritika eta mugak.

## 4. Kritikak eta mugak

### 4.1. Giza eskubideak babesteko esparrutik aldentzea

1325 Ebazpena erabiltzen duten emakumeen eta feministen erakundeek hura giza eskubideen esparruan kontuan hartzea aldarrikatzen dute, eta borroka feminista globalak emakumeen eskubideen arloan lortutako aurrerapausoei lotuta, hala nola hauei: Emakumeen Kontrako Diskriminazio Era Guztiak Ezabatze Konbentzioa (CEDAW) (1979) eta Pekineko Adierazpena eta Ekintza Plataforma (1995) (Cohn et al., 2004; WILPF, 2020; Mesa, 2021). Zentzu horretan, emakumeen eta feministen mugimenduak emakumeen giza eskubideak eta genero-berdintasuna nazioarteko bakearen eta segurtasunaren ardatz nagusitzat hartzen ditu.

Alabaina, oraindik ere, EBS agenda emakumeei dagokien kontu bat da askorentzat. Hori dela era, ez du garrantzi nahikoa lortzen nazioarteko bakearen eta segurtasunaren esparru instituzionalean (WILPF, 2020), ezta giza eskubideen babeserako nazioarteko beste tresna batzuek duten aintzatespena ere. 1325 Ebazpenak eta EBS agendari lotutako gainontzeko ebazpenek ez dituzte estatuak behartzen, giza eskubideei buruzko beste itun batzuek egiten duten bezala. Ondorioz, herrialde askotan Ekintza Plan Nazionalak badaude ere, EBS agenda inplementatzeko arduraren zati handi bat mundu osoko emakumeen eta feministen erakundeek hartzen dute beren gain. Erakunde horiek askotariko eginkizunak betetzen dituzte emakumeen giza eskubideak babesteko eta sustatzeko. Gainera, NBEk “emakumeen erakundeekin elkarrizketa iraunkorra” lortzeko mekanismoak falta direla onartzen du (NBE, 2020: 25) eta horrek EBS agendaren inplementazioa eta haren inguruan kontuak eman ditzaten zailtzen du.

### 4.2. Emakumeen, Bakearen eta Segurtasunaren agendaren instituzionalizazioa

EBS agenda instituzionalizatu egin da, baina emakumeen eta feministen erakundeek sustatutako genero eta bake politiken alderdi erradikalenak baztertuz (Basu, Kirby eta Shepherd, 2020). Instituzionalizazio horrek emakumeen ahalduntze publikotik eta genero-arrakala murriztetik urrun dauden prozesuak sortzen ditu (Solanas, 2016).

Izan ere, 1325 Ebazpenaren helburu nagusia nazioarteko bakeari eta segurtasunari buruz erabakitzeke eremuetan emakumeen parte-hartze politikoa handitzea bada, hogei urte geroago, aurrerapenak egon dira baina emakumeen presentzia oso txikia eta minoritarioa da oraindik ere. Bakearen eraikuntzaren esparruan, oro har, emakumeak baztertuta daude: 1992tik 2019ra bitartean, emakumeak munduko bake-prozesuetako negoziatzaileen % 13, bitartekarien % 6 eta sinatzaileen % 6 ziren. Halaber, hamar bake-prozesutik zazpi ez dute emakumerik bitartekarien edo sinatzaileen artean (NBE, 2020).

Gainera, bake negoziazioetan emakumeen interesak sartzen direnean, biktima gisa egiten da, ez bakegile gisa, eta, horren ondorioz, ez dituzte kontuan hartzen haien aldarrikapenetako asko. Horri gehituta, emakumei gizonei baino kualifikazio handiagoa exijitzen diete bake-prozesuetan parte hartzeko (WILPF, 2020).

### **4.3. Aurrerapen gutxi gatazketan sexu-indarkeria prebenitzeko, babesteko eta zigortzeko**

1990ko hamarkadan, arauetan aurrerapausoak egin ziren sexu-indarkeria gerrako krimen, gizateriaren aurkako krimen eta genozidioko krimen gisa tipifikatzeari dagokionez, eta horren inguruko jurisprudentzian ere aurrera egin da.

Hortik abiatuta, EBS agendak gerrako sexu-indarkeriari buruzko alderdi asko ditu eta zenbait ebazpen espezifiko lortu ditu horren inguruan. 2008ko 1820 Ebazpena, bada, lorpen garrantzitsua izan zen zentzu horretan, gatazkako sexu-indarkeriak nazioarteko bakea eta segurtasuna arriskuan jartzen zuela onartu baitzuen. Horregatik, 1325 Ebazpenarekin batera, 1820 Ebazpena EBS agendaren ebazpen ezagunetako bat da. Pixka bat geroago, 2009an, 1888 Ebazpenaren eraginez, Idazkari Nagusiaren Ordezkarri Berezia Bulegoa sortu zen, Gatazketako Sexu Indarkeriari buruzkoa. Bulegoaren eginkizunetako bat da Estatuak beren konpromisoak bete ditzaten laguntzea eta, bereziki, zigorgabetasunaren eta kontuak ematearen auzia lantzea.

Hala ere, sexu-indarkeriako krimenak duen inpunitate maila oso handia da oraindik ere (Coomaraswamy, 2015). NBEk aitortzen du zigorgabetasun hori estatuen borondate faltaren ondorioa dela, izan ere, oso kasu gutxi eramaten dituzte auzitegiara (NBE, 2020). Hortaz, desoreka handia dago sexu-indarkeriak EBS agendan duen garrantziaren eta hura prebenitzeko, biktimak babesteko eta erantzuleak zigortzeko benetako aurrerapausoen artean.

### **4.4. Estatuaren konpromiso falta**

1325 Ebazpenak eta EBS agenda osoak, beren izaeratik, nazioarteko bakearen eta segurtasunaren ikuspegi estatuzentrikoa dute. Alde batetik, Segurtasun Kontseiluak hartzen duen edozein erabaki hura osatzen duten estatuen menpe dago eta, bereziki, kide iraunkorren menpe; izan ere, haien beto-eskubidearekin, azken hitza dute. Bestetik, estatuei dagokie ardura hartzea eta Kontseiluak onartutako ebazpenak inplementatzeko baliabideak jartzea.

Gaur egun, bost kide iraunkorretako hiruk, hau da, Txinak, Errusiak eta AEBek, gero eta erresistentzia handiagoa erakusten dute 1325 Ebazpena eta ondorengoak inplementatzeko (WILPF,



2020; Solanas, 2020). Hori aurreko zailtasunei gehitzen zaie, estatuak oso konpromiso eta jarduera gutxi izan baitute aurreko bi hamarkadetan. 1325 Ebazpenaren EPNak ez dira EBS agendaren inplementazio “esanguratsua eta funtsezkoa” sustatzen ari (Coomaraswamy, 2015: 30). Hori azaltzen duten faktoreen artean, aipa dezakegu, planei ez dizkietela baliabide nahikorik ematen; izan ere, dauden 98 EPNetatik, 35ek (% 36) soilik dute aurrekontu bat abian jartzeko.

Halaber, EPNetako 70ek (% 72) eginkizun espezifikoa ematen diete gizarte zibileko erakundeei baina, egiatan, ez dago ia harremanik edo loturarik EBS agendako gobernu politiken eta emakumeen eta feministen erakundeek egindako bakegintza ekimenen artean (WILPF, 2020).

#### 4.5. Militarismoa desarmatzearen eta gatazken prebentzioaren orde

1325 Ebazpenari egiten dioten beste kritika bat da arreta eskasa eskaintzen diela desarmatzeari eta gatazkek prebenitzeari. Ikusi dugun bezala, ebazpen hori onartu baino bost urte lehenago, Pekineko Adierazpenak eta Ekintza Plataformak ezarri zuen gastu militarra murrizteak eta desarmatzea sustatzeak nazioarteko helburu estrategiko bat izan behar zuela emakumeen eskubideak eta genero-berdintasuna bermatzeko. Hura, emakumeen eta feministen nazioarteko mugimenduak sustatutako “bake positiboaren” ikuspegi zabalaren parte zen.

Alabaina, kontu biak, hau da, gastu militarren murrizketa eta desarmatzea, EBS agendan lantzeke daude oraindik ere (WILPF, 2020). Izan ere, horretan ez da aipatzen 2000ko hamarkadaz geroztik izan den militarizazio gero eta handiagoa. Horren arrazoietako bat izan daiteke Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluko bost kide iraunkorrak arma esportatzaile nagusien artean daudela. Estatu mailan, 98 EPNetako 31k bakarrik (% 32) aipatzen dute desarmea edo horretarako neurriak dituzte (ibid.) eta “kanpo-politika feminista” bultzatzen ari diren herrialdeetako batzuk arma saltzaile handiak dira (Mesa, 2021).

Hortaz, bakearen eraikuntzan lan egiten duten emakumeen eta feministen erakundeek desmilitarizazio helburuak oztupo bat du atzean. Hanna Wrightek aipatu bezala (2015: 4-5), “emakumeei, bakeari eta segurtasunari buruzko ebazpenek ezartzen dituzten xedapenak (...) labur geratzen dira feministek nahi duten nazioarteko segurtasunaren birdiseinu erradikalarekin alderatuta. Zentzu horretan, helburua ez da gatazkek konpontzeko dauden sistemetan emakumeen parte-hartzea handitzea soilik, baizik eta segurtasun ikuspegi ez hain militarizatuak eta maskulinizatuak sustatzea, aldeztatik gatazkek prebenitzen lagunduko dutenak”.

## 5. Ondorioak

Azken bi hamarkadetan, 1325 Ebazpenak garapen diskurtsibo eta normatibo handia ekarri du Emakumeen, Bakearen eta Segurtasunaren nazioarteko agendaren inguruan. Hala, ebazpena funtsezko erreferentea da mundu osoan zehar gatazken generoko ondorioak salatzen dituzten eta gatazkei eta bakeari buruz erabakitzeke eremuetan emakumeen parte-hartzea sustatzen duten emakumeen eta feministen erakundeentzat. Gainera, pixkanaka, agenda horren inaktuak neurtzeko mekanismo zehatzak sortu dituzte.

Hala ere, EBS agendaren gaur egungo dimentsio diskurtsiboa ez dator bat agendak nazioarteko bake eta segurtasun politiketan duen garrantziarekin edo haren inplementazio mailarekin. Iparralde zein Hegoalde Globaleko emakumeen eta feministen mugimenduen artean, gero eta gehiagok salatzen dute EBS agendaren erretorikaren eta haren gauzatze mailaren arteko inkoherentzia hura. NBEk ere aitortzen du diskurtsoaren eta praktikaren artean arrakala hori dagoela eta haren ustez estatuen borondate faltaren ondorio da. Hau da, EBS agenda bi hamarkadaz garatu izan den arren, argi dago estatuentzat bigarren mailako garrantzia duela nazioarteko bakeari eta segurtasunari dagokienez.

Urteetan, 1325 Ebazpenaren eta EBS agendaren inplementazioa hobetzeko gomendio ugari egin dira, beraz, arazoa ez da gidalerro edo jarraibide eza. Gomendio horiek arlo horretan lan egiten duten emakumeen eta feministen erakundeentzat funtsezkoak diren zenbait helburu betetzeko deia egiten dutela behin eta berriz, hala nola militarizazioaren ordeztatzeko prebentzioa sustatzea, EBS agenda giza eskubideen nazioarteko esparruaren zatitza hartzea, bake-prozesuen jardura-maila guztietan emakumeek parte hartzea, emakumeen aurkako krimenen inpunitatea borrokatzea, eta emakumeen bakegintza lanerako finantzamendu askoz handiagoa eskatzea.

Helburu horiekin bat, Ekintza Plan Nazionalak, 1325 Ebazpena tokian, estatu mailan edo eskualdean aplikatzeko tresnak diren heinean, zenbait alderdi hobetu beharko lituzkete genero-berdintasuna gauzatzeko beharrezkoak diren aldaketa estrukturalak lortzeko, hala nola hauek: gatazken jatorriaren eta genero-desparekotasunen azterketan oinarritzea; aurrekontu-esleipen zehatz eta nahikoa izatea, lortutako aldaketak funtsezkoak izan daitezen; bakearen eraikuntzan lan egiten duten emakumeen eta feministen erakundeekin etengabeko harremana izatea; EBS agenda giza eskubideen ikuspegitik ulertzea; gatazka prebenitzeko, desarmatzeko eta desmilitarizazioko neurriak izatea; inpaktuak neurtzeko adierazleak garatzea; eta kontuak emateko mekanismoak diseinatzea.

## 6. Bibliografia

- Basu, Soumita, Kirby, Paul eta Laura J. Shepherd (2020): "Women, Peace and Security: A Critical Cartography". In Basu, Soumita, Kirby, Paul eta Laura J. Shepherd (argtz.): *New Directions in Women, Peace and Security*, Bristol University Press, Bristol, 1-25.
- CEDAW (1979): *Emakumeen Kontrako Diskriminazio Era Guztiak Ezabatzeko Konbentzioa*. Nazio Batuetako Asanblada Orokorra, A/RES/34/180.  
<https://www.ohchr.org/es/instruments-mechanisms/instruments/convention-elimination-all-forms-discrimination-against-women>
- Cohn, Carol (2004): "Feminist Peacemaking", *The Women's Review of Books*, 11. libk., 5. zkia., 8-9.
- Cohn, Carol et al. (2004): "Women, Peace and Security. Resolution 1325", *International Feminist Journal of Politics*, 6. libk., 1. zkia, 130-140.
- Coomaraswamy, Radhika (2015): *Preventing Conflict, Transforming Justice, Securing the Peace. A Global Study on the Implementation of United Nations Security Council Resolution 1325*. NBE Emakumeak. <https://wps.unwomen.org>
- Klot, Jennifer F. (2015): "UN Security Council Resolution 1325: A Feminist Transformative Agenda?". In Baksh, Rawwida eta Wendy Harcourt (argtz.): *The Oxford Handbook of Transnational Feminist Movements*, Oxford University Press, Oxford eta New York, 223-245.

Kvinna till Kvinna (2020): *A right, not a Gift. Women Building Feminist Peace.*

<https://kvinnatillkvinna.org/publications/a-right-not-a-gift-2020>

Magallón, Carmen (2006): *Mujeres en pie de paz*, Siglo XXI, Madril.

– (2008): *Mujer, Paz y Seguridad: un balance de la Resolución 1325*, *Anuario CEIPAZ 2008-2009*, 63-77. <https://ceipaz.org/wp-content/uploads/2020/05/03.-carmen-magallon.pdf>

Mendia Azkue, Irantzu (2014): *La división sexual del trabajo por la paz. Género y rehabilitación posbélica en El Salvador y Bosnia-Herzegovina*, Tecnos, Madril.

Mendia Azkue, Irantzu eta Gloria Guzmán Orellana (2019): “Genero-ikuspegia gatazketan: bakegintzaren aldeko eta zigorgabetasunaren aurkako ekintza feministarekin bat egiten duen nazioarteko lankidetzarantz”, *Gatazkarekiko Sentikorra den Lankidetzarako Gidak*, Hegoa Institutua, Bilbo. <https://publicaciones.hegoa.ehu.es/es/publications/405>

Mesa, Manuela (2021): “Política exterior feminista: la apuesta de los gobiernos por la igualdad”, *CEIPAZ Urtekaria 2020-2021*, 113-142.

<https://ceipaz.org/wp-content/uploads/2021/05/6.-ManuelaMesa.pdf>

Mujika Chao, Itziar (2021): “Veinte años de la agenda internacional sobre Mujeres, Paz y Seguridad (MPS)”, *Revista CIDOB d’Afers Internacionals*, 127, 15-38.

Nazio Batuak (1993): *Emakumeen Aurkako Indarkeria Ezabatzeari buruzko Adierazpena*, Nazio Batuen Asanblada Orokorraren 48/104 Ebazpena, abenduak 20.

– (1995): Beijingeko Emakumeen Munduko IV. Konferentziaren *Adierazpena eta Ekintza-Plataforma*, Nazio Batuen Asanblada Orokorra, irailak 15, A/CONF.177/20/Rev.1.

– (2000): *Declaración de Windhoek y Plan de Acción de Namibia sobre la incorporación de una perspectiva de género en las operaciones multidimensionales de apoyo a la paz*, uztailearen 14, A/55/138-S/2000/693.

– (2010): *La mujer y la paz y la seguridad*. Idazkari Nagusiaren Txostena, Nazio Batuen Segurtasun Kontseilua, S/2010/173.

– (2020): *Las mujeres y la paz y la seguridad*. Idazkari Nagusiaren Txostena, Nazio Batuen Segurtasun Kontseilua, S/2020/946.

Shepherd, Laura J. (2020): *Narrating the Women, Peace and Security Agenda. Logics of Global Governance*, Oxford University Press, New York.

Solanas, María (2015): *Mujeres, paz y seguridad: lejos de las aspiraciones de la Resolución 1325*, ARI 44/2015, Real Instituto Elcano, 1-9.

– (2016): *Aplicando la Resolución 1325: más mujeres en posiciones de liderazgo, más paz*. Real Instituto Elcano, Madril.

[blog.realinstitutoelcano.org/aplicando-la-resolucion-1325-mas-mujeres-en-posiciones-de-liderazgo-mas-paz](http://blog.realinstitutoelcano.org/aplicando-la-resolucion-1325-mas-mujeres-en-posiciones-de-liderazgo-mas-paz)

– (2019): *Nace la Alianza Global de Mujeres Mediadoras*.

[blog.realinstitutoelcano.org/nace-la-alianza-global-de-mujeres-mediadoras/](http://blog.realinstitutoelcano.org/nace-la-alianza-global-de-mujeres-mediadoras/)

– (2020): *(Sin) Mujeres, Paz y Seguridad*. Real Instituto Elcano, Madril.  
[blog.realinstitutoelcano.org/sin-mujeres-paz-y-seguridad](http://blog.realinstitutoelcano.org/sin-mujeres-paz-y-seguridad)

Rubio Grundell, Lucrecia, de Lima Grecco, Gabriela eta Itziar Ruiz-Giménez Arrieta (2021): “Una mirada desde los feminismos críticos a las políticas exteriores feministas de Suecia, Canadá, Francia, México y España”, *Tiempo Exterior*, 42. zkia., XXI libk. (II), 7-26.

Villellas, María (2020): 20 años de implementación de la Agenda Género, Paz y Seguridad, *Apunts ECP de Conflictos i Pau*, Escola de Cultura de Pau, 1-6.

WILPF (2020): *UNSCR 1325 at 20 Years: Perspectives from Feminist Peace Activists and Civil Society*. Women’s International League for Peace and Freedom.

[https://www.wilpf.org/wp-content/uploads/2020/11/WILPF\\_UNSCR-1325-at-20-Years\\_Web.pdf](https://www.wilpf.org/wp-content/uploads/2020/11/WILPF_UNSCR-1325-at-20-Years_Web.pdf)

Wright, Hannah (2015): “La 1325: ¿una herramienta útil para las activistas?”, 25. zkia., *Mujeres, Paz y Seguridad: 15 años de la Resolución 1325*

<https://www.icip.cat/perlapau/es/articulo/la-1325-una-herramienta-util-para-las-activistas>

## II. Euskal GGKEak 1325 Ebazpenaren aurrean

---

Irantzu Mendia Azkue<sup>1</sup>

### 1. Sarrera

Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpena, Emakumeei, Bakeari eta Segurtasunari buruzkoa, 2000ko urrian onartu zen eta, une horretan, lorpen garrantzitsutzat hartu zen, honako hauek aintzat hartzeari dagokionez: gatazka armatuek emakumeengan dituzten ondorio desberdinak, emakumeak indarkeriaren aurrean babestu beharra, eta bakea eraikitzeko prozesuen maila eta fase guztietan emakumeen parte-hartzeak duen garrantzia. Gainera, Ebazpena onartzearen ondorioz, genero-ikuspegia bakearen eta segurtasunaren nazioarteko agendan sartuz joan zen pixkanaka.

Euskadin Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Planak (2018-2021) 1325 Ebazpenaren berri eman zuen gatazken eraldaketa eta bakearen eraikuntza bere esparru estrategikoen artean sartzean: “Munduan hainbat gatazka suntsitzaile dauden heinean, bakea eraikitzea ezinbesteko erronka globala da giza garapen iraunkorra lortzeko, GIH 16 helburuak argi adierazten duen bezala. Prozesu horien esparruan, gainera, emakumeek rol protagonista izan behar dute, nazioarteko hainbat arauk adierazten duten bezala, hala nola Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpenak (2000)”.

Euskal lankidetzaz-politika gatazkek eraldatzearen eta bakea eraikitzearen alde agertzen dela eta eremu estrategiko horretan emakumeek rol protagonista izan behar dutela adierazten duela kontuan hartuta, lan honen helburua euskal GGKEek 1325 Ebazpenarekin duten harremanera hurbiltzea da. Hain zuzen, haren ezaguera eta erabilera maila, eta nazioarteko lankidetzako ekimenetan tresna gisa duen erabilgarritasunaren pertzepzioa aztertu nahi ditugu, baita gatazkako, gatazka osteko

---

1 Garapen ikasketetan doktorea eta UPV/EHUko Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko irakaslea. UPV/EHUko Hegoa-Nazioarteko Lankidetzaz eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutuko eta euskal unibertsitate sistemako (IT434-22) Giza Segurtasunari, Tokiko Giza Garapenari eta Nazioarteko Lankidetzari buruzko Ikerketa Taldeko (2022-2025) ikertzailea. Bere lanaren ardatz nagusia gatazka armatuen, bakearen eraikuntzaren, trantsizioko justiziaren eta memoria historikoaren azterketa feminista da.

edo tentsioko testuinguruetan lankide ditugun emakumeen eta feministen erakundeekin duen harremana ere<sup>2</sup>.

Lortutako eta testu honetan aurkeztutako datuak Euskadiko 19 GGKEk 2021eko uztaila eta iraila bitartean *online* egindako galdetegi batean emandako erantzunetatik hartu dira. Erakunde horiek euskal lankidetzaren publikoko fondoak erabili dituzte 2016-2021 denboraldian, nazioarteko lankidetzako proiektuak hainbat lekutan inplementatzeko, besteak beste, argitalpen honetan kasu-azterketa gisa aukeratutako herrialdeetan: Kolonbia, El Salvador, Kongoko Errepublika Demokratikoa (RDC) eta Balkanak. Parte hartu duten erakunde gehien-gehienak Euskadiko GGKEen Koordinakundeko kideak dira<sup>3</sup>.

Esan beharra dago jasotako erantzunek ez dutela emaitzak orokortzeko nahikoa den lagin bat osatzen. Hortaz, lan honen helburua da euskal lankidetzaren –GGKEen bitartez– eta 1325 Ebazpenaren eta Emakumeen, Bakearen eta Segurtasunaren nazioarteko agendaren arteko harremanaren zati bat adieraztea.

Ikerketan parte hartu duten erakundeen lan-eremu nagusia nazioarteko lankidetzaren da. Horren atzetik Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza dugu eta, neurri txikiago batean, Ekintza Humanitarioa. Erakundeetako batzuek beste eremu batzuk ere aipatzen dituzte, hala nola feminismoak, giza eskubideen defendatzaileak babestea eta komunikazioa eta ikerketa. Ia erakunde guztiek Latinoamerikan lan egiten dute, eta horren atzetik ditugu Afrika, Europa, Ekialde Ertaina eta Asia.


---

2 Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Escola de Cultura de Pau ikerketa-zentroaren irizpideari jarraituz, tentsio testuinguru gisa honako hau ulertzen dugu: zenbait eragilek helburu jakinak bilatzearen edo haien eskaerak ez betetzearen ondorioz, mobilizazio politiko, sozial edo militar handiak eta/edo indarkeriaren erabilera –gatazka armatuko indarkeriaren intentsitatera heltzen ez dena– gertatzen diren egoerak; liskarrak, errepresioa, Estatu-kolpeak, atentatuak edo beste eraso batzuk izan ditzaketanak eta, baldintza zehatz batzuetan, gatazka armatu bilakatzera ere hel daitezkeenak. Ikus, *Alerta 2022. Informe sobre conflictos, derechos humanos y construcción de paz*, hemen:


<https://escolapau.uab.cat/publicaciones/alerta-informe-sobre-conflictos-derechos-humanos-y-construccion-de-paz>.

3 Erakunde hauek dira: Alboan, Elkarkredit, Garabide, Lankidetzarako Ingeniaritza (icli), Kultura, Communication y Desarrollo (KCD), Medicusmundi Bizkaia, Mugarik Gabe, Mugen Gaietik, Mundubat, Paz con Dignidad, Bakea eta Elkartasuna Euskadi, Setem Hegoa Haizea, Tau Fundazioa, Unicef Euskadiko Batzordea eta Zabalketa. Honako beste hauek ere galdetegiari erantzun zioten: Feministalde, Bake Brigada Internazionalak (Euskadiko taldea), Jambo Congo Elkarte eta Euskal Fondoa–Tokiko Euskal Erakunde Kooperanteen Elkarte. Horiei guztiei ikerketan parte hartzeko interesa eta prestutasuna eskertu nahi diegu.

1. grafikoa.  
Erakundeen lan-eremuak




2. grafikoa.  
Erakundeen jarduketa-eremu geografikoak



Parte hartu duten erakundeen eta argitalpen honetan aztertutako herrialde edo eskualdeen arteko lankidetzaz-harremanak, dagokion denboraldirako (2016-2021), honako hauetan izan dira batez ere: El Salvador (% 68) eta Kolonbia (% 58). Askoz gutxiago da RDCn (% 26) eta Balkanetan (% 5) egindako lana.

## 2. Ezaguera eta erabilera maila

Emakumei, Bakeari eta Segurtasunari buruzko 1325 Ebazpena ez da oso ezaguna inkestatutako euskal GGKEen artean. Gehienek, % 69k, gutxi ezagutzen dute (% 53) edo ez dute ezer ere ezagutzen (% 16) eta % 31k dezente (% 26) edo asko (% 5) ezagutzen dute.




Datu horiek bat datoz erakundeek inplementatzen dituzten nazioarteko lankidetzako proiektuetan 1325 Ebazpenari egiten dizkioten aipamen urriekin. Izan ere, erakundeen % 74k ez dute hura inoiz aipatzen (% 42) edo oso gutxitan (% 32), eta soilik % 26k aipatzen dute sarritan. Halaber, batek ere ez du Ebazpena beti edo sistematikoki aipatzen proiektuetan



4. grafikoa.


## 1325 Ebazpenaren erabileraren maiztasuna erakundeen proiektuetan



Hala, 1325 Ebazpena aipatzen duten GGKEek honako herrialde hauetan inplementatutako nazioarteko lankidetzako proiektuetan egin dute: Kolonbia, Guatemala, El Salvador, Peru, Palestina, RDC, Kamerun, Burundi, Hegoafrika, Maroko, Nigeria, Senegal, Mendebaldeko Sahara eta Filipinak. Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza proiektuetan izan duen erabilerari erreparatzen badiogu, deigarria da Ebazpena erakunde bakar batek aipatu duela Euskadin eta Espainiako Estatuan egindako proiektuetan. Datu horrek aditzera ematen digu euskal GGKEek ez dutela paper garrantzitsua izan 1325 Ebazpena eta haren edukia zabaltzean eta ezagutzera ematean gure inguruan egindako ekimenetan.

1325 Ebazpenarekin lotzen dituzten lankidetzako jarduera-motei dagokienez, gehienek emakumeen parte-hartzea sustatzea (% 74) eta indarkeriaren aurrean babesteko ekintzak (% 63) aipatzen dituzte. Horrekin alderatuta, erakundeek gutxiago egiten omen dituzte indarkeria prebenitzeko ekintzak (% 47) eta errehabilitatzeko eta indarkeriak egindako kaltea erreparatzeko ekintzak (% 42).


5. grafikoa.  
Erakundeek beren proiektuetan 1325 Ebazpenarekin lotzen duten jarduera mota



### 3. Nazioarteko lankidetzaren tresna gisa duen erabilgarritasunaren pertzepzioa

GGKEek inplementatutako proiektuetan 1325 Ebazpena gutxitan erabiltzen badute ere, haren erabilgarritasunaren pertzepzioari buruzko datuek ikuspegi kontrajarriak erakusten dituzte: erakundeen % 50k ez dute hura batere erabilgarri (% 11) edo oso erabilgarri (% 39) ikusten; gainontzeko % 50ak, ordea, nahiko erabilgarri (% 39) edo oso erabilgarri (% 11) ikusten dute.

6. grafikoa.  
1325 Ebazpenak lankidetzatresna gisa duen erabilgarritasunaren pertzepzioa




Erabilgarritasunaren pertzepzioa askotariko faktoreen menpe egon daiteke. Kasu honetan, honako hauek hartu ditugu kontuan: GGKEek Ebazpenaren bake eta segurtasun ikuspegiarekin duten adostasun maila; Ebazpenak erakundeen lehentasunezko gaiekin duen lotura; Ebazpenak genero-harremanak eraldatzeko duen gaitasunaren pertzepzioa; emakumeen, bakearen eta segurtasunaren arloan instituzioetan eta gizartean eragiteko ekintzak indartzeko duen gaitasunaren pertzepzioa, baita beste herrialde horietan lankide diren emakumeen eta feministen erakundeak indartzeko duen gaitasunaren pertzepzioa ere.

Faktore horiei dagokienez, erakunde gehienak, % 57, bat datoz Ebazpenaren bake eta segurtasun ikuspegiarekin. Gainera, % 61ren ustez, Ebazpena bat dator beren lehentasunezko gaiekin, eta % 45ren ustez genero-harremanak eraldatzeko izaera du.

Aitzitik, euskal GGKE gehienak ez daude ziur 1325 Ebazpenak beren jarduerak indartzen dituen emakumeen, bakearen eta segurtasunaren arloan eta zalantza-maila oso altua dago horri dagokionez, % 56; soilik erakundeen % 28k uste dute Ebazpenak arlo horretan duten eragin instituzionala indartzen duela. Euskal GGKEek ziurtasun handiagoa dute 1325 Ebazpenak gizarte zibilean eragiteko gaitasuna indartzeko duen erabilgarritasunari dagokionez. Erakundeen % 33k horretarako erabilgarria dela uste dute. Hemen, interpretatzen dugu Hegoalde Globaleko herrialdeetako gizarte zibilaz ari garela, batez ere, galdetegian ikusi bezala, bakarrik erakunde batek erabili duelako 1325 Ebazpena Euskadin eta Espainiako Estatuan egindako Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza proiektuetan.

#### 4. Lankide diren emakumeen eta feministen erakundeentzat duen erabilgarritasunaren pertzepzioa

1325 Ebazpenak Hegoalde Globaleko herrialdeetako emakumeen eta feministen erakundeentzat duen erabilgarritasunari dagokionez, tresna hau hobeto baloratzen da, datuen arabera. Emakumeen eta feministen erakundeekin lan egiten duten GGKEen % 63k uste dute 1325 Ebazpena erabilgarria (% 47) edo oso erabilgarria (% 18) dela horientzat. Herrialde horietako lankideentzat erabilgarritasunik ikusten ez dioten erakundeak, aldiz, % 35 dira. Horri dagokionez, eta adibide gisa, GGKEetako batek dio, bere proiektuetan Ebazpena aipatzen ez duen arren, herrialde horietako lankideek bai ikusten dutela erabilgarri, eta horientzat politikan eragiteko tresna izan dela tokiko mailan. Beste erakunde baten esanetan: “jarduketa-testuinguru zehatzetan, 1325 Ebazpena politikan eragiteko tresna ona izan daiteke, aipagarria den izaera internazionala duelako”.



Datu horiek kontuan hartuta, deigarria da GGKEen erdiak (% 50) ez duela argi erakunde lankideek Ebazpena lankidetzaren proiektuetako tresna gisa erabiltzea eskatzen dieten ala ez; % 33k dio ez dutela eskari hori identifikatzen, eta % 17k baietz, eskatzen dietela. Gainera, euskal erakundeek ez dute argi 1325 Ebazpenak emakumeen eta feministen erakunde horiek indartzen dituen; izan ere, % 61k zalantzak ditu zentzu horretan. Iritzia dutenen artean, gehiago dira Ebazpenak erakunde horiek indartzen dituela uste dutenak (% 24), indartzen ez dituela uste dutenak baino (% 6).

Emakumeen eta feministen erakundeekin lan egiten duten inkestatutako erakundeen artean, 1325 Ebazpena ezagutzen dutenek uste dute Ebazpenak Kolonbian duela erabilgarritasun handiena, batez

ere 2016an gobernuaren eta FARC-EPren artean lortutako Bake Akordioan eta gaur egungo bake-prozesuan izan duen garrantziagatik. Euskal GGKEen ustez, Ebazpenaren erabilgarritasuna ondo baloratzen duten beste erakunde lankide batzuk daude Palestinan, Guatemalan eta Mendebaldeko Saharan (herrialde bakoitza bitan aipatu dute) eta, neurri txikiago batean, Senegalen eta El Salvadorren (hauek behin aipatu dituzte).

Emakumeen eta feministen erakundeek Ebazpena zein herrialdetan baloratzen duten okerren galdetzean, GGKEetako bik Palestina eta Kolonbia aipatzen dituzte, hurrenez hurren. Hirugarren erakunde batek Kolonbiako erakunde lankide bat aipatzen du; izan ere, harentzat “Ebazpena garrantzitsua da baina ez du nahikoa indarra eraldatzailea izateko. Kolonbiako gobernuak txostenak egin baditu ere, eta emakumeen erakundeek itzal-txostenak, Ebazpenak ez du eragin loteslea”.

## 5. Emakumeen, Bakearen eta Segurtasunaren agendako beste erreferentzia tresna batzuk

Inkestatutako GGKEen % 63rentzat, 1325 Ebazpena Emakumeen, Bakearen eta Segurtasunaren nazioarteko agendari lotutako erreferente bakarra da. Nolanahi ere, ikusi dugun bezala, horrek ez du esan nahi erakunde guztiek Ebazpena beren jardueretan kontuan hartzen dutenik; izan ere, % 11k soilik adierazten dute beren tresna nagusia dela genero, bake eta segurtasun arloan.

Horrekin lotuta, inkestatutako euskal GGKEen % 78k adierazten dute 1325 Ebazpena nazioarteko lankidetza lanean ezagutzea eta erabiltzea sustatu beharko litzatekeela, honako helburu hauekin: “sektoreko erakundeen artean ezagutzera ematea, gai horren inguruko jarduerak hartu beharko lituzkeen nazioarteko zuzenbideko tresna bat delako” eta “haren potentzialtasuna ezagutzera ematea bake eta segurtasun arloan lan egiten duten emakumeen eta feministen erakundeen artean”.

Bestalde, 1325 Ebazpenaren ezaguera eta erabilera lankidetzan bultzatu beharrik ez dagoela uste duten erakundeak gutxienak dira (% 22) eta horiek adierazitako arrazoiak askotarikoak dira: “1325 Ebazpenaren printzipioetan aurrera egiteko eremu asko daude, eta horretarako ez da beharrezkoa Ebazpenari buruzko ezagutza handiagoa izatea, baizik eta eskumenak garatzea eta eskubideak baliatzeko testuinguru-baldintzak sortzea ahalbidetuko duten jarduera eta prozesu antolatu eta luzeak garatzea. Adierazpen-esparrua ezagutzea interesgarria da, baina ez da nahikoa eskubideak baliatzeko”. Beste erakunde baten esanetan: “Duela urte batzuk, 1325 Ebazpenari buruzko eragin politikoko lana egin genuen, Espainiako Estatuko erakunde aliatuekin batera. Harrezkero, ez dugu jarraipenik egin, eta ez dugu Ebazpenarekin lanean jarraitu, ez dugulako gaitasunik eta erakunde laguntzaileek ez digutelako eskatu. Espainiako Estatuko erakunde aliatuek ere ez digute berriro eskatu horretan jarraitzeko”.

1325 Ebazpenaz gain beste erreferente batzuk dituztela dioten erakundeen artean (% 39), Emakumeen Kontrako Diskriminazio Era Guztiak Ezabatzeko Konbentzioa (CEDAW) da gehien aipatzen den tresna. Honako hauek aipatutako beste batzuk dira: Pekineko Emakumeen IV. Mundu Konferentziaren Adierazpena eta Ekintza Plataforma (1995), 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorreko Helburuak, batez ere GIH 5 helburua Genero-berdintasunari buruzkoa; eta haurrak babesteko neurriak –zehaztu gabe– ekintza humanitarioen esparru gisa.

Eskualde mailan aipatzen den tresna bakarra Emakumeen Kontrako Indarkeria Prebenitzeko, Zigortzeko eta Ezabatzeko Amerikarteko Konbentzioa da, Belém do Pará Konbentzioa izenez ezagutzen dena (1994). Emakumeei, bakeari eta segurtasunari buruzko nazioarteko lankidetzaren proiektuen erreferentzia diren lege nazionalak dagokienez, erakundeek honako bi aipatzen dituzte: Emakumeek Indarkeriarik Gabeko Bizitza izan dezaten lortzeko Lege Integral Berezia eta Berdintasunari, Ekitateari eta Emakumeen kontrako Diskriminazioa Ezabatzeari buruzko Legea, biak El Salvadorrekoak.

## 6. Ondorioak

Sarreran aipatu den bezala, ikerketa honek 1325 Ebazpenak euskal GGKEen lankidetzaren lanean duen presentzia eta garrantzia aztertzen du. Hala, 19 GGKEz osatutako lagina hartuta, ondorioak ezin dira sektoreko erakunde guztietara orokortu, baina horren zati baten errealitatera hurbiltzen gaitu.

Lehenik, 1325 Ebazpenaren onarpenetik eta Emakumeen, Bakearen eta Segurtasunaren nazioarteko agendaren garapen nagusitik 20 urte baino gehiago igaro direnean, ikusten dugu Ebazpenaren ezaguera eta erabilera espero genezakeena baino askoz txikiagoa dela inkestatutako GGKEen artean: % 69k ez dute hura ezagutzen edo gutxi ezagutzen dute, eta % 74k oso gutxitan erabiltzen du edo ez du inoiz erabiltzen inplementatzen dituzten proiektuetan. Hori are deigarriagoa da kontuan hartzen badugu lankidetzaren euskal politikak, Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Planaren bitartez, esplizituki aipatzen duela Ebazpena, emakumeek gatazken eraldaketan eta bakearen eraikuntzan parte har dezaten bultzatzeko nazioarteko tresna gisa.

Hura ezagutzen eta aintzat hartzen duten GGKEen artean, haren erabilera hedatuago dago nazioarteko lankidetzako proiektuetan Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza proiektuetan baino (azken horretan kasu bakar bat dago). Esan dezakegu, hortaz, lan asko dagoela egiteko 1325 Ebazpena eta Emakumeen, Bakearen eta Segurtasun agendaren proposamenak gure inguruan zabaltzeari eta ezagutzera emateari dagokionez, eremu horretan informatua, kontzientea eta kritikoa den euskal herritartasuna lortu nahi badugu. 1325 Ebazpenaren inguruan GGKEek beren proiektuetan inplementatu dituzten jardueren dagokienez, horiek emakumeen partaidetza sustatzera eta emakumeak indarkeriaren aurrean babestera bideratu dira; prebentzio eta erreparazio ekintzak, ordea, urriagoak izan dira.

Bigarrenik, ikerketaren beste ardatz bat izan da euskal GGKEek 1325 Ebazpenaren erabilgarritasunari buruz duten pertzepzioa aztertzea. Horren inguruan emaitza kontrajarriak ditugu: erakundeen % 50k ez dute oso edo batere erabilgarri ikusten eta % 50k dezente edo oso erabilgarri ikusten dute.

Gai horretan sakontzean, pertzepzio horren erabakigarri diren faktoreak aztertuz, honako hau ikusten dugu: GGKE gehienek 1325 Ebazpenaren bake eta segurtasun ikuspegiak partekatzen dituzte, Ebazpenaren edukia beren lehentasunezko gaiekin bat datozeela baloratzen dute eta genero-harremanak eraldatzeko gaitasuna dutela uste dute. Haren erabilgarritasunaren inguruko zalantzak, beraz, beste faktore batzuetan oinarritzen omen dira, adibidez, erakundeek instituzioetan eta gizartearen eragiteko egiten dituzten jarduerak indartzeko tresna gisa ematen dioten ahalmena. Kasu honetan, GGKEen balorazioek arau-esparruen eta erakundeen eguneroko lan-dinamiken artean dagoen aldea adierazten dute.

Normalean, diskurtso normatiboaren eta benetako inplementazioaren artean dagoen arrakala gobernuen borondate politikoaren eta arauak betearazteko ematen dituzten baliabideen araberakoa izaten da, baita hauen izaera loteslea den ala ez. 1325 Ebazpena nazioarteko erreferentzia ez loteslea da, baina adostasun maila handia lortu duenez, gaur egun, NBEko kide diren herrialde gehienek hura aplikatzeko Ekintza Plan Nazional bat dute. Euskadin ez dago 1325 Ebazpena aplikatzeko Ekintza Plan Nazionalik eta agian horrek eragin du Ebazpenak GGKEen tresna izateko ahalmen txikia izatea. Horri gehitu behar zaio, ikusi dugun bezala, GGKEek oso gutxi ezagutzen dutela Ebazpena eta, hortaz, gure testuinguruan zailtasunak daudela arau hori politikan eragiteko ekintza bilakatzeko.

Hirugarrenik, aipatu beharra dago alde handia dagoela euskal GGKEek Ebazpenaren inguruan erakutsi duten ezaguera eta erabilera maila baxuaren eta Hegoalde Globaleko emakumeen eta feministen erakunde lankideek arau horren inguruan duten interesaren eta erabilgarritasun pertzepzioaren artean. GGKEen % 63k baieztatzen dute 1325 Ebazpena erabilgarria edo oso erabilgarria dela haien lankide diren erakundeentzat, batez ere arlo horretan eragiteko gaitasuna indartzeko; % 35k, ordea, erabilgarritasun gutxi ikusten dio erakunde horientzat.

Kontu horri arreta eskaini behar diogu, batez ere, kontuan hartuta gatazkako, gatazka osteko edo tentsioko testuinguru batzuetan 1325 Ebazpena emakumeen eta feministen erakundeek duten tresna bakarretariko bat dela. Izan ere, Ebazpena tresna gisa erabiltzen dute haien aldarrikapenak legitimatzeko, emakumeek bake-prozesuetan duten parte hartzea sustatzeko, eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko, haren aurrean babesteko eta erreparatzeko neurrietarako fondoak lortzeko. Azken batean, GGKEk haien lankide diren emakumeen eta feministen erakundeen lanean positibotzat hartzen diren tresna horiek hobeto ezagutzea eta baliatzea espero genezake.

Laugarrenik, 1325 Ebazpenaz gain, badakigu nazioarteko beste tresna batzuek ere emakumeen parte hartzeko eskubidea bermatzen dutela eta indarkeria prebenitzeko, horren aurrean babesteko eta erreparatzeko neurriak sustatzen dituztela. Izaera loteslea duten tresna horien artean, inkestatutako GGKEek hobekien ezagutzen dituzte CEDAW eta, eskualde mailan, Belém do Pará Konbentzioa.

Kasu honetan, hutsuneak edo ezagutza eza Afrikako, Asiako edo Europako eskualde mailako antzeko tresnei edo estatu mailako legeei dagozkie, nahiz eta horiek emakumeen eta feministen mugimenduaren borroka historiko eta luzeen emaitza izaten diren normalean. Ikerketa honetan, bada, estatu mailako bi lege bakarrik aipatzen ditugu, El Salvadorrekoak biak. Beraz, beharrezkotzat jotzen dugu GGKEek, 1325 Ebazpenaz gain, nazioarteko, eskualde mailako eta estatu mailako trena juridikoen ezagutza hobetzea, batez ere lankide diren emakumeen eta feministen erakundeek genero, bake eta segurtasun agenda bat sustatzen duten leku horietan.

Azkenik, eta proposatzeko asmoz, inkestatutako zenbait GGKEk 1325 Ebazpenaren ezaguera eta erabilera euskal lankidetzan bultzatzeko neurriak hartu beharra dagoela uste dute. Horiek lehentasunezko estrategiak dira eta hiru taldetan laburbiltzen eta antolatzen ditugu:

- Trebakuntza bere edukiaren eta aplikazioaren azterketa kritikoak egiteko, batez ere emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta erreparatzeko eta emakumeek bake eta segurtasun gaietan parte har dezaten bermatzeko duen gaitasunari dagokionez.

- Ebazpena zabaltzea eta ezagutzera ematea, nazio mailako eta nazioarteko politikan eragiteko tresna gisa.
- Emakumeek bakea eraikitzeko bultzatzen dituzten ekimenak ezagutzea eta bistaratzea eta haien parte-hartzea benetakoa eta erabaki maila guztietan dela bermatzeko mekanismoak aplikatzea.



### III. 1325 Ebazpena Kongoko Errepublika Demokratikoan. Ekintza Plan Nazionalak eta emakumeen erakundeen balorazioa

---

iker zirion landaluzel<sup>1</sup>

#### 1. Sarrera

Lan honek Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren Emakumei, Bakeari eta Segurtasunari buruzko 1325 Ebazpenak Kongoko Errepublika Demokratikoan (RDC) izan duen inplementazioa aztertzen du bi hurbilketa desberdinetatik. Lehenik, 1325 Ebazpenaren inguruan gobernuak onartutako Ekintza Plan Nazional (EPN) biak xehe-xehe aztertuz (lehenengoa 2010ekoa eta bigarrena 2018koa); eta, bigarrenik, Kongoko emakumeen zortzi erakundeek Ebazpenaren, haren inplementazioaren eta horretan nazioarteko lankidetzak duen eginkizunaren inguruan egiten dituzten balorazioak aztertuz –inkesta bitartez jaso direnak–.

RDCK ia hiru hamarkada daramatza etengabeko gatazka armatuekin. Eskualdeko gerrari amaiera eman zion 2003ko Bake Akordio Global eta Inklusibotik abiatuta, nazioarteko erkidegoak Kongoko errealitatea “gatazka osteko testuinguru” gisa definitu zuen. Alabaina, hainbat elementuk iradokitzen dute gatazka armatuak ez direla gainditu, hala nola ondoren sinatu diren bake akordioek; oraindik dozenaka talde armatu aktibo egoteak; etengabeko segurtasun ezak; eta indarkeriak oraindik sortzen dituen biktimek. Azken urteetan, egoera bereziki larria da herrialdearen ekialdean, Uganda, Ruanda eta Burundiko mugetatik gertu, Ituri, Maniema, Tanganika, Ipar Kivu eta Hego Kivu probintzietan.

---

1 Nazioarteko Ikasketetan doktorea eta UPV/EHUko Nazioarteko Zuzenbide Publikoko irakaslea. UPV/EHUko Hegoa-Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutuko eta euskal unibertsitate sistemako (IT434-22) Giza Segurtasunari, Tokiko Giza Garapenari eta Nazioarteko Lankidetzari buruzko Ikerketa Taldeko (2022-2025) ikertzailea. Honako hauek dira bere ikerketa-gai nagusiak: bakearen eraikuntza eta generoa; borrokalari ohien desarmatzea, desmobilizazioa eta birgizarteratzea; justizia feminista; eta maskulinitate berriak.

Gainera, Ituriko eta Ipar Kivuko probintziak setio-egoeran sartu ziren 2021eko maiatzean, gobernuak hala erabakita, bertako gatazka armatuekin eta indarkeriarekin amaitzeko<sup>2</sup>.

Testuinguru horrek, bada, are zailagoa egiten du 1325 Ebazpenaren implementazioa eta, hasieratik, hura geldoa eta konplikatu izan da berez. Hala, ikerketa honen helburua da, hain zuzen ere, nazioarteko lankidetzak implementazio hori laguntzeko izan dezaken eginkizunari buruzko ideiak eta gomendioak ematea. Horretarako, eta ikuspegi metodologikoari dagokionez, testuan, dokumentazioa aztertzeaz gain, Ebazpena egunero sustatzen duten tokiko emakumeen erakundeen ahotsak ere jasotzen dira. Izan ere, erakunde horiek ebazpenaren potentzialtasunak eta ahultasunak ezagutzen dituzte eta hobetzeko proposamenak egin ditzakete. Haien balorazioak *online* inkestean bitartez jaso dira, 2021eko irailetik azarora bitartean. Honako hauek dira parte hartu duten erakundeak: *Synergie des Femmes pour les Victimes des Violences Sexuelles* (SFVS); *Dynamique des Femmes pour la Bonne Gouvernance* (DYFEGOU); *Action de Protection Mère et Enfants* (APMEasbl); *Coalition des Femmes pour la Paix et le Développement* (CFPD); *Commission Nationale des Femmes Entrepeneures* (CNFE); *International Center for Peace and Environment Protection* (ICPEP); *Groupe d'Associations de Défense des Droits de l'Homme et de la Paix* (GADHOP); eta *Ligue pour la Solidarité Congolaise* (LSC)<sup>3</sup>.

Parte hartu duten erakundeen kopurua kontuan hartuta ezin dira emaitzak herrialdeko emakumeen erakunde guztietara orokortu, baina lagin horren balorazioak ezagutzera ematea funtsezkoa iruditzen zait. Izan ere, haien iritziak oso ekarpen baliotsua dira orain arteko prozesuaz ikasteko eta 1325 Ebazpenak RDCn duen implementazioa hobetzeko, horrek Kongoko emakumeen bizi-kalitatea hobe dezan.

Testu honen egiturari dagokionez, sarrera honen ostean, bigarren atalean, RDCk izan dituen Ekintza Plan Nazional bien ezaugarriak eta eduki orokorra aztertuko ditut. Hirugarrenean, aztertuko dut indarrean dagoen Planak nola jasotzen dituen 1325 Ebazpenean identifikatutako lau jarduketa-ardatzak: emakumeek erabakietan parte hartzea; emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea; emakumeen eskubideak babestea; eta biktimei erreparazioa ematea. Laugarren atalean, RDCko emakumeen erakundeek Ebazpenaren, haren aplikazioaren eta nazioarteko lankidetzari ematen dioten eginkizunari buruz dituzten iritziak aztertuko ditut. Eta, azkenik, bosgarren atalean, testuaren ideia nagusiak laburbilduko ditut eta Kongoko agintariei eta nazioarteko lankidetzari zuzendutako gomendioak egingo ditut, herrialdean 1325 Ebazpena hobeto implementatzeko.

---

2 Horrek esan nahi du erregimen berezi bat dagoela, non agintari zibilen ordez agintari miliarrak dauden. Setio-egoera Félix Tshisekedi Errepublikako Presidenteak dekretatu zuen 2021eko maiatzaren 6an, eta harrez geroztik parlamentuak 15 egunean behin berritu egin du. Egoera horretan, bada, armada da –eta ez polizia– herritarren segurtasuna bermatzeko ardura duena; askatasun publikoak murriz daitezke (biltzeko eskubidea, pertsonen zirkulazioa, bizilekuaren bortxaezintasuna); eta auzitegi militarren eskumena zabaltzen da eta zibilek egindako delituak ezagut ditzakete.

3 Erakunde horiei ikerketan parte hartu izana eskertu nahi diet. Gainera, ikerketa ez zen posible izango Justine Masikaren laguntzarik gabe. Masika Ipar Kivuko Goma hirian kokatutako *Synergie de Femmes pour les Victimes des Violences Sexuelles* izeneko GKEen koalizioako presidentea da. Berezi eskertu nahi diot bere laguntza.

## 2. Bi Ekintza Plan Nazional, inplementazio ahula

RDCko gobernuak 1325 Ebazpenari buruzko bi Ekintza Plan Nazional (EPN) onartu ditu. Lehenengoa 2010ean onartu zuen eta ez zuen denbora-esparru zehatzik. Haren ordez 2019-2022 Ekintza Plan Nazionala onartu zuen 2018an (bigarren belaunaldiko EPN gisa ezagutzen da). Dokumentu biak gobernuak bere kabuz onartu zituen<sup>4</sup>, alde zuzenetik parlamentuan eztabaidatu gabe. Horrek, bada, horien legitimitate demokratikoa mugatu zuen, baita Planak inplementatzeko konpromiso orokorra ere; izan ere, gobernuaren ekimenez hartzen dira estatu politikatzat baino gehiago. Gainera, onartzeko modu horrek errazten zuen gobernuak Planak nahierara aldatzea edo baztertzea, are gehiago kontuan hartuta horiek ez dituztela –RDCren kasuan– jarraipen eta ebaluazio mekanismo argiak eta zehatzak.

2010eko EPNa egiteko prozesuan ehunka eragilek hartu zuten parte, besteak beste –neurri txiki batean bada ere– gizarte zibilak<sup>5</sup>. Prozesuak, gainera, genero arloko aholkularitza baten gainbegirada izan zuen (RDCko Gobernuak, 2010). Hasieran, Planak 60 milioi dolar inguruko aurrekontua izan zuen, esku hartzeko hamar ardatzera zuzenduta<sup>6</sup>. Ardatz horiei “osagai tematiko” (*composantes thematiques*) izena eman zitzaion eta bakoitzak bere helburuak, estrategiak, jarduerak, emaitzak, egiaztapen-iturriak eta aurrekontua zituen. Baina ez ziren horiek betearazteaz arduratuko ziren instituzioak eta/edo pertsonak identifikatu eta horrek, jakina, haien inplementazioan eragin zuen.

Jarraipena eta ebaluazioa egiteko Gidaritza Batzorde (*Comités de Pilotage*) Nazionalak, Probintzialak eta Tokikoak sortu zituzten, honako hauen ordezkaritza zutenak: bertako administrazioak, parlamentu nazionala eta probintziala -Batzorde Nazional eta Probintzialen kasuan-, gizarte zibila; agintari erlijioso eta tradizionalak; eta garapen eremuko lankideak. Hala ere, EPNaren aurreikuspenak Gidaritza Batzorde hiru horien inguruan oso urriak izan ziren, batez ere horien eginkizunei eta ardurei zegokienez<sup>7</sup>.

Lehenengo EPN hau herrialdearen deszentralizazio politikarekin lotu zen -2008an onartutako Deszentralizazioko Lege Organikoan oinarrituta-. Horren bitartez, botere administratibo eta finantzarioak, pixkanaka, Gobernu zentraletik Probintzietara eta Lurralde Erakunde Deszentralizatuetara eramango ziren, hau da, hirietara, komunitetara, sektoreetara eta buruzagizetara (zirion, 2018). Zentzu berean ulertu behar da Eskualdeko eta Tokiko Garapen Planak ezartzeko apustua; izan ere, plan horiek 1325 Ebazpenaren inplementaziora lotzen saiatu ziren. Bijou Mushitu

4 Koordinazioa Genero, Familia eta Haurtzararen Ministerioari zegokion, baina hori egiteko eta aplikatzeko ardura beste ministerio batzuen izan zen: Plangintza; Aurrekontua; Finantza; Gizarte Gaiak; Kanpo Gaiak eta Nazioarteko Lankidetzak; Osasun Publikoa; Hezkuntza; Eskualdeko Lankidetzak; Barne eta Defentsa; eta Justizia eta Giza Eskubideak (RDCko Gobernuak, 2010).

5 Gizarte zibila hiru egitura hauen bitartez ordezkatu zuten: *Cadre Permanent de Concertation de la Femme Congolaise* (CAFCCO), *Centre Juridique Résolution 1325* (CJR1325) eta *Réseau des Femmes Anciens Ministres et Parlamentaires* (REFAMP).

6 Esku hartzeko hamar ardatzak honako hauek ziren: bakea; segurtasuna; GIB/HIES; generoaren arabera sexu-indarkeriak; emakumeen eskubideak sustatzea eta babestea; parte-hartze politikoa; Zuzenbide Estatu finkatzea; eskualdeko eta nazioarteko lankidetzak; bake eta segurtasun arloko ikerketa eta ikasketak; eta inplementazioaren jarraipena eta ebaluazioa.

7 Hauek hiru urte geroago zehaztu ziren, 2013ko ekainaren 5eko 008/CAB/MIN.GEFAE/GIBI/13 Ministerio Aginduaren bitartez, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren Emakumei, Bakeari eta Segurtasunari buruzko 1325 Ebazpenaren Gidaritza Batzorde Nazional, Probintzial eta Tokikoen sorkuntza, antolakuntza eta funtzionamenduari buruzkoa.

Kat Generoko, Familia eta Haurtzaroko Ministroak 2015ean azaldu zuen bezala, helburua zen Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1325 eta 1820 Ebazpenak “gure eguneroko bizitza zehatzean, bizi garen lekuan” gauzatzea eta, horretarako, emakumeek tokiko eremuko erabakietan parte hartzeak eztabaiden eta diskurtsoaren muinean egon beharko luke (RDCko Gobernuak, 2015).

2010eko EPNa ez zen behar bezala praktikan jarri indarrean egon zen urteetan (2010-2018). Bigarren belaunaldiko EPNak honako arrazoi hauek identifikatu zituen, besteak beste: gizarteak ez zuela Plana ezagutzen; hura onartu zuen eta aplikatu behar zuen gobernuak ez zela Planaz behar bezala jabetu; aurrerapen gutxi izan zirela aurreikusitako emaitzei dagokienez<sup>8</sup>; eta EPNaren kideek babes gutxi eman ziotela. Porrotaren beste arrazoi batzuk izan ziren ez zela bete esleitutako aurrekontua (emandako dirua hasieran ezarritakoa baino gutxiago izan zen) eta Gidaritza Batzordeak berandu sortu zirela eta protagonismo gutxi izan zutela, batez ere nazio eta probintzia mailan (RDCko Gobernuak, 2018: 17).

Sanam Naragui Anderliniren ustez (2011: 32-35), EPNa egitea bezain garrantzitsua da hura tokian zabaltzea eta inplementatzea, izan ere emakumeek tokiko mailan pairatzen dituzte gatazka armatuen ondorio zuzen gehienak. Gainera, tokiko mailan, hain zuzen ere, emakumeek Ebazpenarengandik eta haren planteamenduetatik urrun senti daitezke (Wright, 2015). Gobernuak deszentralizazioan jarritako ahaleginak eta lehenengo EPNak Tokiko Gidaritza Batzordeak sortu izanak ahalbidetu zuten administrazio publikoek Batzordeetan egin beharreko lan horretan utzitako hutsunea tokiko gizarte zibilak betetzea. Halaber, Justine Masikak azaltzen duenez, Ipar Kivuko eta Hego Kivuko tokiko testuinguru batzuetan, tokiko ekintza planak emakumeen erakundeek ekimenari esker egin eta garatu ziren -oro har, parte hartzeko tailer inklusiboen bitartez-. Erakunde horien lan egiteko borondatea oso handia izan zen –Masikaren hitzetan oraindik– eta tokiko agintarien interesa gai horretara erakartzea erronka nagusia izan zen, batez ere ohiturazko agintariena (*chefs coutumiers*), horiek eragin handia baitute biztanle zibilengan, batez ere landa eremuetan<sup>9</sup>.

Nazio Batuek gomendatzen dute Ekintza Plan Nazionalak lau urterik behin berritzea. Hala ere, RDCn lehenengo EPNa horren bikoitza egon zen indarrean. Luzapen horren arrazoiaren artean dugu, Chantal Safou Lopusaren arabera, edukia exijentzia desberdin hauetara moldatu beharra: Segurtasun Kontseiluaren ondorengo ebazpenak<sup>10</sup>; nazioarteko eta eskualdeko tresna juridikoak arlo horretan<sup>11</sup>; RDCko lege nazionalak; herrialdeko testuinguru politiko, ekonomiko eta soziala; edo deszentralizazio prozesua (RDCko Gobernuak, 2018).

Bigarren belaunaldiko EPNa onartu zenean, aurreko planak izan zituen zailtasunetako askok jarraitzen zuten, batez ere arlo politikoan, teknikoan eta finantzarioan. Hala ere, zenbait aurrerapauso daude agiri berri honetan, besteak beste (ibid.: 28-35):

---

8 Emaitza urri horien artean, bigarren belaunaldiko EPNak hiru aipatzen ditu: emakumeek negoziazio mahaietan eta erabakitzeko eremuetan duten parte-hartze urria; sexu indarkeriaren eta emakumeen giza eskubideen beste urraketa batzuen iraunkortasuna; eta emakumeek Armadako, Poliziako eta beste segurtasun zerbitzu batzuetako instantziatan duten presentzia oso baxua (RDCko Gobernuak, 2018).

9 Elkarrizketa pertsonala (zirion, 2018: 258).

10 Besteak beste, 2015eko 2250 Ebazpena, Gazteei, Bakeari eta Segurtasunari buruzko.

11 Besteak beste, Nazio Batuen Garapen Iraunkorreko Helburuak; Afrikar Batasunaren esparru kontinentalaren EBS agendari buruzko gidalerroak; Afrikar Batasunaren 2063 Agenda hazkunde inklusibo eta garapen iraunkorrerako; Estatu ahulentzako *New Deal* delakoa, 2011n Busanen (Hego Korea) onartua.

- Jarraipen eta ebaluazio tresnak indartu ziren, hiru elementu hauetan oinarritutako koordinazio-mekanismo nazionalaren bitartez: 1) zeuden Gidaritza Batzorde Nazional, Probintzial eta Tokikoak, EPNaren orientazio politikoaz eta egiaztapenez arduratzen zirenak; 2) 1325 Ebazpenaren Idazkaritza Nazional, Probintzial eta Tokikoak, EPNaren inplementazioaren ohiko kudeaketako organoak zirenak; eta 3) *Trust Fund* 1325 delakoa, 1325 Ebazpena inplementatzeko finantzamendua bilatzeaz arduratzen zena<sup>12</sup>.
- Azterketa intersektzionala sartu zen, lehenengo EPNan ez zegoena eta, oso neurri txikian, ondorengo agiri ofizialetan bakarrik agertu zena. Hau da, bigarren EPNak onartzen du emakume kongoar guztiek jasaten duten genero-desparekotasuna beste aldagai batzuen eraginez larriagotu daitekeela (etnia, adina, landa edo hiri eremua, erlijioa, adskripzio politikoa, eta abar). Zentzu horretan, bigarren belaunaldiko EPNak berariaz aipatzen ditu “emakume kalteberen” (horien artean hartzen ditu emakume indigenak edo desgaitasunen bat duten horiek) eta landa eremuko emakumeen kezka espezifikoa. Halaber, hainbat aldiz aipatzen ditu “neskak, nerabeak eta emakume gazteak”. Horrek erakusten du bigarren belaunaldiko EPN honek 2015eko Gazteei, Bakeari eta Segurtasunari buruzko 2250 Ebazpenaren premisak hartu nahi dituela.
- Lehenengo EPNan aurreikusitako hamar osagai tematikoen ordez, EBS agendan lehentasuna duten esku hartzeko lau ardatzak sartu ziren, hau da, parte-hartzea, prebentzioa, babesa eta errehabilitazioa. Ardatz horiek hamaika helburu espezifikoaren bitartez garatzen dira eta, zenbait kasutan, aurreko EPNan baino modu zehatzagoan lantzen dira. Halaber, helburu espezifiko bakoitzak emaitzak, adierazleak, jarduerak eta –hau berria da– eragile arduradunak ditu.

### 3. 1325 Ebazpenaren ardatzak bigarren belaunaldiko Ekintza Plan Nazionalean

#### 3.1. Parte-hartzea

Ardatz honen helburua da erabakitzeke eremuetan, bake negoziatioetan eta bakean eta segurtasunean eragiteko mekanismo guztietan dauden emakumeen kopurua handitzea. RDCan indarrean dagoen EPNak 1. eta 2. helburu espezifikoak sartzen ditu ardatz honetan:

- 1) Gatazkak prebenitzeko, kudeatzeko eta konpontzeko tokiko, probintzia mailako, nazio mailako, eskualde mailako eta nazioarteko mekanismoetan eta herrialdeko segurtasun zerbitzuetan emakumeen eta emakume gazteen parte-hartze tasa % 20 handitzen laguntzea.
- 2) Herrialdeko erakunde soziopolitiko, ekonomiko, publiko eta pribatuetako erabakiak hartzeko organoetan emakumeen eta emakume gazteen parte-hartze tasa % 20 handitzen laguntzea.

Aipatu dudana bezala, emakumeek negoziatio mahaietan, erabakiak hartzeko eremuetan eta Armadako, Poliziako eta beste segurtasun zerbitzu batzuetako karguetan duten parte-hartze txikia izan zen lehenengo EPNan identifikatutako ahultasun bat. Bake negoziatioen kasuan, bigarren EPNak erakunde arduradunetan eragiteko jarduerak aurreikusten ditu, emakumeen ordezkari

---

12 *Trust Fund* 1325 delakoa Idazkaritza Nazionalak kudeatzen du NBE Emakumeak erakundearen gainbegiradarekin.

buruzko konpromisoak lortzeko. Erabaki soziopolitikoak eta ekonomikoak hartzeko eremuiei dagokienez, indarrean dagoen planak adierazten du ordezkari hori handitu beharko dela “kopuruari eta kalitateari dagokienez”, mandatu hautetsietan zein nominatiboetan. Hala ere, emakumeen parte-hartzeko ehuneko zehatzak (% 20) indarra galtzen du, kasu bietan adierazten delako “% 20 handitzen laguntzea” eta ez, zuzenean, “% 20 handitzea”. Izan ere, horrela adierazita ematen du helburu espezifiko horiek edozein igoerarekin beteko direla (hori txikia izanda ere) eta ez % 20 lortuz. Hori, beraz, Planaren ahultasun bat da.

Halaber, helburu horiek erakusten dute emakumeen erakundeek eta, gero eta gehiago, gobernuek ere (nazionala eta probintzialak) garrantzi handia ematen diotela emakumeek kontu komunentzako kudeaketan eta erabakitzeko eremu publikoetan parte hartzeari. Zentzu horretan, gobernuek onartzen du erakunde politikoaren demokratizazioa, susperraldi ekonomikoko eta bakea finkatzeko prozesuek emakumeen egoera indartzeko helburua izan behar dutela, eta gatazka armatuaren aurreko genero-desparekotasuneko *statu quo* horretara itzultzea ekidin behar dutela.

### 3.2. Prebentzioa

Bigarren EPNan, ardatz honen helburua da gatazka armatuetan emakumeen, emakume gazteen eta nesken eskubideen urraketak prebenitzea, 3., 4., 5., 6. eta 7. helburu espezifikoetan oinarrituta:

- 3) Emakumeek gobernantza politiko eta publikoan parte har dezaten sustatzeko eta gizarte eskubideak eta, bereziki, emakumeen eskubideak babesteko tresna juridikoen edukia herritarrei ezagutzera ematea<sup>13</sup>, baita bigarren belaunaldiko EPNa bera ere. Helburu honek identifikatutako beste ahultasun bati erantzuten dio: agiri horiek ez direla ia ezagutzen herritarren artean<sup>14</sup>.
- 4) Gatazken alerta goiztiarreko mekanismoak eta gatazkek modu baketsuan konpontzeko mekanismoak abian jartzea eta, horretarako, emakumeen giza eskubideen urraketak zaintzeko sistemak sortzea, emakumeak bitartekari gisa trebatzea eta gatazkek konpontzeko prozesuetan sartzea.
- 5) Talde armatuetan haurren derrigorrezko errekrutatze tasa murriztea, batez ere herrialdeko ekialdean, eta gatazken ondorioz desgaitasunen bat duten pertsonen laguntzea, batez ere gazteei.
- 6) Segurtasun zerbitzuen (Armada, Polizia eta Epaileak) erabakitzeko eremuetan emakumeen parte-hartzea handitzen laguntzea, “emakumeen eskubideen urraketak prebenitzeko segurtasun-berme” gisa<sup>15</sup>; horietan ez baitago ia emakumerik<sup>16</sup>.

---

13 Zabaldu beharreko tresna juridikoen artean, 1325 Ebazpenaz gain, Emakumeen Kontrako Diskriminazio Era Guztiak Ezabatzearen Konbentzioa (CEDAW) dugu; eta Giza eta Herri Eskubideen Afrikako Gutunean oinarrituta Afrikar Batasunak Afrikako Emakumeen Eskubideei buruz egindako Protokoloa, Maputoko protokoloa izenez ezagutzen dena.

14 Planak berariaz aipatzen ditu, alde batetik, agintari politiko, erlijioso eta ohiturazkoak eta, bestetik, desgaitasunak dituzten emakumeak, emakume indigenak eta neskek (RDCko Gobernuak, 2018: 29-30).

15 Adierazpen hau zehaztu daiteke. Dugarik gabe, ardura-postuetan emakumeen kopurua handitzeaz gain, segurtasuneko erakundeek eta erakunde judizialek egiturazko aldaketa sakonagoak behar dituzte prebentzio helburu hori betetzeko.

16 Bigarren belaunaldiko EPNak aipatzen du, 2018an, Armadako, Poliziako eta Epaileen agintaritzaren postuetan, hurrenez hurren, % 2,8, 6,7 eta 19,46 bakarrik zirela emakumeak.

- 7) Arma arinen eta kalibre txikikoen kontrola indartzea eta zirkulazioa murriztea; izan ere, horien biktime nagusiak emakumeak eta neskek izaten dira, janaria, ura, edo egurra biltzeko eguneroko lanak egiten dituztenean.

Prebentzio ardatzaren helburu espezifiko horietan ez dira aurreko Planak aipatzen zituen ehunekoak edo emaitza zehatzak agertzen. Are gehiago, helburu horietatik espero daitezkeen emaitzak oso modu orokor eta lausoan identifikatzen dira eta horrek horien jarraipena eta ebaluazioa zailtzen du<sup>17</sup>.

### 3.3. Babesa

Bigarren EPNarekin jarraituz, ardatz honen helburua gatazketan eta gatazka ostean emakumeen, emakume gazteen, haurren eta beste “pertsona kaltebera” batzuen eskubideak babesten direla bermatzea da, 8. eta 9. helburu espezifikoaren bitartez:

- 8) Emakumeen, emakume gazteen, nerabeen eta “pertsona kaltebera eta marjinalizatuen” (desgaitasunak dituztenak, indigenak, errefuxiatuak eta lekualdatuak) eskubideak errespetatzen direla bermatzea. Horretako, Planak honako hau aurreikusten du: operadore juridikoen (magistratuak, idazkariak, abokatuak) eta polizia, armada eta espetxe langileen gaitasunak eta ezagutzak indartzea; herrialde osoan auzitegiak osatzea sustatzea; gizon eta emakumeen premia espezifikoak erantzuten dieten espetxeak eta ziegak birgaitzea eta eraikitzea; herrialde osoan Gertuko Polizia ezartzea; trantsizioko justizia mekanismoak inplementatzea; eta, azkenik, emakumeak haien eskubideei buruz sentsibilizatzea.
- 9) Gatazkako eta gatazka osteko sexu-indarkeriaren eta emakumeen, emakume gazteen, nerabeen eta nesken eskubideen beste urraketa batzuen aurka borrokatzea. Bigarren belaunaldiko EPNak aitortzen du erronka handia dela justizia egitea eta sexu-indarkeriaren biktimei erreparazioa ematea. Hura da emakumeen eskubideen urraketa nagusietako bat eta zigorgabetasun maila altuena duena. Horri aurre egiteko, Planak egileak epaitzea eta zigortzea eta justizia auzitegiak giza baliabideez eta baliabide material egokiez hornitzea aurreikusten du<sup>18</sup>.

Helburu bi hauetan, berriz ere, espero daitezkeen emaitzak modu orokorrean adierazten dira, eta aurreikusitako jarduerak politikan eragitera eta sentsibilizaziora mugatzen dira (RDCko Gobernuak, 2018: 32-34). Halaber, sexu-indarkeriaren biktimei erreparazioa aipatzen den arren, ez da horri buruz ezer garatzen, ez ardatz honetan ez, ikusiko dugun bezala, hurrengoan (“errehabilitazioa”). Hori hutsune larria da, biktimek beren duintasun osoan errehabilitatzeko beharra baitago, eta horrek hartzen du sendakuntza fisikoa, psikosoziala eta sozioekonomikoa, indarrean dagoen EPNan jasotzen ez direnak.

---

17 Adibidez, “talde armatuetan, nesken ehunekoa murrizten da”, “Armada, Poliziako eta beste segurtasun-zerbitzu batzuetako emakumeen kopuruak gora egiten du” edo “arma arinen zirkulazioa murrizten da”.

18 Nazioko gobernuak tokiko auzitegiak herrialde osoan indartu beharra dagoela onartzen du, bereziki, gatazkan dauden eremuetan; eta, dagokionean, RDCn bertan sala mistoak sortu (nazionalak-internazionalak), biktimei nazioarteko justiziara hurbiltzeko.

### 3.4. Errehabilitazioa

Bigarren belaunaldiko EPNak aitortzen du berreraikitze arloan dauden erronkak izugarriak direla, eta tradizionalki gizonezkoen eliteari mugatu direla. Alabaina, emakumeen, emakume gazteen eta nerabeen ahalduntzea sustatzea lagungarria da epe laburrean egonkortasuna, aurrerapen sozioekonomikoa eta bake iraunkorra leheneratzeko, dio agiriak. Horretarako, azken bi helburu espezifikoak aurreikusten dira, hau da, 10.a eta 11.a, eduki honekin:

- 10) Genero dimentsioa gatazken kudeaketa eta konponketa baketsuan txertatzea, batez ere gatazka osteko garapen-programetan, gatazkaren biktima nagusiak diren eta kontuan hartzen ez dituzten pertsona horien premia espezifikoari erantzun ahal izateko. Horien artean identifikatzen ditu emakume gazte eta nerabeak, eta talde marjintuak (desgaitasunak dituzten pertsonak eta emakume indigenak).
- 11) Emakumeen, emakume gazteen eta nerabeen ahalduntze sozioekonomikoa bermatzea, hura “berdintasuna lortzeko, pobrezia ezabatze eta hazkunde ekonomiko inklusiboa izateko bide ziurrena” baita. Emakumeek ekonomiari egiten dioten ekarpena arlo guztietan ematen dela azpimarratzen du EPNak: enpresetan edo nekazaritza ustiategietan, enpresari edo langile bezala, edota etxeko lan ez ordainduaren bitartez ere. Horregatik –dio planak– beharrezkoa da emakume gazte eta nerabeen hezkuntzako eta lanbide heziketako sistemara itzultzeko aukera ematea, haien gaitasunak handitzeko, eta mailegu ekonomikoak eskuratzeko aukera ematea, merkataritzaren, nekazaritzaren edo beste jardueren bitartez haien diru-sarrerak handitzeko aukera izan dezaten.

Azken ardatz honetan, helburuen eta emaitzen zehaztasuna oso eskasa da, berriz ere, eta horrek horien jarraipena eta ebaluazio zailtzen du.

## 4. Kongoko emakumeen erakundeek 1325 Ebazpenari eta haren inplementazioari buruz duten balorazioa

Hurbilketa desberdinetik bada ere, parte hartu duten emakumeen erakunde kongoar guztiek giza eskubideak eta, bereziki, emakumeen eskubideak babesteko eta sustatzeko helburua dute. Horrek esan nahi du guztiak borrokatzen direla generoaren araberako indarkeriaren eta zigorgabetasunaren aurka, indarkeriaren biktima diren emakumeak laguntzeko eta emakumeen autonomia eta lidergoa eremu publikoan sustatzeko. Halaber, eta haien testuingurura kontuan hartuta, gehientzat bakearen eraikuntza lehentasuna da. Partekatzen dituzten jarduketaren eremu horiez gain, erakunde bakoitzean desberdinak diren beste batzuk daude, hala nola ingurumena, gobernantza eta demokrazia, antimilitarismoa, haurren eskubideak edo pobrezia aurkako borroka.

Ikerketan parte hartu duten zortzi erakundeetatik, gehienek (5) eremu geografiko nazionala dute eta, neurri txikiago batean, eskualde mailakoa (2) eta batek bakarrik du tokiko eremua (1). Ia guztiak (7) izan dute harremana nazioarteko lankidetzarekin, batez ere Europako lankidetzarekin, eta askok (6) euskal lankidetzarekin.



#### 4.1. Ezaguera eta erabilera

Parte hartu duten erakunde guztiek “dezente” (6) edo “ondo” (2) ezagutzen dute 1325 Ebazpena. Halaber, egiten dituzten proiektuetan hura “sarritan” (3) edo “beti” (5) erabiltzen dute. Izan ere, guztientzat tresna “nahiko erabilgarria” (2) edo “oso erabilgarria” (6) da haien lanerako.

Emakumeen erakundeek EBS agendaren lau ardatzetan kokatzen diren jarduerak egiten dituzte: gehienetan “emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea” (7), gero “emakumeen parte-hartzea sustatzea” (6) eta “emakumeak indarkeriaren aurrean babestea” (6), baita “indarkeria pairatu duten emakumeei errehabilitazioa eta erreparazioa eskaintzea” ere (5). Bi erakundeek “justiziarako sarbidea” eta “gizarte desparekotasunen aurkako borroka” gehitzen dituzte, hurrenez hurren.

1325 Ebazpenaren ezagueraren eta edukiaren azterketan sakontzean, erakundeek adostasun handia erakusten dute. Gehienek lanean erabili ahal izateko bezain ondo ezagutzen dute (6), Ebazpenak duen bake eta segurtasun ikuspegiarekin bat datoz (7), eta genero-harremanak eraldatzeko izaera aitortzen diote (7). Izan ere, ia guztiek (7) itxaropen positiboak dituzte haren inguruan.

Erakunde gehienentzat (6), 1325 Ebazpena genero, bake eta segurtasun arloan egiten duten lanerako tresna nagusia da. Izan ere, neurri handi batean uste dute Ebazpenak indartzen duela erakunde publikoetan eragiteko lana (6) eta gizarte zibilean eragiteko lana (6); haien lehentasunekin lotura estua duela (6) eta erakunde gisa indartzen dituela (5).

#### 4.2. Ekintza Plan Nazionalaren parte hartzea

Kongoko emakumeen erakundeek Ekintza Plan Nazional bien (edo probintzialen eta tokikoen) lanketan izandako parte-hartzeari dagokionez, gehienek hori “handia” (5) edo “oso handia” (1) izan zela diote baina, biren esanetan, hura “bat ere ez” edo “oso txikia” izan zen. Planak sortzeko jardueren artean bi nabarmentzen dituzte: zabalkundea eta eragin politikoa. Alde batetik, erakunde gehienek (6) aipatzen dute EPNa honako hauen artean zabaltzen lagundu zutela (tokiko hizkuntzetara itzuliz ere): tokiko agintariak, oinarrizko erakundeak, herritarrak, oro har, eta emakumeak, bereziki. Bestetik, askok (5) eragin politikoa azpimarratzen dute, bai EPNaren garapen organikoan (haren jarraipena egiteko Idazkaritza Probintziala edo Gidaritza Batzordeen eraketa, adibidez) bai politika publikoak nazio mailan sortzeko (1325 Ebazpena Tokiko Garapen Planetan sartzea) eta nazioartean (EPNa sortzeko esperientziak partekatzea, adibidez, Madagaskarrekin).

Ekintza Plan Nazionalen inplementazioari dagokionez, erakundeek antzeko laguntza aipatzen dute Kongoko administrazio publiko desberdinetatik, horiek nazionalak (6), eskualdekoak (5) edo tokikoak (5) izan. Hala ere, erakunde bat bereziki kritikoa da eta, bere ustez, administrazio horiek ez daude benetan inplikaturik Planen inplementazioan.

#### 4.3. Arau erreferenteak

RDCko emakumeen erakundeek genero, bake eta segurtasun arloko lanean dituzten arau erreferenteei dagokienez, guztiek onartzen dute, 1325 Ebazpenaz gain, arlo horretan beste tresna juridiko batzuk (nazioartekoak, eskualdekoak edo nazionalak) erabiltzen dituztela (ikus 1. taula).

1. taula. RDCko emakumeen erakundeek dituzten arau erreferenteak generoaren, bakearen eta segurtasunaren arloan <sup>19</sup>
<b>Tresna unibertsalak</b>
1325 Ebazpena (8) Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren beste ebazpen batzuk (6) <sup>20</sup> Emakumeen Kontrako Diskriminazio Era Guztiak Ezabatzeiko Konbentzioa (4) Pekineko Adierazpena eta Ekintza Plataforma (1)
<b>Eskualde mailako tresnak (afrikarrak)</b>
Giza eta Herri Eskubideen Afrikako Gutunean oinarrituta Afrikar Batasunak Afrikako Emakumeen Eskubideei buruz egindako Protokoloa (Maputoko Protokoloa) (2) Laku Handien eskualdeko bakearen, segurtasunaren eta lankidetzaren aldeko Esparru Akordioa (2) Generoaren araberako sexu-indarkeriei buruzko Kampalako Adierazpena (2) Giza eta Herri Eskubideen Afrikako Gutuna (1) Afrika Australeko Garapen Komunitatearen Generoari eta Garapenari buruzko Protokoloa (1)
<b>Tresna nazionalak</b>
Parekidetasunari buruzko 15/013 Legea (3) RDCko Konstituzioa (2) Generoan oinarritutako indarkerien aurka borrokatzeiko Estrategia Nazionala (1) Familia Kodea (1)

Iturria: egilea.

#### 4.4. Nazioarteko lankidetzaren eginkizuna

RDCko emakumeen erakundeek 1325 Ebazpenaren inplementazioan nazioarteko lankidetzaren lanari buruz duten balorazioari erreparatzen badiogu, guztiek uste dute horrek Ebazpena RDCn ezagutzea eta erabiltzea sustatzen lagundu behar duela. Horretarako argudio desberdinak erabiltzen dituzte baina hiru nagusitan sailkatu ditugu:

- 1) Oraindik bide luzea dago honi dagokionez: emakumeek erabakitzeko eremuetan parte hartzea, indarkeriak prebenitzea eta horien aurrean babestea eta eskubideak sustatzea. Eginkizun nagusia botere publikoei eta herrialdeko erakundeei dagokiela onartzen badute ere, nazioarteko lankidetzaren laguntza ezinbestekotzat jotzen dute.
- 2) Berdintasun formalaren eta benetako berdintasunaren arteko arrakala agerikoa da, hau da, tresna juridikoetan berdintasuna aintzat hartzearen eta emakumeen eguneroko bizitzan

<sup>19</sup> Parentesi artean tresna bakoitza aipatu duen erakundeen kopurua agertzen da.

<sup>20</sup> Horien artean, aipatuena dira sexu-indarkeriari buruzko 2008ko 1820 Ebazpena eta Gazteei, Bakeari eta Segurtasunari buruko 2015eko 2250 Ebazpena.

gauzatzearen arteko tartez ari gara. Halaber, aipatzen dute, herrialdeko Konstituzioan eta Parekotasun Legean dauden beste xedapen batzuekin gertatzen den bezala, gobernuak 1325 Ebazpena bi Ekintza Plan Nazionalen bitartez txertatu duela, baina horiei aurrekontu nahikoa esleitu gabe eta behar bezala inplementatu gabe. Nazioko botere publikoen inplikazio faltari egiten dioten kritika argia eta partekatua da: “tresnak sinatzen dituzte horien edukia ezagutu gabe”, dio erakunde batek<sup>21</sup>. Horretan, hain zuzen ere, nazioarteko lankidetzak eginkizun garrantzitsua duela uste dute, hainbat administrazio gaiaren inguruan “hausnartzera behartzen” dituelako, batez ere nazio mailan.

- 3) RDCko administrazio publikoen borondate politiko eza eta jartzen dituzten baliabide urriak bezalako zailtasunak kontuan hartuta, 1325 Ebazpenaren inplementazioa giza baliabideak eta baliabide materialak eta ekonomikoak behar dituela uste dute eta, gaur egun, nazioarteko lankidetzaren laguntzarik gabe ezinezkoa dela horiek lortzea.

Nazioarteko lankidetzak 1325 Ebazpena RDCan aplikatzen nola lagun dezakeen galdetuta, emakumeen erakundeak ados daude bi ideia nagusitan. Lehenik, emakumeen artean hura ezagutzen eta bereganatzen lagundu beharra dagoela, batez ere “oinarrikoen” eta landa eremuko artean. Zabalkundeari dagokionez asko dago egiteko eta, hortaz, ekintza zuzenak proposatzen dituzte, hala nola gaitasun teknikoak indartzea (adibidez, nazioarteko lankidetzako proiektuetan generoari buruzko prestakuntzak eginez); Ebazpenaren edukia tokiko hizkuntzetara itzultzea, modu pedagogikoan eta kulturalki egokian<sup>22</sup>; zabalkundean eta inplementazioan, emakumez gain, beste subjektu batzuk inplikatzea, hala nola gazteak edo talde kalteberak, prozesu horietatik kanpo geratu ohi direnak; eta, azkenik, gehien errepikatzen den neurria, tokiko emakumeen erakundeei laguntza ekonomikoa ematea, gizarte zibilaren eskutik 1325 Ebazpenaren hedapen handiagoa eta inplementazio hobea lortzeko.

Bigarrenik, nazioarteko lankidetzaren politikan eragin eta RDCko agintariei presioa ere egiten lan egin behar duela uste dute, herrialdeak genero-berdintasunaren eta EBS agendaren arloan hartutako konpromisoak bete ditzen. Justine Masikaren ustez, oro har, politikari kongoarren ez dute 1325 Ebazpena ezagutzen eta ez daude bereziki interesatuta genero-desparekotasunarekin. Adibidez, bere esanetan, tokiko agintariek maiz aipatzen dute horiek “emakumeen kontuak direla” eta bakarrik daude interesatuta 1325 Ebazpenaren horretarako baliabide ekonomikoak badaude<sup>23</sup>. Parte hartu duten erakundeetako baten esanetan, “lankidetzari gehiago entzuten diote” eta, horregatik, funtsezko kanpo eragile bat izan daiteke prozesuan. Hortaz, Masikak dio emakumeen erakundeek espero dutela nazioarteko lankidetzak “emakume bakegileak laguntzea, haiek baitute bakearen eragile izateko gaitasuna”<sup>24</sup>.

---

21 Iritzi berekoa da Eudoxie Nziavake, 2014an Ipar Kivun Emakumeen Mundu Martxaren ordezkaria izandakoa. Izan ere, bere esanetan, RDCko gobernuak ez du inolako arazorik nazioarteko tresnak berresteko, baina haren borondatea lausoagoa da neurriak zehaztu eta inplementatu behar direnean. *Elkarrizketa pertsonala* (zirion, 2018: 257).

22 RDCn 200 hizkuntza baino gehiago hitz egiten dituzte. Horien artean bakarrik kikongo, lingala, swahili eta tshiluba hizkuntzek dute ofizialtasun estatutua.

23 *Elkarrizketa pertsonala* (zirion, 2018: 258).

24 Alboan euskal GGKEak Justine Masikari egindako elkarrizketa:

[www.alboan.org/es/actualidad/internacional/justine-masika-synergie-des-femmes-trabaja-para-facilitar-la-participacion](http://www.alboan.org/es/actualidad/internacional/justine-masika-synergie-des-femmes-trabaja-para-facilitar-la-participacion)

## 5. Ondorioak eta gomendioak

1325 Ebazpenari buruzko Ekintza Plan Nazional bat bere inplementazioa bezain garrantzitsua da, eta inplementazioa oso eskasa izan da Kongoko Errepublikan Demokratikoan. Neurri batean, hori RDCko agintarien jabetze eta borondate politiko ezaren ondorio da, izan ere, hura aplikatzeko arduradunak dira eta tokiko erakundeek baino ahalmen eta baliabide gehiago dituzte.

Bigarren belaunaldiko EPNa aurrerapauso bat da aurrekoarekin alderatuta honako zentzu hauetan: haren ardatzek eta helburu espezifikoek EBS agendakoengandik hurbilago daude (parte-hartzea, prebentzioa, babesa eta errehabilitazioa) edo jarraipen eta ebaluazio tresna zehatzagoak aurreikusten ditu. Hala ere, inplementazio eta ebaluazio egoki bat lortzeko, espero diren emaitzak, adierazleak eta Planaren hamaika helburu espezifikoak betetzeko egingo diren jarduerak ondo zehaztu beharra dago. Hain zuzen ere, alderdi horiek oso modu irregularrean garatuta daude eta, oro har, oso orokorrak eta lausoak dira.

RDCko emakumeen erakundeek aho batez identifikatzen dute 1325 Ebazpena funtsezko tresna dela genero, bake eta segurtasun gaietan, bai tokiko agintariengan eragiteko eta presio egiteko bai emakumeen eskubideak herritarren artean sustatzeko. Halaber, emakumeen eskubideak babesteko nazioarteko, Afrikako eta nazio mailako beste tresna juridiko batzuk identifikatzen dituzte, 1325 Ebazpenaren osagarriak direnak eta, hortaz, hori bezain erabilgarriak ere.

1325 Ebazpena onartu eta RDCn lehenengo EPNa onartu zenetik, emakumeen erakundeak izan dira horren hedapena eta aplikazioa sustatu dutenak. Tokiko testuinguruetatik, lan eta borondate askorekin eta parte hartzeko modu inklusibo batean, erakunde horiek agintari publikoek utzitako hutsuneak bete dituzte, horien nagikeria, atzerapenak eta Ebazpenari emandako finantzamendu eskasa ikusita.

RDCko emakumeen erakundeek inplikazio handiagoa eskatzen diete herrialdeko agintariei eta nazioarteko lankidetzari ere. Azken honek 1325 Ebazpena zabaltzeko lana egin dezakeela uste dute, RDCn berdintasuna sustatzeko eta nazio mailako, probintzia mailako eta tokiko agintariengan eta aginte-maila desberdinetan (politikoa, ekonomikoa, erlijiosoa, ohiturazkoa, eta abar) eragiteko, hauek beren ardura har dezaten, 1325 Ebazpenari buruz duten ezagutza hobe dezaten eta hartaz jabetu eta babes dezaten. Horrekin batera, ezinbestekotzat jotzen dute nazioarteko lankidetzak emakumeen erakundeak laguntzen jarraitzeko konpromisoa hartzea. EBS agendak mundu mailan protagonismoa lortu duen heinean, nazioarteko lankidetzak gero eta bidelaguntza handiagoa eman die erakunde horiei. Baina, haien ustez, oraindik asko dago egiteko.

Aurrekoa kontuan hartuta, jarraian zenbait gomendio emango ditugu. Lehenik, RDCko gobernuari eta administrazio publiko eta agintari desberdinei (politikoak, erlijiosoak, ohiturazkoak, eta abar) gomendatzen diegu:

- 1325 Ebazpenaren edukia ezagutzea eta horretaz, EBS agendaz eta hura aplikatzeko sortutako bigarren belaunaldiko EPNaz jabetzea.
- Indarrean dagoen EPNan jasotako hamaika helburu espezifikoek emaitzak, adierazleak eta jarduerak zehaztea. Lan hori EPNan bertan inplementazioa eta jarraipena egiteko identifikatutako egitura nazionalak egin dezakete, adibidez, Gidaritza Batzorde Nazionalak eta Idazkaritza Nazionalak.

- Hurrengo EPNa egiterakoan, elementu guztien bereizmena (bestek beste, helburu espezifikoak, espero diren emaitzak, adierazleak, jarduerak eta eragile arduradunak) ahalik eta zehatzena izatea, haren inplementazioari, jarraipenari eta ebaluazioari laguntzeko.

Bigarrenik, RDCn lan egiten duen nazioarteko lankidetzari honako hau gomendatzen diogu:

- RDCko agintari politikoengan eragiteko jarduera gehiago egitea, haiek 1325 Ebazpena, EBS agenda eta bigarren belaunaldiko EPNa hobeto ezagut ditzaten eta horietaz jabe daitezten.
- 1325 Ebazpena eta EBS agenda sakon ezagut dezaten, baita nazioarteko, eskualdeko eta nazio mailako genero, bake eta segurtasun arloko beste tresna juridiko batzuk ere, emakumeen erakundeetan lanean erreferente direnak.
- RDCko emakumeen erakundeetan gaitasun hauek indartzeko baliabide gehiago ematea; teknikoak (adibidez, proiektuetan sartutako genero arloko trebakuntzen bitartez) eta finantzarioak. Izan ere, haiek dira, egiatan, 1325 Ebazpena inplementatzen dela bermatzeaz arduratzen direnak.
- Emakumeen erakundeek 1325 Ebazpena zabaltzeko egiten dituzten jarduerak laguntzea, batez ere historikoki baztertuta egon diren gizarte-taldeetan artean, hala nola “oinarriko” emakumeak eta landa eremukoak, gazteak, talde kalteberak eta talde etnikoak (azken hauek 1325 Ebazpenaren edukia ulertzeko, adibidez, tokiko hizkuntzetara modu kulturalki egokian itzuli beharko lirateke).

## 6. Bibliografia

Anderlini, Sanam Naragui (2011): “Translating Global Agreement into National and Local Commitments”. In Kuehnast, Kathleen, Chantal de Jonge Oudraat eta Helga Hernes (argtz.): *Women and war: power and protection in the 21st century*, United States Institute of Peace Press, Washington D.C., 19-36.

Gouvernement de la République Démocratique du Congo (2018): *Plan d'Action National de la mise en oeuvre de la Résolution 1325 du Conseil de Sécurité des Nations Unies, sur les Femmes, la Paix et la Sécurité, II<sup>ème</sup> génération*, Ministère du Genre, Enfant et Famille, Kinshasa.

– (2015): *Guide Pratique pour l'intégration des Résolutions 1325 y 1820 du Conseil de Sécurité des Nations Unies dans les Plans de Développement Local en RDC*, Ministère du Genre, de la Famille et de l'Enfant, Kinshasa.

– (2010): *Plan d'Action du Gouvernement de la République Démocratique du Congo pour l'application de la Résolution 1325 du Conseil de Sécurité des Nations Unies*, Ministère du Genre, de la Famille et de l'Enfant, Kinshasa.

Wright, Hannah (2015): “La 1325: ¿una herramienta útil para las activistas?”, *Por la paz*, 25, Institut Català Internacional per la Pau, Bartzelona.

zirion landaluze, iker (2018): *Desarme, desmovilización y reintegración de ex combatientes. Género, masculinidades y construcción de paz en la República Democrática del Congo*, Tirant Lo Blanch, Valentzia.

– (2017): “Activismo de las mujeres por la paz y la justicia transicional en Kivu Norte y Kivu Sur, República Democrática del Congo”. In Mendiá Azkue, Irantzu, Guzmán Orellana, Gloria eta iker zirion landaluze (argtz.): *Género y Justicia Transicional. Movimientos de mujeres contra la impunidad*, Hegoa Institutua, Bilbo, 271-313.

<https://publicaciones.hegoa.ehu.eus/es/publications/362>

## IV. 1325 Ebazpena inplementatzeko esperientziak Bosnia eta Herzegovinan eta Kosovon

---

Itziar Mujika Chao<sup>1</sup>

### 1. Sarrera

Emakumeei, Bakeari eta Segurtasunari buruzko 1325 Ebazpenaren espirtua, gehienbat, Jugoslavia ohiko gerretan gertatutakoan oinarritzen da (Mladenović eta Branković [2013], *in* Odanović eta Stojanović Gajić, 2013: 11), batez ere Bosnian eta Herzegovinan eta Kosovon gertatutako horietan. Testuinguru bien ezaugarrietako bat emakumeen erakundeek gerraosteko berreraikitze eta bakearen eraikuntza prozesuetan izan zuten parte-hartze aktiboa da, baina baita horiek –eta horien aldarrikapenak– esfera politikoetatik eta erabakitzeko eremuetatik baztertuak izan zirela ere. Bazterketa horrek 1325 Ebazpenari gogor atxikitzen eraman zituen, aspalditik egiten zitzuten bakegintza jarduerak indartzeko nazioarteko tresna gisa.

Bosnia eta Herzegovinan eta Kosovon, emakumeen erakundeak funtsezkoak izan dira 1325 Ebazpena bultzatzeari eta haren inplementazioaren jarraipena egiteari dagokionez baina, horretarako, nazioarteko lankidetzaren menpe izan dira neurri handi batean. Herrialde bietako gerraostean, genero-berdintasunera bideratutako lankidetzaren hazkunde bat egon zen eta, esparru horretan, 1325 Ebazpena nazioarteko finantziarioaren lehentasunetako bat bilakatu zen. Hala ere, igotzeko ez du derrigorrez emakumeen erakundeen helburuetan aurrera egitea ekarri.

Hori ulertzeko, kapitulu honek hainbat alderdi aztertzen ditu: 1325 Ebazpenaren instituzionalizazioa Bosnia eta Herzegovina eta Kosovoko politika publikoen esparruan, bertako emakumeen erakundeek 1325 Ebazpenari buruz duten ikuspegia, eta nazioarteko lankidetzaren eginkizuna arlo horretan. Kontsultatutako informazio iturriak izan dira, alde batetik, gaian espezializatutako dokumentuak eta, bestetik, 2021eko uztailetik urrira bitartean bakegintzan rol nabarmena duten bertako sei erakundeek (emakumeenak eta mistoak) *online* egindako galdetegi batean jasotako iritziak. Erakundeak honako hauek izan dira: Bosnia eta Herzegovinan, *Society for Threatened*

---

1 Garapen Ikasketetan doktorea eta Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Politika eta Administrazio Zientzia Saileko irakaslea. UPV/EHUko Hegoa–Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenari buruzko Ikasketen Institutuko eta euskal unibertsitate sistemako (IT434-22) Giza Segurtasunari, Tokiko Giza Garapenari eta Nazioarteko Lankidetzari buruzko Ikerketa Taldeko (2022-2025) ikertzailea. Honako hauek dira bere ikerketa ildo nagusiak: gatazken genero-ikuspegia eta ikuspegi feminista, bakearen eraikuntza eta indarkeria-ekete erresistentzia zibila.

*Peoples, United Women Banja Luka* eta *Foundation of Local Democracy*; eta Kosovon, *Alter Habitus, Kosovar Gender Studies Centre (KGSC)* eta *Kosovo Women's Network (KWN)*.

## 2. 1325 Ebazpena politika publikoetan sartzea

2000ko urrian 1325 Ebazpena Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluan onartu zenerako, Bosnia eta Herzegovinan eta Kosovon, emakumeen erakundeak urteak zeramatzaten bakearen eraikuntzan modu aktiboan lan egiten. Kasu bietan, Ebazpena beren aldarrikapenak legitimatzeko nazioarteko tresnatzat hartu zuten erakunde horiek, gatazkak prebenitzean eta konpontzean, negoziazio mahaietan eta bakearen eraikuntzan eta mantentzean genero-ikuspegia txertatzeko eta emakumeen parte-hartzea sustatzeko (Rošul-Gajić, 2016: 149).

Oro har, Balkanetan, 1325 Ebazpenaren aldeko biraketa gizarte zibilak sustatu du eta, zehazki, emakumeen erakundeek. Bai Bosnia eta Herzegovinan eta bai Kosovon, erakunde horiek generoari, bakeari eta segurtasunari buruzko nazioarteko tresnak aplikatzeko inplikazio handiena izan dute. Hala ere, 1325 Ebazpena onartu ondoren, hamar urte baino gehiago behar izan zituzten herrialde horietako legetan eta agenda politikoetan generoko neurriak sar zitzaten.

Zentzu horretan, 1325 Ebazpena gobernuaren politiketan sartzeko abagunea, Odanović eta Stojanović Gajićen arabera (2013: 11), “bakarrik sortu zen nazioarteko erkidegoak Balkanetako gobernuak 1325 agendaren inguruan egiten ari ziren lana babesten hasi zirenean, euren gobernuak eta erakundeak 1325 Ebazpenaren 10. urteurrena ospatzeko prestakuntzen parte gisa”<sup>2</sup>. Horrek ez du esan nahi 1325 Ebazpena kanpotik inposatu zenik, baizik eta, egileek dioten bezala, Ebazpenak “eragile politiko eta segurtasun eragile nazionalen aurrean legitimitatea lortu zuela, nazioarteko erkidegoarekiko harremanaren bitartez eta ez nazioko gizarte zibilaren eraginez”.

### 2.1. Ekintza Plan Nazionalak Bosnia eta Herzegovinan

Bosnia eta Herzegovinan, 1995ean Bake Akordioan sinatu zirenetik ere, tokiko, estatuko eta nazioarteko eragileek, emakumeen eskubideen aldeko ekintzetan, nazioarteko hainbat mekanismo erabili dituzte, hala nola Emakumeen Kontrako Diskriminazio Era Guztiak Ezabatzeko Konbentzioa (CEDAW) (1979), Pekineko Adierazpena eta Ekintza Plataforma (1995) eta 2000. urtetik aurrera, 1325 Ebazpena. Emakumeen erakundeak funtsezko eginkizuna izan dute ekintza horietan.

Hala ere, 1325 Ebazpenari buruzko lehen Ekintza Plan Nazionala (EPN) 2010eko uztailan agertu zen (2010-2013), hau da Bake Akordioak baino hamabost urte geroago (Bosnia eta Herzegovinako Genero berdintasunerako Agentzia eta Bosnia eta Herzegovinako Giza Eskubideen eta Errefuxiatuen Ministerioa, 2010). Hori izan zen Balkanetako lehenengo EPNa<sup>3</sup>, eta emakumeen zenbait erakundeek parte-hartze handia izan zuten haren lanketan. Gero, Bosnia eta Herzegovinak beste bi Ekintza Plan Nazional onartu zituen 2014-2017 eta 2018-2022 denboraldietarako (Bosnia

2 Testu honetan dauden aipamen literalak egileak berak itzuli ditu ingelesetik gaztelaniara, eta itzultzaileak gaztelaniatik euskaratu ditu.

3 Eskualdeko ikuspegi batetik, haren atzetik Serbia (2010eko abendua), Kroazia (2011), Mazedonia (2012), Kosovo (2014), Montenegro (2017) eta Albania (2018) etorri ziren.



eta Herzegovinako Giza Eskubideen eta Errefuxiatuen Ministerioa eta Bosnia eta Herzegovinako Genero Berdintasunerako Agentzia, 2013 eta 2017).

Hiru planek herrialdeko hainbat lege eta politika publikotan oinarritzen dira, berdintasunari buruzko hornidurak dituztenak, hala nola hauek: Konstituzioa, Genero Berdintasunaren Legea, Hauteskundearen Legea, Alderdi Politikoen Finantzamenduaren Legea eta Generoko Ekintza Plana, bertako legeak nazioarteko legeekin bateratzeko prozesuaren esparruan. Lehenengo planak bost helburu nagusi identifikatu zituen. Horietarik, lehenengo hirurak emakumeen parte-hartzeari zegozkion, erabakiak hartzeko eremu politiko guztietan, indar militar eta polizialean; eta bakea mantentzeko misioetan. Gainera, pertsonen salerosketaren aurkako borrokari buruzko laugarren helburu bat eta minak dituzten eremuetako arriskua murrizteko bosgarren bat zituen (Bosnia eta Herzegovinako Genero Berdintasunerako Agentzia eta Bosnia eta Herzegovinako Giza Eskubideen eta Errefuxiatuen Ministerioa, 2010).

Hurrengo plan biek ere emakumeen parte-hartzea gobernu eta tokiko erabakitze eremu guztietan sustatzeko helburua zuten, baita segurtasun egituretan ere (erakunde militarrek, polizialak eta bakea mantentzeko misioak). Lehenengo eta bigarren planek pertsonen salerosketa eta gerran sexu-indarkeria pairatutako emakumeak aipatzen dituzte, baina modu marjinal batean. Hirugarren planak, aldiz, genero-ikuspegia txertatzen du segurtasunaren mehatxuak eta erronkak aztertzean. Azken horien artean aipatzen ditu hondamendi naturalak (2014an gertatuko uholdeak kasu), migrazioak eta 2015az geroztiko errefuxiatuen krisia, estremismo biolentoa edo arma txikiak eta arinak edukitzea eta erabiltzea (Bosnia eta Herzegovinako Giza Eskubideen eta Errefuxiatuen Ministerioa eta Bosnia eta Herzegovinako Genero Berdintasunerako Agentzia, 2017). Horri lotuta, Ekintza Plan Nazionalen edukia pixkanaka zabaltzen joan dela ikus daiteke, Emakumeen, Bakearen eta Segurtasunaren nazioarteko agendaren gomendioak –1325 Ebazpenaren ondorengoak– txertatze aldera.

Plan horiek badaude ere, 1325 Ebazpenaren inplementazio maila oso baxua da Bosnia eta Herzegovinan. Emakumeen parte-hartze politiko-instituzionalari erreparatzen badiogu, 2013an, lehen planaren indarraldia bukatzean, emakumeen % 5 eta % 7 artean baino ez zegoen tokiko lanpostu exekutiboetan, eta bat ere ez estatu-mailan. Parlamentuan, emakumeak % 14 ziren (Zvizdić eta Stanić, 2013: 70). 2014ko hauteskunde orokorren ostean, emakumeen parte-hartzea eremu legegile eta exekutibotan % 20 izan zen bakarrik. 2016ko tokiko hauteskundeetan emakumeak hautagaien % 6,22 izan ziren, eta guztira, 6 izan ziren hautetsiak<sup>4</sup>.

Segurtasun sektorean duten parte-hartzeari dagokionez, EPNek abagunea sortu badute ere, emakumeak gutxienak dira eta batez ere beheko maila eta postuetan aurkitzen dira. Defentsa Ministerioan, emakumeak langileen % 38 dira eta Armadan % 6,8. Erakunde polizialean % 7,5 dira eta Nazio Batuen bakea mantentzeko misioetan % 30 (Bosnia eta Herzegovinako Giza Eskubideen eta Errefuxiatuen Ministerioa eta Bosnia eta Herzegovinako Genero Berdintasunerako Agentzia, 2017). Bai ikusten dira zenbait aldaketa, ordea; adibidez, Defentsa Ministerioaren burua emakume bat izan zen eta beste hiru saileko buruak ere bai, baina horiek kasu bakanak dira.

---

4 Konstituzioak generoko diskriminazioa debekatzen du eta herritar guztiei alderdi politikoetan parte hartzeko edo erakundeetako ordezkariak hautatzeko eta hautatua izateko eskubidea bermatzen die, baina ez ditu ekintza positiboko ekintzak aurreikusten, hala nola kuotak edo antzeko beste batzuk. Hauteskunde Legeak, aldiz, bai ezartzen du emakumeek % 40 izan behar dutela, baina datuak ikusita, emaitza hobekia lortzeko beste neurri batzuk ere beharrezkoak dira (Bosnia eta Herzegovinako Giza Eskubideen eta Errefuxiatuen Ministerioa eta Bosnia eta Herzegovinako Genero Berdintasunerako Agentzia, 2017).

Bigarren Ekintza Planak, lehenengoa bi urte zeramatzean, 1325 Ebazpena inplementatzeko zenbait erronka identifikatu zituen, gaur ere jarraitzen dutenak: nazioko eta nazioarteko legeen bateratzea eskasa da oraindik ere, eta, segurtasunaren sektorean bereziki, “funtsik gabekoa eta aldakorra” da; Genero Berdintasunerako Agentziak urtero egiten dituen txostenez harago doan jarraipen eta ebaluazio sistema bat beharrezkoa da; eta funts nahikoak eman behar zaizkio (Bosnia eta Herzegovinako Giza Eskubideen eta Errefuxiatuen Ministerioa eta Bosnia eta Herzegovinako Genero Berdintasunerako Agentzia, 2013).

Parte-hartzeko helburuen betetze-maila baxuekin batera, hirugarren EPNak gerrako sexu-indarkeriaren biktimen egoeran aurrerapauso gutxi egon direla aitortzen du. Brcko-ko Barruti autonomoa kenduta, Bosnia eta Herzegovinan ez dago haien eskubideak arautzen dituen eta kalte-ordainak edo errehabilitazioko eta zerbitzuetarako sarbiderako neurriak aurreikusten dituen legerik. Horren ordez, herrialdeko zenbait instituzioek eta Nazio Batuen zenbait agentziak *Seeking Care, Support and Justice for Survivors of Conflict Related Sexual Violence in Bosnia and Herzegovina* (2014-2017) programa sustatu zuten. Horrek, haatik, biktimengana heltzeko zailtasunak erakutsi ditu herrialdearen hainbat lekutan (Bosnia eta Herzegovinako Giza Eskubideen eta Errefuxiatuen Ministerioa eta Bosnia eta Herzegovinako Genero Berdintasunerako Agentzia, 2017).

Oro har, 1325 Ebazpenarekiko konpromisoa erretorikoa izan da, batez ere (Deiana, 2018). Balio izan du emakumeek erabakitzeke eremuetan duten parte-hartzea apur bat handitzeko, baina ez egunerokoan genero-desparekotasuna borrokatzen dituzten neurri espezifikoak hartzeko. Ekintza Plan Nazionalan ez dira generoko diskriminazioa edo jazarpena bezalako alderdiak ere kontuan hartzen (Zvizdić eta Stanić, 2013). Zentzu horretan, erronka nagusiak hauek dira: emakumeak erabakitzeke eremuetatik baztertzen dituztela, ez direla 1325 Ebazpenaren agindu nagusiak ulertzen, horren inplementazioan lan egiten duten erakundeen lana laguntzeko funts urri dituztela, eta gizarte zibileko erakundeak plangintza politikoko prozesuetatik kanpo uzten dituztela (Rošul-Gajić, 2016: 154). Gainera, erantzun bat eman behar zaie “gerrako ondare polemikoenei”; sexu-indarkeriaren biktimen premiei arreta eskaini behar diete eta bakearen eraikuntzan “arkitektukide” gisa sartu behar dituzte (Deiana, 2018: 8).

## 2.2. Ekintza Plan Nazionala Kosovon

1325 Ebazpenaren onarpenak itzaropena ekarri zien Kosovoko emakume aktibistei. 1999tik eta 2008ra bitartean, lurraldearen kudeaketa Nazio Batuen eskuetan geratu zen, erakundeak Kosovon zuen Behin-behineko Administrazio Misioren bitartez. Gizarte zibilak, eta batez ere emakumeen erakundeek, pentsatu zuten, egoera horretan 1325 Ebazpenaren inplementazioa ziurra zela, baina Misiok berak ez zituen horretarako beharrezkoak ziren baliabideak jarri (Kvinna till Kvinna, 2001; KWN, 2011). Hala, emakumeen erakundeak oso aktiboak ziren Ebazpena tokiko mailan inplementatzeari zegokionez baina nazioarteko erakundeetako langileen partetik interes, borondate eta ezagutza falta aurkitu zuten (KWN, 2009). Inkohorentzia seinale argiak zituen jarduketaren eremua zen: nazioarteko eragile nagusiek eta Kosovon presentzia handiena dutenek genero-berdintasuna sustatu dute publikoki, baina oso gutxi txertatu dute genero-ikuspegia beren ekimenetan, edo oso berandu egin dute (Färnsveden, Farnsworth eta Qosaj-Mustafa, 2014; KWN, 2009; KWN, 2011).

Gerra amaitu zenetik, Kosovoko gobernuak berdintasunari buruzko hamar neurri legal baino gehiago hartu ditu, hala nola Genero Berdintasunaren Legea, Diskriminazioaren Aurkako Legea,

Ettxeko Indarkeriatik Babesteko Legea; hori guztia, Genero Berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Nazionalen esparruan. Hala ere, emakumeen eskubideak babesteko eta esfera publiko, politiko eta ekonomikoan parte har dezaten sustatzeko indarrean dagoen lege-esparru zabala ia ez da aplikatzen (Raifi, 2013: 77), eta generoko diskriminazioa eta indarkeria etengabeak dira.

2014az geroztik, 1325 Ebazpena inplementatzeko Ekintza Plan Nazional berri bat (2013-2015) abian jartzeak bultzada bat eman zion generoko agendari gerraosteko birgaitze eta bakearen eraikuntza prozesuetan. Horren lanketan, Lehen Ministroaren Bulegoaren barruan dagoen Genero Berdintasunerako Agentzia, Estatuko beste erakunde batzuek eta Nazio Batuen zenbait agentziak parte hartu zuten, hala nola NBE Emakumeak eta Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Mandatariaren Bulegoa.

Kosovoko Ekintza Plan Nazionalak bi helburu ditu: emakumeen eskubideak eta erabakitzeke eremuetan haien partaidetza sustatzea; eta Gobernuak gerrako biktimak laguntzen dituela bermatzea (Kosovoko Genero Berdintasunetako Agentzia, 2014). Haren aplikazioa errealitate izatetik urrun dago baina zenbait aurrerapen ikusten dira emakumeen parte-hartzean. 2011ko hauteskunde orokorretan, emakumeek lau aulki besterik ez zituzten lortu parlamentuan eta, aldi berean, lau izendatu zituzten gobernuko ministro (Raifi, 2013: 80). 2014an, Atifete Jahjaga Kosovoko lehen emakume lehendakaria izan zen eta horrek emakumeak goi karguetan bistaratu zituen<sup>5</sup>. Dena den, horiek salbuespenak dira eta ez da aldaketa handirik egon emakumeen ordezkagarritasun politikoari dagokionez. Herrialdean % 30eko kuota ezarrita egon arren, 2014an emakume bakar bat izendatu zuten ministro eta 40 emakume sartu ziren parlamentuan, 80 gizonen aurrean. Tokiko mailan, emakumeak tokiko gobernuetako udal taldeko kideen % 35 ziren eta bakar bat izan zen alkate<sup>6</sup>.

Estatu mailako segurtasun sektoreko erakundeetan ere ez dira kuotak betetzen (Raifi, 2013: 81-83). Kosovoko Poliziak (*Kosovo Police*), 2009tik aurrera, hau da, Plana onartu aurretik, pausoak eman zituen emakumeak sartzeko eta, azken urteetan, emakumeen tasa % 14,85 izatera heldu da. Neurri txikiago batean ere, emakumeek armadan (*Kosovo Security Force*) duten parte-hartzea ere handitu da, % 8 gaindituz.

### 3. Emakumeen erakundeak, nazioarteko lankidetzak eta 1325 Ebazpena

Genero-berdintasunerako nazioarteko lankidetzak garrantzitsuak izan da Bosnia eta Herzegovinako eta Kosovoko gerraostean. Emakumeen erakundeekiko lankidetzak helburu horrekin sortutako ekimen hauen bitartez bideratu zen: *Bosnian Women's Initiative* eta *Kosovar Women's Initiative*, hurrenez hurren. Ekimen horien ondorio zuzen gisa, emakumeen hainbat GKE sortu ziren baina horietako asko bakarrik iraun zuten nazioarteko finantzamendua egon zen bitartean. Iraun zuten tokiko emakumeen erakundeek urte askoko ibilbidea eta jarduera-maila handia zuten. Nazioarteko

5 Haren hautaketa kritikoak piztu zituen lider politikoen arteko adostasun baten emaitza izan baitzen eta ez hauteskundeena.

6 Gainera, komunitate etniko minoritarioetako emakumeek adierazi dute emakumeen parte-hartzeke kuota sistemak eta talde minoritarioen parte-hartzekeak ez direla bateragarriak (Färnsveden, Farnsworth eta Qosaj-Mustafa, 2014).

finantzamenduaren beherakada horrekin batera ez zen laguntza handiagoa etorri instituzioen aldetik eta, ondorioz, emakumeen erakundeen fondoak izugarri gutxitu ziren (KWN, 2011)<sup>7</sup>.

Gerraostean zehar, nazioarteko lankidetzaren eta emakumeen erakundeen lehentasunak ez dira beti bat etorri (Mendia Azkue, 2014; Mujika Chao, 2017) baina 1325 Ebazpenaren inplementazioan interes partekatua ikus dezakegu. Herrialde bietako emakumeen erakundeek onartzen dute nazioarteko lankidetzak, batez ere Europatik eta AEBetatik etorritakoa, inplementazio horri lagundu diola baina ez beti erakunde hauen lana lagunduz.

Bosnia eta Herzegovinako eta Kosovoko emakumeen erakundeek gogoz sustatu dute 1325 Ebazpenaren inplementazioa, eta haien eskaerak sartu dituzte prozesu horretan. Hala ere, haien parte-hartze maila ez da parekoa izan. Lehenik, ikerketa honetan inkestatutako erakundeen artean, *Society for Threatened Peoples* eta *Foundation of Local Democracy* erakundeek oso parte-hartze txikia izan dute. *United Women Banja Luka* erakundeak, ordea, parte-hartze handiagoa izan du, adibidez, Ekintza Plan Nazionalaren edukia komunitateetan ezagutzera emanez.

Ikerketan parte hartu duten erakunde bosniar guztiek 1325 Ebazpenaren edukia ezagutzen dute eta horrek bakearen eta segurtasunaren inguruan duen ikuspegiarekin bat datoz. Oro har, Ebazpena haien lehentasunekin bat datorrela eta haien lanean nahiko erabilgarria dela uste dute. Gainera, Ebazpenak honako arlo hauetan egiten duten lana indartzen duela adierazten dute: indarkeria prebenitzea eta haren aurrean babestea, esfera publikoan emakumeen parte-hartzea sustatzea, eta erakundeek laguntzen dituzten biktimak errehabilitatzea. Hala ere, Ebazpenaren erabilera desberdina da erakunde bakoitzaren jarduketaren arabera. Izan ere, nazio eta eskualde mailan lan egiten dutenek, *Society for Threatened Peoples* eta *United Women of Banja Luka* erakundeek kasu, maiz erabiltzen dute Ebazpena. Tokian lan egiten dutenek, hala nola *Foundation of Local Democracy* erakundeak, ordea, oso gutxitan erabiltzen dute.

Inkestatutako erakunde bosniarrak ados daude nazioarteko lankidetzak 1325 Ebazpenaren aplikazioa lagundu beharko lukeela, arrazoi hauengatik: herritarrek haren edukia hobeto ezagut dezaten; emakumeen segurtasuna handitzeko; nazio mailan eta nazioartean gai horri buruzko legegarruak bateratzean aurrera egiteko; estatu mailan eta mundu mailan egiten diren jardueren arteko sinergiak hobetzeko; indarkeriaren ondorioak eta biktimen eskubideak aintzat har daitezzen; eta elite politikoei Ebazpenarekiko konpromisoa har dezaten presioa egiteko.

Bigarrenik, Kosovoko erakundeen artean, adibidez, *Alter Habitus* erakundeak ez du parte hartu Ekintza Plan Nazionalaren lanketan. KGSC eta KWN erakundeek, ordea, parte-hartze handia izan dute eta hainbat modutan lagundu dute, hala nola testua idaztean, inplementazioaren jarraipena egiteko taldean parte hartuz eta emakume gazteen parte-hartze politikoa handitzeko lanean. 1325 Ebazpenaren erabilera maila ere desberdina da erakundeen artean: *Alter Habitus* erakundeak ia ez du ezagutzen Ebazpena eta ez du harekin lotutako proiektu batean ere lan egin. KGSC eta KWN

---

7 Genero-berdintasunerako nazioarteko lankidetzak gutxitu zenean, *Bosnian Women's Initiative* eta *Kosovar Women's Initiative* erakundeak desagertu ziren, behintzat hasiera batean zuten formari dagokionez. Horri buruzko informazio gutxi badago ere, zenbat ikerketaren arabera, finantzamendua gutxitu zen 2014az geroztik (Farnsworth eta Gashi, 2014; Farnsworth et al., 2020). 2014tik 2018ra bitartean, eskualdeko emakumeen erakundeak, batez beste, 6.000 euroko laguntza izan dute urtean eta gehienek, % 82k, ez dute baliabide nahikori izan zenbait denboralditan. Jaso dituzten fondo gehienak erakunde multilateraletatik (% 21 baino gehiago) edo bilateraletatik (% 24 baino gehiago) etorri dira, maiz beste erakunde multilateral, emakumeen funtsen eta nazioarteko erakundeen bitartez (Farnsworth et al., 2020).

erakundeek, aitzitik, beti erabiltzen eta aipatzen dute, batez ere indarkeria prebenitzeko eta haren aurrean babesteko, eta emakumeen parte-hartzea sustatzeko lanetan. Hain zuzen, KGSC erakundearentzat 1325 Ebazpena genero-harremanak eraldatzeko izaera du eta bere lanerako tresna nagusietako bat da genero, bake eta segurtasun arloan. Gainera, nazioarteko lankidetzak erakunde publikoetan eta gizarte zibilean eragiteko lana indartzen eta erakunde gisa sendotzen duela adierazten du.

Kosovoko hiru erakundeak (KGSC, KWN eta *Alter Habitus*) bat datoz nazioarteko lankidetzak 1325 Ebazpenaren ezaguera eta erabilera sustatu behako lukeela Kosovon, funtsezkotzat jotzen baitute bakearen eraikuntzan ikuspegi feminista txertatzea eta emakumeen parte-hartzea sustatzea.

*Alter Habitus* erakundearentzat garrantzitsua da emakumeek eta adin txikikoek gerran jasaten duten biktimizazioa, eta horretarako Ebazpena ezagutzera eman eta erakundeei presioa egin beharra dago, hura inplementa dezaten. Azkenik, erakundeak nazioarteko lankidetzak aktibista eta erakunde feministei laguntzea eskatzen du, baita emakume politikariei ere. Bere aldetik, KGSC erakundearentzat funtsezkoak dira emakumeen ahalduntzea, eremu publiko eta politikoa parte hartzea, haien segurtasuna, eta osasun sektorean duten egoera. Erakunde horrentzat beharrezkoa da 1325 Ebazpena inplementatzeko mekanismoak indartzea, genero-ikuspegidun aurrekontuak egitea eta emakume gazteentzako ekintzak sustatzea. Azkenik, KWN erakundearen ustez, 1325 Ebazpena inplementatzeko erronkak desberdinak dira testuinguruaren arabera, baina garrantzitsutzat hartzen du Ebazpenari eta EBS nazioarteko agendari dagozkien informazioa eta praktika ona ezagutzea eta partekatzea. Haren esanetan, nazioarteko lankidetzak 1325 Ebazpena inplementatzeko esperientzia positiboak zabaltzen lagundu beharko luke, emakumeek gizartean duten eginkizuna indartzen dutenak eta, bereziki, “genero-berdintasuna gure herrialdean sustatzen duten tokiko ekimenak, emakumeek ez baitute oraindik lekurik negoziazio mahaietan, ezta berdintasunezko parte-hartzerik ere nazioko eta tokiko erabakietan”.

1. taula. Bosnia eta Herzegovinako eta Kosovoko erakundeen argudioak nazioarteko lankidetzak 1325 Ebazpenaren inplementazioa lagun dezan	
<b>Bosnia eta Herzegovina</b>	
Ebazpenaren edukia ezagutzera ematea eta horri buruz informatzea	
Emakumeen segurtasuna handitzea	
Nazioarteko eta nazioko lege-esparruak bateratzen jarraitzea	
Estatu eta mundu mailan egiten diren jardueretik sinergiak identifikatzea	
Biktimen eskubideak aintzat hartzea	
Indarkeriaren ondorioak aintzat hartzea	
Elite politikoei Ebazpena inplementatzeko presio handiagoa egitea	
<b>Kosovo</b>	
Ebazpenaren ezaguera eta erabilera zabaltzea	
Emakumeen erakundeek instituzioen eta gizarte zibilaren aurrean egiten duten lana indartzea	
Emakumeen erakundeen gaitasunak indartzea	
Emakumeen ahalduntzea sustatzea	
Emakumeek eremu publikoetan duten parte-hartzea handitzea	

Iturria: egilea.

1325 Ebazpenak genero-harremanen arloan duen izaera eraldatzaileari dagokionez, Bosnia eta Herzegovinako eta Kosovoko erakundeek ez dute hori argi edo ez daude horrekin ados. Gainera, inplementazioan aurkitzen dituzten zailtasunek eta nazioarteko lankidetzak genero-berdintasunerako ematen dituen funtsetan izandako beherakadak, denborarekin, Ebazpenaren gaineko pertzepzioa hain ona ez izatea ekarri dute. Gaur egun, 1325 Ebazpena bakearen eraikuntzan egiten duten lanaren erreferentzia nagusia den arren, emakumeen erakundeek estatuko eta nazioarteko tresnen konbinazioa erabiltzen dute.

2 taula. 1325 Ebazpenaren erabileraz gain, beste tresna gehigarri batzuk
<b>Bosnia eta Herzegovina eta Kosovo</b>
Nazio Batuen Milurteko Garapenerako Adierazpena eta Helburuak Emakumeen Kontrako Diskriminazio Era Guztiak Ezabatzeko Konbentzioa (CEDAW) Emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren prebentzioari eta haren aurkako borrokari buruzko Istanbulko Konbentzioa Gazteei, bakeari eta segurtasunari buruzko 2419 Ebazpena (2018) Gatazkako sexu indarkeriaren biktimen premiei erantzuten dieten neurriei buruzko 2467 Ebazpena (2019)
<b>Bosnia eta Herzegovina</b>
Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala Pekineko Adierazpena eta Ekintza Plataforma Bosnia eta Herzegovinari buruzko 2496 Ebazpena
<b>Kosovo</b>
Kosovoko Genero Berdintasunerako Legea 1325 Ebazpena inplementatzeko Ekintza Plan Nazionala Europar Batasunaren Emakumeei, Bakeari eta Segurtasunari buruzko Ikuspegi Integrala Europar Batasunaren Generoko Ekintza Planak Gatazka armatuetako sexu-indarkeriari buruzko 1820 (2008) eta 1888 (2009) Ebazpenak Emakumeek bake-prozesuetan parte hartzeari buruzko 1889 (2009) eta 2493 (2019) Ebazpenak Gatazka egoerako sexu-indarkeriarekin amaitzeko kontuak emateari buruzko 1960 Ebazpena (2010) Gazteei, bakeari eta segurtasunari buruzko 2250 (2015) eta 2535 (2020) Ebazpenak

Iturria: egilea.

## 4. Ondorioak eta gomendioak

Bosnia eta Herzegovinako eta Kosovoko gerrak amaitu zirenetik, 1325 Ebazpena asko erabili izan dute emakumeen eskubideak babesteko eta horiek erabakitzeko eremuetan parte har dezaten exijitzeko, batez ere nazio mailako ekintzetan. Herrialde bietan, emakumeen erakundeek, oro har,

Ebazpena sustatzearen alde agertu dira, balio handia eman baitiote horri. Orokorrean, inkestatutako erakundeek uste dute Ebazpenak beren lana legitimatzen laguntzen duela eta beren ekintzak indartzen dituela instituzio publikoen eta gizarte zibilaren aurrean. Hori dela eta, nazioarteko erkidegoak bakea eraikitze eta 1325 Ebazpena inplementatzeko lan egiten duten erakundeei emandako laguntza handitu beharko lukeela uste dute.

Herrialde bietan, estatuko erakundeek eta nazioarteko eragileek Ebazpenaren inguruan egiten dituzten ekintzak ugaritu dira azken urteetan, batez ere Ekintza Plan Nazionalen bitartez; 2010az geroztik Bosnia eta Herzegovinan eta 2014az geroztik Kosovon. Hala ere, aurrerapausoak geldoak dira eta ez dira nahikoak. Kasu bietan antzeko zailtasunak aurkitzen dituzte: borondate politiko eza, neurri espezifikoak abian jartzeko nahikoa ez den finantzamendua eta, inplementazioaren jarraipenean eta ebaluazioan, emakumeen erakundeen parte-hartze anitza eta iraunkorra errazteko mekanismorik eza.

Gatazkak amaitu osteko lehenengo urteetan, emakumeen erakundeei zuzendutako nazioarteko laguntza nabarmen handitu zen baina, denborarekin, laguntza hori izugarri murriztu da. Horrek erakundeek 1315 Ebazpenaren inplementazioan emandako laguntza eta, zenbait kasutan, erakundeen funtzionamendua eta iraupen bera ere zaildu ditu. Gainera, emakumeen erakundeen eta nazioarteko erakundeen lehentasunak ez datoz beti bat. Hala ere, ikerketa honetan parte hartu duten erakundeek Bosnia eta Herzegovinan eta Kosovon 1325 Ebazpenaren aplikazioa gogoz laguntzeko eskatzen diote oraindik nazioarteko lankidetzari. Horretarako, honako hau iradokitzen dute:

- Haien eskaerak inplementazio-prozesuan sartzea, eurak baitira beren lurraldeetako egoera zuzenean ezagutzen dutenak eta aplikatzeko modu egokienak eta horien eragin potentzialak lehen eskutik ezagutzen dituztenak.
- Inplementazio mekanismo eta tresna espezifikoak sortzea eta abian jartzea, dauden horiek indartzea eta prozesuak behar dituen finantza baliabideak gordetzea, batez ere emakumeen erakundeak kontuan hartuz.
- 1325 Ebazpena inplementatzeko prozesuek beste jarduketara eremu hauek ere kontuan hartzea: genero-ikuspegidun aurrekontuak egitea, edo emakume gazteei espezifikoak zuzendutako ekimenak sustatzea, besteak beste.
- 1325 Ebazpenaren erabilera sustatzea erakunde publiko eta kudeaketa maila guztietan, emakumeen parte hartze publikoa eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa sustatzeko tresna giltzarri gisa.
- Nazioarteko lankidetzak Ebazpena hobeto ezagutzea, gehiago erabiltzea eta hura oztopatzen duten nazio eta tokiko agintariengan eragitea, haiek ere hura aplikatu dezaten.
- Nazioarteko lankidetzak modu zuzenago batean laguntzea 1325 Ebazpena inplementatzeko lan egiten duten emakumeen erakundeei, bitartekarien kopurua murriztuz.

## 5. Bibliografia

- Bosnia eta Herzegovinako Genero Berdintasunerako Agentzia (2014): *Working Plan to Implement Resolution 1325, "Women Peace and Security" 2013-2015*, Pristina, Kosovo.  
<https://1325naps.peacewomen.org/index.php/kosovo/>
- Bosnia eta Herzegovinako Genero Berdintasunerako Agentzia eta Bosnia eta Herzegovinako Giza Eskubideen eta Errefuxiatuen Ministerioa (2010): *Action Plan for the Implementation of UNSCR 1325 in Bosnia-Herzegovina 2010-2013*.  
<https://arsbih.gov.ba/project/the-action-plan-for-implementation-of-the-unscr-1325-2010-2013/>
- Bosnia eta Herzegovinako Giza Eskubideen eta Errefuxiatuen Ministerioa eta Bosnia eta Herzegovinako Genero Berdintasunerako Agentzia (2013): *Action Plan for the Implementation of UNSCR 1325 in Bosnia and Herzegovina 2014-2017*. <https://arsbih.gov.ba/2425/>
- (2017): *Action Plan for the Implementation of UNSCR 1325 'Women, Peace and Security' in Bosnia and Herzegovina 2018-2022*.  
<https://arsbih.gov.ba/project/action-plan-for-the-implementation-of-the-un-security-council-resolution-1325-women-peace-and-security-in-bosnia-and-herzegovina-for-the-period-2018-2022>
- Deiana, Maria-Adriana (2018): *Gender and citizenship. Promises of peace in post-Dayton Bosnia-Herzegovina*, Palgrave Macmillan, Londres.
- Färnsveden, Ulf, Farnsworth, Nicole eta Ariana Qosaj-Mustafa (2014): *Country Gender Profile: An Analysis of Gender Differences at All Levels in Kosovo*, Orgut Consulting AB, Estokolmo, Suedia.
- Farnsworth, Nicole et al. (2020): *Where's the money for women's rights? Funding trends in the Western Balkans*, Kvinna till Kvinna, Pristina.
- Farnsworth, Nicole eta Elmaze Gashi (2013): *Where's the Money for Women's Rights? A Kosovo Case Study*, Kosovo Women's Network (KWN), *Alter Habitus*-Institute for Studies in Society and Culture eta Association for Women in Development (AWID), Pristina, Kosovo.
- Kosovo Women's Network (2009): *Monitoring Implementation of United Nations Security Council Resolution 1325 in Kosova*, Pristina, Kosovo.
- (2011): *1325 Facts & Fables: A Collection of Stories about the Implementation of United Nations Security Council Resolution 1325 on Women, Peace, and Security in Kosovo*, Pristina, Kosovo.
- Kosovoko Genero Berdintasunerako Agentzia (2014): *Working Plan to Implement Resolution 1325, "Women Peace and Security" 2013-2015*, Pristina, Kosovo.  
<https://1325naps.peacewomen.org/index.php/kosovo/>
- Kvinna till Kvinna (2001): *Getting in Right? A Gender Approach to UNMIK Administration in Kosovo*, Kvinna Till Kvinna Foundation, Estokolmo, Suedia.
- Mendia Azkue, Irantzu (2014): *La división sexual del trabajo por la paz. Género y rehabilitación posbélica en El Salvador y Bosnia-Herzegovina*, Tecnos, Madril.



Mladenović, Lepa eta Biljana Branković (2013): *Međunarodni feministički mirovni pokret koji je doveo do Rezolucije 1325*. BCSP, Belgrad.  
<https://bezbednost.org/publikacija/medjunarodni-feministicki-mirovni-pokret-koji-je-doveo-do-rezolucije-1325/>

Mujika Chao, Itziar (2021): “Veinte años de la agenda internacional sobre Mujeres, Paz y Seguridad (MPS)”. *Revista CIDOB d’Afers Internacionals*, 127, 15-38.

Odanović, Gorana eta Sonja Stojanović Gajić (argtz.) (2013): *Women, Peace and Security in the Western Balkans. Independent review of translation of UNSCR 1325 into policy in Albania, Bosnia and Herzegovina, Kosovo, Macedonia and Serbia*, BCSP, Belgrad, Serbia.

Raifi, Fjolla (2013): “Kosovo”. In Odanović, Gorana eta Sonja Stojanović Gajić (argtz.): *Women, Peace and Security in the Western Balkans. Independent review of translation of UNSCR 1325 into policy in Albania, Bosnia and Herzegovina, Kosovo, Macedonia and Serbia*, BCSP, Belgrad, Serbia, 74-88.

Rošul-Gajić, Jagoda (2016): Women’s advocacy in postwar Bosnia and Herzegovina. Implementation of UNSCR 1325 on Women, Peace and Security. *Journal of International Women’s Studies*, 17(4), 143-159.

Zvizdić, Memnuna eta Aleksandra Stanić (2013): “Bosnia and Herzegovina”. In Odanović, Gorana eta Sonja Stojanović Gajić (argtz.): *Women, Peace and Security in the Western Balkans. Independent review of translation of UNSCR 1325 into policy in Albania, Bosnia and Herzegovina, Kosovo, Macedonia and Serbia*, BCSP, Belgrad, Serbia, 59-73.

# V. 1325 Ebazpena El Salvadorren estatuaren eta emakumeen mugimenduaren ekimenetik

---

Gloria Guzmán Orellana<sup>1</sup>

## 1. Sarrera

1992. urtea inflexio-puntu garrantzitsu bat izan zen El Salvadorreko oraintsuko historian, Bake Akordioak sinatzearekin eta gerraostea hastearekin. Denboraldi horretan, emakumeen mugimenduak agenda sozial eta politiko zabala bultzatu zuen honako gai hauei lotuta: emakumeek tokiko eta nazioko erabakitzeko eremuetan parte hartzea, emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzea eta indarkeriaren biktimak babestea eta horiei laguntza eskaintzea. Hau da, El Salvadorreko emakumeen mugimenduek 1325 Ebazpenaren helburuak sustatzen zituzten hura 2000. urtean onartu aurretik, eta hala jarraitu dute hura onartu ondoren ere.

1325 Ebazpenak, bada, gatazka armatuen ondorioak pairatzen dituzten biztanleen gehienak emakumeak direla aitortu zuen –lehenbiziko aldiz Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluan–. Halaber, bakea eraikitzeari eta finkatzeari buruz erabakitzeko prozesuan emakumeek parte hartzearen garrantzia aintzat hartu zuen. Izan ere, Ebazpen horrek, eta Segurtasun Kontseiluak onartutako hurrengoek ere, honako arlo hauetan emakumeen parte-hartzea bermatuko duten neurriak har ditzaten eskatzen diete estatuei: gatazkak konpontzea eta bakea eraikitzea, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea, haien eskubideak babestea, eta gatazka armatuetako edo antzeko egoeren biktimak errehabilitatzea (MZC, 2013; Hegoa, 2020).

Kapitulu honetan, lehenik, El Salvadorreko Estatuak eta genero-ikuspegidun bakearen eta segurtasunaren arloko nazioarteko konpromisoak betetzeko politika publikoek 1325 Ebazpena nola lantzen duten aztertuko dugu. Horretarako, sarbide publikoko informazioa bilatu da, hala nola izaera ofizialeko dekretuak, plan estrategikoak, plan operatiboak eta gauzatze txostenak. Ikusiko dugun bezala, 1325 Ebazpenari dagokionez, El Salvadorreko gobernuen ekintzak denboran zehar

---

1 Hezkuntza Zientzietan lizentziatua El Salvadorreko Unibertsitatean. Genero Ikasketetan espezializatua Unibertsitat de Girona: Innovació i Formació Fundazioan eta Globalizazioari, Garapenari eta Nazioarteko Lankidetzari buruzko Goi-mailako Ikasketetan diplomatua Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). UPV/EHUko Hegoa–Garapen eta Nazioarteko Lankidetzari buruzko Ikasketa Institutuko kidea da. Aktibista feminista eta El Salvadorreko gisa eskubideen urraketan biktima zibilen omenezko monumentuaren aldeko batzordearen sortzaileetako bat da (batzordeak herrialdeko memoria gune nagusia sustatu zuen).

aldatu dira, gelditasunetik arauen aurrerapena sustatzera, denboraldiaren arabera. Gaur egungo gobernuaren orientazioa segurtasun militarizatuko eredu bat indartzea da eta ez dago emakumeen gisa eskubideak indartzearen edo Emakumeen, Bakearen eta Segurtasunaren (EBS) agendaren ildoan.

Bigarrenik, 1325 Ebazpenaren –eta generoari, bakeari eta segurtasunari buruzko beste tresna batzuen– inguruan herrialdeko zenbait erakunde feminista erreferentek duten ezagutza, ikuspegiak eta erabilera aztertuko dugu. Halaber, nazioarteko lankidetzak 1325 Ebazpena eta EBS agenda sustatzeko izan beharko lukeen rolari buruzko balorazioak jasotzen dira. Horretarako, honako erakunde hauek parte hartu dute: *Asociación de Mujeres por la Dignidad y la Vida* (Las Dignas); *Asociación Mélida Anaya Montes* (Las Mélidas); *Organización de Mujeres Salvadoreñas por la Paz* (ORMUSA); *Instituto de Investigación, Capacitación y Desarrollo de la Mujer* (IMU) eta *Colectiva Feminista para el Desarrollo Local* (CFDL). Halaber, *Centro para la Promoción de los Derechos Humanos Madeleine Lagadec* (CPDH) erakundeak ere parte hartu du. Hura, giza eskubideen mugimenduko elkarte mistoa da eta, besteak beste, El Salvadorreko gatazka armatuko sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeak laguntzen ditu. Sei erakundeek *online* inkesta baten bitartez parte hartu dute eta Las Dignas elkartearen kasuan, elkarrizketa pertsonal bat egin zen zuzendariarekin<sup>2</sup>.

Erakunde horiek ibilbide eta gaitasun politiko handia dute emakumeen eskubideak defendatzeko lanean. Guztiek tokiko eta nazio mailan lan egiten dute, eta hiri zein landa sektoreetan. Honako hauek dira haien jarduketaren eremuak: emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea, lan-justizia eta autonomia ekonomikoa emakumeentzat, sexu eta ugalketa eskubideak, udalgintza eta genero-berdintasuna, emakumeen parte hartze politiko eta hiritarra, gorputzaren autonomia, ingurumen-justizia, agroekologia, gatazka armatuko biktimen memoria historikoa, gatazka armatuko sexu indarkeriaren biktima diren emakumeak artatzea, gerrako sarraski kolektiboengatik auzi-eskeak, giza eskubideen defendatzaile komunitarioak indartzea eta lurraldeko antolakuntza sendotzea.

Azkenik, 1325 Ebazpenak El Salvadorren izandako bilakaerari buruzko hausnarketa batzuk egiten ditugu, baita zenbait gomendio ere, batez ere nazioarteko lankidetzari zuzenduak.

## 2. Emakumeen, Bakearen eta Segurtasunaren nazioarteko agenda El Salvadorreko politika publikoetan: 1325 Ebazpenari buruzko Ekintza Plan Nazionala (2017-2022)

Emakumeei, Bakeari eta Segurtasunari buruzko 1325 Ebazpena onartu zenean, 2000. urtean, El Salvador Bake Akordioaren osteko trantsizioaren lehenengo hamarkadan zegoen. Akordioak gobernuak eta Askapen Nazionalerako Farabundo Martí Fronteak (FMLN) sinatu zituzten 1992an, gerra zibilean 12 urte eman ondoren (1980-1992). Nazioartean garrantzi handia zuen arren, 1325 Ebazpenak ez zuen eragin handia izan El Salvadorren eta gerra aurretik, gerran zehar eta gerra ostean gobernatu zuen eskuin tradizionalaren gobernuak ez zuten konpromiso garrantzitsurik hartu haren inguruan.

---

2 Erakunde horiei nire eskerrik onenak eman nahi dizkiet ikasketan parte hartzeko emandako denboragatik eta haien adeitasunagatik.

1325 Ebazpena sustatzeko lehenengo ahalegin nabarmena FMLNren gobernuan egin zen, 2009tik 2019ra bitartean. Hala, Kanpo Harremanetarako Ministerioaren bitartez, 2014an, 1325 Ebazpena Inplementatzeko Batzorde Nazionala eratu zen, honako hauek osatuta: Zuzendaritza Batzorde bat, Jarraipen Batzorde Tekniko bat eta Aholkularitza Batzorde Iraunkor bat. Politika publikoen arloan, hurrengo pauso garrantzitsua eta objektiboki nabarmena 1325 Ebazpenari buruzko Ekintza Plan Nazionala (EPN) sortzea izan zen (2017-2022). Pauso horrekin, El Salvador Erdialdeko Amerikako lehen herrialdea izan zen 1325 Ebazpenetik sortutako konpromisoak gauzatzeko tresna estrategikoa ezartzen.

## 2.1. Ikuspegia eta nazioarteko eta nazio-mailako erreferenteak

EPNaren edukia aztertzean haren orientazioaren zenbait alderdi nabarmendu behar ditugu. Lehenik, Planak modu esplizituan adierazten du giza segurtasuneko ikuspegi bat, “bizitzaren esfera desberdinetan eragiten duten, pertsonen eta komunitateen biziraupena, bizibideak eta duintasun arriskuan jartzen duten eta segurtasuna birpentsatzea eskatzen duten mehatxu orokorrak” azpimarratzen dituena. Hala, EPNak segurtasunaren ikuspegi integratzailea eta multidimentsionala hartzen du, giza segurtasuna “estatuaren segurtasuna osatzen, giza eskubideak finkatzen eta giza garapena sustatzen” duen ikuspegizat hartuz (El Salvadorreko Gobernua, 2017: 25).

Bigarrenik, Emakumeen, Bakearen eta Segurtasunaren agendaren inguruan onartutako ebazpen guztiak Estatuaren konpromisotzat hartzen ditu EPNak. Gainera, nazioarteko beste tresna batzuetara atxikitzen dela adierazten du, hala nola hauetara: CEDAW (1979) eta 30. Gomendio orokorra, gatazken prebentzioan eta gatazka-egoeretan eta gatazken ondoren emakumeek duten egoerari buruzkoa (2013); Nazioarteko Zigor Auzitegiaren Erromako Estatutua (1998), sexu eta genero delituak gizateriaren aurkako krimen, gerrako krimen eta genozidio krimen gisa identifikatzen dituena (1998); eta eskualde mailako tresnak, hala nola Emakumeen kontrako Indarkeria Prebenitzeko, Zigortzeko eta Ezabatzeko Amerikarteko Konbentzioa (Belém do Pará Konbentzioa) (1994).

Nazio mailako arauei dagokienez, EPNa honako lege eta plan hauek aipatzen ditu erreferentzia nagusi gisa: Emakumeek Indarkeriarik Gabeko Bizitza izan dezaten lortzeko Lege Integral Berezia (2010), Berdintasunari, Ekitateari eta Emakumeen kontrako Diskriminazioa Ezabatzeari buruzko Legea (2011), Berdintasun Plan Nazionala (2016-2020) eta bost urteko Garapen Plana (2014-2019). Zentzu horretan, nabarmentzekoa da EPNak nazioarteko konpromisoak eta generoari buruzko lege nazionalak bateratu beharraren berri ematen duela. Herrialdeko emakumeen mugimenduek ezinbesteko ekarpena egin dute lege horien formulazioan.

## 2.2. Lehentasunak eta ezarritako neurriak

El Salvadorreko estatuak hiru jarduketaren eremu nagusi ezartzen ditu EPNan. Lehena, genero-ikuspegia segurtasunaren sektorean txertatzeari dagokio, emakumeek segurtasun zerbitzuetan sartzeko dituzten oztopoak gainditzeko neurriak garatuz. Bigarren eremua oraintsuko gatazkaren zorrei dagokio. Horrek honako hauek hartzen ditu: giza eskubideen urraketa larrien biktimei erreparazioa eskaintzea, desagertutako pertsonen kasuak ikertzea, Estatuak justizia ematea eta memoria historikoko ekintza sustatzea, emakumeek bakearen eraikuntzan duten eginkizuna nabarmenduz.

Azkenik, hirugarren jarduketa-eremua herrialdeko indarkeria sozialeko eta herritarren segurtasun ezeko egoerari dagokio, eta horrek emakumeengan eta neskenengan duen eragin bereziaren aurrean babesteko neurriak ezarri beharri ere.

Planak ezartzen dituen hiru lehentasun horiek lau jarduketa-ardatz hauen bitartez garatzen dira: parte-hartzea, prebentzioa, babesak, eta erreparazioa eta eskubideak leheneratzea, 1325 Ebazpenaren eta ondorengo enbukiarekin bat. Gainera, Planak bosgarren ardatza bat gehitzen du, hots, 1315 Ebazpenaren inplementazio-prozesua indartzea. Hala, horiek gauzatzeko estrategiak eta egitura arduradunak ezartzen ditu.

2014ko apiriletik 2020ko azarora bitartean, El Salvadorreko Estatuak kontuak emateko hiru dokumentu hauek aurkeztu ditu nazioarteko foroetan, Emakumeen, Bakearen eta Segurtasunaren agendari buruzko neurrien aplikazio-mailari buruzkoak: Pekineko Adierazpenaren eta Ekintza Plataformaren (1995) Aplikazio Txostena eta Batzar Nagusiaren ezohiko hogeita hirugarren bilkura-aldiaren (2000) emaitzak, ISDEMU emakumearen garapenerako institutuak egina; “Emakumeak, Bakea eta Segurtasuna” 1325 Ebazpenaren inplementazioari buruzko Txostena, Kanpo Harremanetarako Ministerioak egina (El Salvadorreko Gobernuak, 2019); eta Nazio Batuen aurrean El Salvadorrek duen ordezkari iraunkoraren Adierazpena, Segurtasun Kontseiluaren “Emakumeak, bakea eta segurtasuna” Konferentziaren esparruan (2020).

Oro har, hiru dokumentuek antzeko edukiak lantzen dituzte eta honela laburbil daitezke. Lehenik, poliziarekin eta Armadarekin egindako hainbat ekintza biltzen dituzte, hala nola 1325 Ebazpenaren edukia ezagutzera emateko sentsibilizazio-programak edo Nazio Batuen bakea mantentzeko operazioetan parte hartzen dutenei zuzendutako prestakuntza-programak<sup>3</sup>. Gainera, Armadako emakumeekin jarduera sinbolikoak garatu dituzte, hala nola haien leialtasunaren eta profesionaltasunaren aintzatespen publikoak; Armada eta ISDEMUren arteko lankidetzak-jarduerak, eta Polizia Nazional Zibilarrekin emakume agenteen eskubideak sustatzeko jarduerak. Bigarrenik, gobernuaren aipatutako txostenek gizarte zibilarrekin eta emakume borrokalari ohiekin egindako ekintzak aipatzen dituzte; adibidez, gatazka armatuaren biktimei arreta psikosoziala ematea, emakumeei memoria historiakoaren alde eta bake-prozesua finkatzeko egindako lana eskertzea, eta gerrako emakume beteranoei osasun arreta ematea.

Beraz, aurrerapenaren txostenek erakusten dute, alde batetik, erakunde militar eta polizialekin egindako ekintzak; eta, bestetik, gizarte zibileko sektoreekin egindako ekintzak, batez ere emakume biktimekin, memoria historikoaren arloko aktibistekin eta borrokalari ohiekin. EPNak aipatzen du emakumeen mugimenduko erakundeek parte-hartze garrantzitsua izan zutela haren lanketan, baina Planaren gauzatzeko-mailaren inguruan kontuak emateko txosten publikoetan mugimendu horren edo haren iritzien aipamenak oso urriak edo lausoak dira.

Gaur egun, Nayib Bukeleren gobernuak segurtasun militarizatuko neurriak areagotu ditu, Armadako soldadu kopurua eta instituzio horren aurrekontua handituz. Izan ere, hura % 53,4 handitu da 2016tik 2020ra bitartean (Espinosa, 2021). Gainera, gobernuak gero eta garrantzi handiagoa eman dio Armadari segurtasun publikoko eginkizunetan, “militarren polizializazio” prozesu batean

---

3 2022ko otsailera arte, El Salvadorrek 237 lagun –218 gizon eta 19 emakume– bidaltzen zituen Nazio Batuen bake misioetara, hain zuzen, hauetara: MINURSO, MINUSMA, UNIFIL, UNMISS eta UNVMG. Ikus: <https://peacekeeping.un.org/es>

sakonduz, segurtasun publikoan aditua den Jeannette Aguilarren hitzetan (Aguilar, 2021: 74)<sup>4</sup>. Joera biak Bake Akordioen kontrakoak dira eta egoera kezagarria sortzen dute giza eskubideen erakundeen eta emakumeen mugimenduaren ikuspegitik. Segurtasunari buruzko ikuspegi ofizialista EPNan jasotako giza segurtasunaren ikuspegitik eta emakumeen eta giza eskubideen mugimenduek zuzenbide estatua eta herrialdeko demokrazia ahula sendotzeko proposatzen duten segurtasun-ikuspegi zabal eta integraletik aldentzen da.

### 3. El Salvadorreko emakumeen erakundeak 1325 Ebazpenaren aurrean

#### 3.1. Eraginik ez edo gutxi gerraostean

Gerraren ostean, 1990ko hamarkada herrialdeko erakunde feministak finkatzeko eta indartzeko aldia izan zen. Zenbait aurreko hamarkadetan sortuak ziren eta beste zenbait berriak. Gerraostean, erakunde horiek beren lan agendak (ber)egituratu zituzten, Bake Akordioen ostean, aldaketa ekonomikoak baino gehiago, aldaketa politiko-instituzionalak izan ziren egoera batean<sup>5</sup>.

1325 Ebazpena 2000. urtean onartzeak ez zuen eragin handirik izan El Salvadorreko mugimendu feministan, urte batzuk lehenago El Cairoko Biztanleriari eta Garapenari buruzko Konferentziak (1994) eta, batez ere, Pekineko Emakumeei buruzko IV. Mundu Konferentziak (1995) izan zutena ez bezala. 1990ko hamarkadan, dinamismo handia izan zen kolektibo feministetan; izan ere, nazioarteko testuinguruari erantzunez, honako gai hauen inguruan batu zituzten beren ahaleginik handienak: generoko diskriminazioak eta indarkeriak salatzea, zeuden desparekotasunak ezabatzeko politika publikoak sortzea eta emakumeek politikan parte hartzea. Feministen adostasun horren bi lorpen garrantzitsu izan ziren '94 Emakumeen Plataforma, hauteskundeetara aurkezten ziren alderdiei helarazteko eskaera multzoa jaso zuena (lehenengo hauteskundeak Bake Akordioen ostean), eta 1996an lehenengo Emakumearen Politika Nazionala onartzea, erakunde feministek gogoz bilatu zutena.

Hala, gerraostean, El Salvadorreko emakumeen mugimenduak aurrerapen garrantzitsuak sustatu ditu genero-berdintasunerako politika publikoaren formulazioan eta genero-indarkeriari buruzko lege nazionaletan, nahiz eta Estatuak oso modu eskasean inplementatu dituen. Aurrerapen horietan, 1325 Ebazpenak eta Emakumeen, Bakearen eta Segurtasunaren agendak ez dute eragin handia izan mugimenduaren diskurtsoetan eta estrategietan.

Beste alde batetik, giza eskubideen erakundeek eta, bereziki, gatazka armatuan hildako edo desagertutako pertsonen Amen eta Senideen Batzordeek, 1990ko eta 2000ko hamarkadak, oinarritzko ekintzak egiten eman zituzten, “marjinal”tzat hartzen den politikatik (Guzmán Orellana eta Mendia Azkue, 2013). Erakunde horiek gerra osteko bizikidetzaren oinarrian zegoen zigorgabetasuna zalantzan jarri zuten; izan ere, 1993an Amnistia Orokorreko Dekretu bat inposatu zen eta herrialdean –batez ere Estatuak– egindako gerrako krimenak eta gizateriaren aurkako

---

4 Bukele presidentea, 2021eko uztailako txio baten bitartez, soldaduen kopurua 20.000tik 40.000ra handituko dituela iragarri zuen, Polizia Nazional Zibilarekin lan egin dezaten.

5 El Salvadorreko emakumeen mugimenduaren jatorriari, bilakaerari eta agendei buruzko ikerketa baterako, ikus: Herrera et al. (2008), Navas (1985, 2007 eta 2012) eta Mendia Azkue (2014).

krimenak ahazteko politika garatu zen. Testuinguru horretan ere, giza eskubideen erakundeek ez zuten hasiera batean ikusi 1325 Ebazpenak beren lanerako baliabide izan zitekeenik.

2014an, Candelaria Navas ikertzaile feministak, 1325 Ebazpenak El Salvadorren zuen egoerari buruzko ikerketa batean, horren inplementazioan aurkitutako zenbait oztopo aipatu zituen: a) orokorrean, Ebazpena ezaguna ez izatea, erakunde arduradunak modu eskasean zabaldu eta aplikatu zutelako; b) Bake Akordioarekiko (1992) desfase kronologikoa, eta gerratik bakerako trantsizioaren ikuspegi mekanikoa, bakerako eta demokraziarako baldintzak sortzeko benetako inplikaziorik hartu gabe; c) 1325 Ebazpena gatazka armatuan zeuden herrialdeetarako zelako ideia; izan ere, El Salvadorren gatazka gaudituta zegoenez, Ebazpena dinamizatzeko eta aplikatzeko ardura zuten erakundeek ez zuten konpromisorik hartu; d) elkarrengandik urruntzen ziren segurtasun ikuspegiak eta agendak, gobernuari eta emakumeen erakundeek dagokienez; e) Nazio Batuen sistemaren egituraren eta El Salvadorreko Estatuak erakundearen arteko antolakuntza eskasa; eta f) gerrak emakumeengan eragiten zituen kalteei buruzko azterketa kritikorik eza<sup>6</sup> (Navas, 2014: 14-15).

Aipatutako faktoreez gain, 1990ko hamarkadan, planteamendu kritikoak indarrez sortu ziren latinoamerikar feminismoaren zenbait sektoreetatik, hala nola feminismo autonomotik. Harentzat, mugimendu feminista instituzionalizatzeko praktikek haren agendaren despolitizazioa ekartzen zuten. Ildo kritiko horretan ere, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak egindako Ebazpenaren izaera politikoa eta eraldatzailea zalantzan jarri zen. Izan ere, organismo horretan AEBek parte hartzen zuten, beto eskubidearekin ere, eta herrialde horrek matxinaden aurkako historial argia zuen Latinoamerikan eta Estatuaren alde esku hartu zuen El Salvadorreko gerran, laguntza militar eta ekonomikoa emanez.

### 3.2. Gaur egungo jarrerak

Ikusi dugun bezala, Estatuak 1325 Ebazpena aintzat hartzeko lehenengo pausoak ez ziren 2014ra arte izan, eta lehenengo Ekintza Plan Nazionala 2017an onartu zen. Dekretuen bitartez egindako pausoak dira, FMLNren gobernuaren bigarren legegintzaldian, eta une horretan mugimendu feministako zenbait erakunderen parte-hartze handia izan zuten.

Gaur egun, ikerketa honetan inkestatutako erakundeek 1325 Ebazpena oso ondo ezagutzen dutela eta beren lanerako tresna nahiko edo oso erabilgarria dela adierazten dute. Halaber, Ekintza Plan Nazionalaren berri dute eta erakundearen erdiak dio hura egiteko prozesuan parte hartu zutela, 1325 Ebazpenaren Batzordearen bitartez eta prozesuan zehar egindako batzarretan, edo EBS agendaren jarduketan oinarriekin lotutako ekintzetan, hala nola prestakuntzan eta 1325 Ebazpenaren zabalkundearen; indarkeriaren biktimei arreta ematen; funtzionarioei generoari eta maskulinitatei buruzko prestakuntza emanez; eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko, emakumeek erabakitzearen eremuetan parte har dezaten sustatzeko, haien oinarriko eskubideak babesteko eta haien premiak indarkeriaren biktimei arreta emateko eta sendatzeko mekanismoetan integratzeko osagaiak ekarpenak eginez.

---

6 Mugimendu feministak zenbait lan garrantzitsu egin zituen gerrak emakumeengan duen eraginari buruz. Adibidez, Las Dignas elkarteak ikerketa ezagun hau sustatu zuen: *Mujeres-Montaña. Vivencias de guerrilleras y colaboradoras del FMLN* (Vázquez, Ibáñez eta Murguialday, 1996).

Galdetutako erakunde guztiek diotenez, 1325 Ebazpenaz gain, EBS agendarekin egiten duten lanean nazioarteko eta nazioko beste tresna batzuk ere erabiltzen dituzte erreferentzia-esparru gisa (ikus 1. taula).

<b>1. taula.</b> <b>El Salvadorreko erakunde feministen erreferentzia-tresnak emakumeen, bakearen eta segurtasunaren arloan</b>	
<b>Nazioarteko maila</b>	
Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala Emakumeen Kontrako Diskriminazio Era Guztiak Ezabatzeko Konbentzioa (CEDAW), eta haren 30. gomendio orokorra. Pertsona guztiak desagertze behartuaren aurrean babesteko nazioarteko Konbentzioa 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH) Nazio Batuen Segurtasun kontseiluaren 1820, 1888, 1889, 1969, 2106 eta 2242 Ebazpenak	
<b>Eskualde maila</b>	
Emakumeen kontrako Indarkeria Prebenitzeko, Zigortzeko eta Ezabatzeko Amerikarteko Konbentzioa (Belém Do Pará Konbentzioa)	
<b>Estatu maila</b>	
Indarkeriarik gabeko bizitza baterako Lege Nazionala Ekitate eta berdintasun Lege Nazionala Genero Berdintasunerako eta Ekitaterako Politika Instituzionala	

Iturria: egilea.

Gobernuak EBS agenda El Salvadorren garatzeko duen eginkizunari dagokionez, zenbait erakunde feministen ustez, erakunde publiko nazionalak eta tokikoek bai lagundu dute, neurri batean, EPNaren inplementazioa. Beste batzuen ustez, ordea, erakundeak ez dira horiek aurrera eramateko inplikatzan.

2019tik, Nuevas Ideas alderdiko Nayib Bukele lehendakari bilakatu zenean, zalantzak sortu dira EPNarekiko konpromiso instituzionala mantentzearen inguruan, izan ere: a) gobernuak erakunde berri gisa aurkezten du bere burua, aurreko gobernuaren politikekin bereizketa gogorra egiten duen kontakizun batekin; b) gobernuaren eta giza eskubideen, emakumeen eta ekologisten mugimenduko erakundeen eta hedabide independenteen arteko harremana tirabiratsua da, garai horretan gobernuak gizarte zibileko erakundeak kriminalizatzen dituen neurriak onartu berri dituelako; c) Biltzar Legegile berriak, gobernuan dagoen alderdi beraren gehiengoarekin, giza eskubideen erabileran aurrera egiteko helburua zuten zenbait lege-proiektu artxibatu zituen 2021ko maiatzean, hala nola trans pertsonen genero-identitatearen aintzatespen legala, abortuaren despenalizazioa<sup>7</sup> edo

7 Emakume haurdunaren bizitza eta osasuna arriskuan dauden kasuetan, sexu-indarkeriako kasuetan edo fetuak bizitzarekin bateragarriak ez diren malformazioak dituenen.



ura ondasun publiko gisa izateko eskubidea. Lege horiek egiteko denbora luzez parte hartu zuten hainbat gizarte kolektibok, batez ere LGTBI kolektiboek, kolektibo feministek eta ekologistek, hurrenez hurren.

### 3.3. Nazioarteko lankidetzak 1325 Ebazpena sustatzeko duen eginkizunari buruzko ikuspegiak

Erakunde feministek, giza eskubideen erakundeek eta gizarte mugimenduko beste kolektibo batzuek, orokorrean, harreman luzea izan dute elkartasun eta nazioarteko lankidetzaren erakundeekin. Hori da, hain zuzen ere, ikerketa honetan elkarrizketatutako erakundeen kasua. Horiek, bada, Europako, Ipar Amerikako (AEBak eta Kanada), Latinoamerikako eta alderdi anitzeko lankidetzarekin lan egin dute.

El Salvadorrekiko euskal elkartasuna eta lankidetzaren oso garrantzitsua izan da, gatazka armatuan zehar eta haren ondoren. Gaur egun, euskal lankidetzaren GGKEek eta erakunde publikoek elkartasuneko eta finantza-lankidetzako harreman estuak dituzte El Salvadorrekin. Izan ere, hura da euskal lankidetzaren gehien duen bigarren herrialdea Erdialdeko Amerikan, Guatemalaren atzetik. 2016tik 2021era bitartean, euskal lankidetzak, batez beste, 40 jarduera izan zituen urtean El Salvadorren, 22 milioi euro baino gehiagoko finantzamendua emanez<sup>8</sup>. El Salvadorreko gizarte erakundeen ustez, euskal lankidetzak politikoki hitz egiteko aukera ematen du eta, orokorrean, ulertzen du injustiziarik aurre egiteko eta eraldaketa sozio-ekonomikoak lortzeko gizarte erakundeak derrigorrez indartu beharra dagoela. Esparru horretan, euskal lankidetzak mugimendu feminista eta giza eskubideen ikuspegia babesten ditu (Guzmán Orellana, 2021).

1325 Ebazpenari dagokionez, El Salvadorren, nazioarteko lankidetzak horren ezagutza eta erabilera sustatu beharko lukeela adierazten dute galdetutako erakunde guztiek, eta zenbait helburu planteatzen dituzte, zeinetan lankidetzak eginkizun garrantzitsua izan dezakeen (ikus 2. taula).

---

8 Honako hauek izan dira euskal lankidetzak El Salvadorrera bideratutako diru kopuruak 2106-2021 aldian: 3.447.590 euro 2016an, 4.231.914 euro 2017an, 3.503.653 euro 2018an, 3.619.465 euro 2019an, 2.776.183 euro 2020an eta 4.467.677 euro 2021ean. Ikus Euskal Lankidetzaren Publikoaren Ataria hemen: <https://euskalankidetzaren.hegoa.ehu.es/>

2. taula. Erakunde feministen ikuspegia nazioarteko lankidetzak 1325 Ebazpena El Salvadorren inplementatzeko duen ahalmenari buruz
Gatazka biolentoko testuinguruetan emakumeen pairatzen dituzten ondorioak bistaratzea
Estatuak hartutako nazioarteko konpromisoak azpimarratzea
Indarkeriak eragindako kalteak erreparatzen laguntzea
Prebentzioko eta babesa eta arreta emateko neurriak laguntzea, herritarren segurtasunik ezeko testuinguru batean emakumeen, nesken eta talde kalteberen aurkako indarkeria ematen den kasuetan
Emakumeek bakeari eta segurtasunari buruz erabakitzeko eremuetan parte har dezaten sustatzea
Erakunde publikoekin berdintasunaren alde egiten den lana erraztea
Segurtasun planetan genero-ikuspegitik esku hartzea
Emakumeek gatazkan izandako parte-hartzearen aintzatespena eta memoria historikoa laguntzea
Ebazpena ezagutzera ematea, haren eta bere erabilgarritasunaren inguruan ezjakintasun handia baitago
Memoria kolektiboa eraikitzeko prozesuak indartzea
Lurraldeetan emakumeen eskubideen alde eragiteko lana laguntzea
Giza eskubideen defendatzaileen gaitasunak indartzen laguntzea
Emakumeen aldeko lege nazionalak eta eskualde mailakoak garatzen laguntzea
Emakumeen giza eskubideak hobeto ulertuak izan daitezen laguntzea
Ekintza Plan Nazionala aplikatzeko lan egitea
Gerrako emakume beteranoen egoera eta eskubideak bistaratzea
Emakumeek bakeari eta segurtasunari egindako ekarpena aintzat hartua izan dadin sustatzea

Iturria: egilea.

Nazioarteko lankidetzatik 1325 Ebazpenari lotutako lana bultzatzeko moduei dagokienez, galdetutako erakundeen ustez, hori gizarte zibileko erakundeak politikoki eta finantzatuz laguntzera bideratu behar da. Hona hemen iritzietako batzuk: “erakundeak lagundu beharko lituzke, horiek hainbat estrategia eta ikuspegi eraldatzaileak dituzte gizarte mugimenduan indartzeko” eta “garrantzitsua da emakumeen hitza aintzat hartzea, horiek kaltetuenak izaten baitira gatazka testuinguruetan eta gizarte eta ingurumen hondamendietan. Gainera jazarriak eta kriminalizatuak izaten dira beren eskubideak eta naturarenak babesteagatik”. Zentzu horretan, erakundeek nazioarteko lankidetzak 1325 Ebazpenaren inplementazio laguntzeko zenbait ekintza zehazten dituzte (ikus 3. taula).

3. taula. Erakunde feministek nazioarteko lankidetzari iradokitako ekintzak 1325 Ebazpena El Salvadorren inplementatzen laguntzeko
Erakundeen lanaren gaien ikerketa indartzea, kasu honetan 1325 Ebazpenaren inplementazioari dagokiona
Gobernuak estatuko eta nazioarteko obligazioak betetzeko mailaren jarraipena eta ebaluazioa
Iraganeko eta oraingo indarkeriek gehien kaltetutako gizarte taldeak indartzea
Bakearen eta generoaren arloko praktika onak eta ahalegin efektiboak partekatzea
Emakumeen prestakuntza politikoa eta antolakuntza sendotzea
1325 Ebazpenaren edukia ezagutzera emateko kanpainak
Emakumeek bakeari eta segurtasunari egindako ekarpenari buruzko eztabaidak sustatzea
Memoria historikoa berreskuratzea
Gerrako Emakume Beteranoen Elkarteak laguntzea
Herrialde desberdinetako emakume borrokalari ohien arteko harremanak sustatzea, gatazka osteko prozesuetan haien eskubideen aldeko borroak ezagutzeko.

Iturria: egilea.

#### 4. Ondorioak eta gomendioak

Lehenik, EL Salvadorreko Estatuak 1325 Ebazpenarekin duen konpromisoaren unerik argiena 2017. urtean izan zen, “Emakumeak, Bakea eta Segurtasuna” Ekintza Plan Nazionala (2012-2022) egitean eta onartzean. Une horretan, El Salvador bake eta segurtasun gaietan genero-ikuspegidun politikak sustatzeko plan estrategiko bat zuen lehen herrialdea izan zen Erdialdeko Amerikan.

El Salvadorreko EPNa estatuaren segurtasun-ikuspegi klasikoari giza segurtasun ikuspegi gehitzen dion politika publikoko tresna da, eta iraganeko eta oraingo indarkeria ikuspegi integratzaile eta multidimentsional batetik landu beharra dagoela adierazten du. Gainera, EPNak aintzat hartzen du El Salvadorrek Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak Emakumei, Bakeari eta Segurtasunari buruz onartutako ebazpen guztiekin duen konpromisoa, ez 1325 Ebazpenarekin bakarrik, baita ebazpen horiek herrialdeko genero-berdintasuneko arauekin duten koherentzia eta osagarritasuna ere. EPNaren inplementazioaren balantzeari dagokionez, desoreka bat hauteman daiteke gobernuak Armadaren eta Polizia Nazional Zibilaren lanari emandako zentraltasunaren (batez ere emakume gehiago sartzeko eta erakunde horietan genero-prestakuntzak egiteko) eta trantsizioko justiziako eta biktimen eskubideak bermatzeko gaien artean. Adibidez, biktimen eta giza eskubideen mugimenduak Estatuari egindako eskaera nagusietako bat da Trantsizioko Justiziako Lege Berezi bat onartzea herrialdeko gatazka armatuan izandako giza eskubideen urraketa larrien biktimentzat. Alabaina, gobernuak entzungor egin dio proposamenari eta erantzun instituzional birbiktimizatzaileak ere izan dira.

Bigarrenik, gerraostean zehar eta 1325 Ebazpena onartu aurretik, El Salvadorreko emakumeen eta feministen mugimendua agenda sozial eta politiko indartsu baten eragilea izan da, botere patriarkaleko sistema zalantzan jartzen zuena eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko, horren aurrean babesteko eta sendatzeko eta haien parte-hartze politikoa sustatzeko ekintzak burutu dituena. Hala ere, hasiera batean, 1325 Ebazpenak ez zuen garrantzirik izan herrialdean, ez mugimendu feministarentzat ez giza eskubideen mugimenduarentzat. Hainbat urte geroago, gizarte mugimenduen eta FMLNren gobernuaren arteko zenbait elkarrizketa eremu zabaltzearekin batera, eta indarkeriari eta segurtasunari buruzko zenbait ikuspegirekin bat zetozela ikusita, emakumeen erakundeek indarrean dagoen EPNa egiteko parte hartu zuten.

Ikerketa honetan galdetutako erakundeek argi dute genero-berdintasunerako nazioarteko tresnen aurrerapen guztiak mugimendu feministaren borroka batzearen emaitza direla; 1325 Ebazpena ere. Haien lanaren erreferente nagusia ez bada ere, erakundeek uste dute Ebazpenak haien lana indartzeko ahalmen handia duela, aipatutako arlo hauetan: parte-hartzea, prebentzioa, babesa eta erreparazioa.

Herrialdeko botere betearazle, legegile eta judizialean izandako aldaketen eraginez mugimendu feministaren eta gobernuaren arteko harremanaren dinamika aldatu dela ematen du, hortaz, EPNa inplementatzeko elkarrizketazalantzarria da. Azken urteotan, El Salvadorreko segurtasun publikoko politikek Armadaren tamaina eta garrantzia handitu dute. Soldaduen kopurua, aurrekontua eta segurtasun publikoko eginkizunak handitu dira, “zorroztasun” politika autoritarioen esparruan eta Bake Akordioaren esparruaren eta edukiaren aurka. Gainera, El Salvadorreko eta nazioarteko mugimendu feministak aspalditik salatu duen bezala, gizarte militarizatu bat balio patriarkalen eta indarkeria maila altuagoen haztegia da, batez ere emakumeen eta LGTBI taldeen aurkako indarkeria. Gaur egun, herrialdeko instituzionaltasun demokratikoaren eta Zuzenbide Estatuaren atzerapausoak gizarte mugimenduen kezka nagusietako bat da, horien artean feministarena eta egoera hori salatzen duten erakundeena ere, gero eta errepresio ekintza gehiago pairatzen baitituzte.

Galdetutako erakunde feministentzat, beharrezkoa da nazioarteko lankidetzak gizarte zibilaren gaitasunak indartzea hainbat ekintzetan, hala nola politika publikoen jarraipen eta ebaluazioan, ikerketan, memoria historikoa leheneratzean, iraganeko eta oraingo indarkeriek kaltetutako taldeen –batez ere emakumeen– prestakuntzan eta bide-laguntzan. Nazioarteko lankidetzak “gatazkarekiko sentikortasun” ikuspegi bat hartzeaz eta herrialdeak bakearen eraikuntzan eta trantsizioa justizian dituen erronkekin konprometitzeaz ari gara, horien artean emakumeen eskubideekiko zorrarekin.

Ikerketan parte hartu duten erakundeek ustez, nazioarteko lankidetzak 1325 Ebazpena sustatzeko eginkizun garrantzitsua hartu beharko luke, adibidez: gatazka armatuak emakumeengan eragindako kalteak bistaratzea eta horiek erreparatzen laguntzea; giza eskubideen defendatzaileen gaitasunak eta memoria historikoko lana indartzea; eta emakumeen eskubideak babesteko lege-esparrua garatzen laguntzea. Azken horri buruz, maizegi, 1325 bezalako Ebazpenek eta genero berdintasun eta justiziarantz ibiltzeko ahalmena duten beste batzuek ere, lurraldeetako prozesu sozialetatik oso urrun geratzen dira, eta horietan hautematen da hoberen formalki ezarritakoaren eta benetako aplikazioaren arteko arrakala. Zentzu horretan, El Salvadorren lan egiten duen nazioarteko lankidetzak lagun zezakeen generoari, bakeari eta segurtasunari buruzko nazioarteko arau esparruari zentzu eta erabilera zehatza ematen. Gainera, beharrezkoa da lankidetzak kritikoa izatea segurtasun ikuspegi militarista eta autoritarioen aurrean, horiek azken urteetan herrialdean ugaritu diren “zorroztasun” politiken barnean baitaude.

Azkenik, ez du ematen giza eskubideen erakundeek (orokorrean mistoak) haien salaketa publikoetan 1325 Ebazpenaren eta EBS agendaren esparrua erabiltzen ari direnik, kasu askotan, haren edukia edo genero eta trantsizioko justizia gaietan duen ahalmena ezagutzen ez dutelako. Zentzu horretan, nazioarteko lankidetzak hura zabaltzen eta feministen eta giza eskubideen erakundeen arteko aliantzak sortzen lagun zezakeen, genero-ikuspegidun egiaren, justiziaren, erreparazioaren eta ez erreplikatzeko bermeen agendan indarrak batu ditzaten.

## 5. Bibliografia

Aguilar, Jeannette (2016): “El rol del ejército en la seguridad interna en El Salvador: lo excepcional convertido en permanente”. In Argueta, Lorena (koord.): *Reconceptualización de la violencia en el Triángulo Norte. Abordaje de la seguridad en los países del norte de Centroamérica desde una visión democrática*, Heinrich Böll Fundazioa: Mexiko, Ertamerika eta Karibe, 61-83.

<https://mx.boell.org/index.php/es/2016/06/28/re-conceptualizacion-de-la-violencia-en-el-triangulo-norte>

Benítez, Beatriz (2022): “La FFAA de Bukele goza del mayor presupuesto desde los Acuerdos de Paz”. *Gato Encerrado*, urtarrilak 15.

<https://gatoencerrado.news/2022/01/15/la-fuerza-armada-de-bukele-goza-del-mayor-presupuesto-desde-los-acuerdos-de-paz/>

CEDAW (1979): *Emakumeen Kontrako Diskriminazio Era Guztiak Ezabatzeko Konbentzioa*, Al RES/34/180. <https://www.refworld.org.es/publisher/CEDAW.Html>

CEDAW Batzordea (2013): *30. Gomendio orokorra, gatazken prebentzioan eta gatazka-egoeretan eta gatazken ondoren emakumeek duten egoerari buruzkoa*.

<https://www.refworld.org.es/docid/52d9026f4.html>

El Salvadorreko Gobernuak (2019): *Informe sobre la implementación de la Resolución 1325 “Mujeres, Paz y Seguridad” del Consejo de Seguridad*, Kanpo Arazoetarako Ministerioa, abendua, San Salvador, El Salvador.

– (2017): *Plan de Acción Nacional “Mujeres, Paz y Seguridad” (2017-2022)*, Kanpo Arazoetarako Ministerioa, ekaina, San Salvador, El Salvador.

Espinosa, Claudia (2021): Presupuesto de la FAES subió un 53,4% en el último quinquenio”, *La Prensa Gráfica*, 22 de agosto.

<https://www.laprensagrafica.com/elsalvador/Presupuesto-de-la-FAES-subio-un-53.4-en-el-ultimo-quinquenio-20210821-0062.html>

Guzmán Orellana, Gloria (2021): *Reflexiones sobre la cooperación vasca desde la perspectiva de sujetos políticos del Sur*. Euskadiko GGKE Koordinakundea.

[https://www.ongdeuskadi.org/es/de\\_interes/eventos\\_details.php?id\\_eve=4547](https://www.ongdeuskadi.org/es/de_interes/eventos_details.php?id_eve=4547)

Guzmán Orellana, Gloria eta Irantzu Mendia Azkue (2013): *Mujeres con memoria: activistas del movimiento de derechos humanos en El Salvador*, Hegoa Institutua, Bilbo.

<https://publicaciones.hegoa.ehu.es/publications/292>

Hegoa (2020): Generoko Adierazle-Sistemaren proposamena, bakearen, giza eskubideen eta memoriaren euskal politika publikoak diseinatu eta haien jarraipena egiteko. Hegoa Institutua, Bilbo. <https://publicaciones.hegoa.ehu.es/es/publications/450>

Herrera, Morena Soledad et al. (2008): *Movimiento de Mujeres en El Salvador 1995-2006: Estrategias y miradas desde el feminismo*, Fundación Nacional para el Desarrollo (FUNDE), San Salvador, El Salvador.

ISDEMU (2014): *Informe Aplicación de la Declaración y Plataforma de Acción de Beijing (1995) y los resultados del vigésimo tercer período extraordinario de sesiones de la Asamblea General (2000)*, Instituto Salvadoreño para el Desarrollo de la Mujer, apirilak 30.

Mendia Azkue, Irantzu (2014): *La división sexual del trabajo por la paz. Género y rehabilitación posbélica en El Salvador y Bosnia-Herzegovina*, Tecnos, Madril.

MZC (2013): *Construcción de indicadores de género. Monitorizando la Resolución 1325 de la ONU*, Mujeres en Zona de Conflicto, Kordoba.

Navas, María Candelaria (2014): “Estudio sobre estado de la R1325 en El Salvador”. In Hainbat egile: *Memoria del Foro Internacional: Mujeres, participación política y procesos de paz: experiencias de Colombia, El Salvador y Guatemala a la luz de la Resolución 1325*, Bogota, Kolonbia, irailak 17 eta 18, 14-15.

<https://docplayer.es/14903444-Mujeres-participacion-politica-y-procesos-de-paz.html>

– (2012): *Sufragismo y feminismo. Visibilizando el protagonismo de las mujeres salvadoreñas*, Ikerketa Zientifikoen Kontseilua, El Salvadorreko Unibertsitatea (UES).

– (2007): “De guerrilleras a feministas: origen de las organizaciones de mujeres en el posconflicto en El Salvador: 1992-1995”, *II Encuentro Nacional de Historia*, uztailak 16tik 20ra, San Salvador, El Salvador. [https://cedema.org/digital\\_items/3773](https://cedema.org/digital_items/3773)

– (1985): “Los movimientos femeninos en Centro América: 1970-1983”, en Camacho, Daniel (konp.): *Movimientos populares en Centro América*, Editorial Universitaria Centroamericana, San Jose, Costa Rica.

Vázquez, Norma, Ibáñez, Cristina eta Clara Murguialday (1996): *Mujeres-Montaña. Vivencias de guerrilleras y colaboradoras del FMLN*, Horas y horas Editoriala, Madril (lehenengo edizioa).

## VI. 1325 Ebazpena eta Kolonbiako bake-prozesua

---

Yulia Serkezyuk<sup>1</sup>

### 1. Sarrera

Kolonbian, 90eko hamarkadatik, emakumeen eta feministen erakundeek ahalegin handiak egin dituzte gatazka armatuko genero-desparekotasunak bistartzeko. 2000ko hamarkadaz geroztik, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak onartutako 1325 Ebazpenak eta ondorengo beste batzuek Emakumeen, Bakearen eta Segurtasunaren (EBS) nazioarteko agenda garatu dute eta genero-ikuspegia analisietan eta bakegintza jardueretan txertatzeko esparru lagungarri bat eman diote mugimenduari. Azken urteetan, nazioarteko lankidetzak gero eta eginkizun handiagoa izan du; gizarte zibil antolatuekin eta, zehazki, emakumeen mugimenduekin antolatuta, 1325 Ebazpena ezagutzera emateko eta sustatzeko helburuz. Hala ere, Kolonbiako Estatuak EBS agendarekin duen konpromisoa ez dirudi oso sendoa, izan ere, horrek garrantzi gutxi du gatazka armatuarekin lotutako arauetan eta politika publikoan, Bake Akordioaren generoko neurriak ez doaz aurrera eta ez dago 1325 Ebazpenari buruzko Ekintza Plan Nazionalik herrialdean.

Kapitulu honen helburua 1325 Ebazpenak Kolonbian duen aplikazioa aztertzea da, emakumeen eta feministen erakundeek haren erabilgarritasunari eta nazioarteko lankidetzak EBS agenda bake-prozesuan inplementatzeko duen eginkizunari buruzko ikuspegia kontuan hartuta.

Lan hau egiteko, honako dokumentazio hau erabili dugu: 1325 Koalizioak idatzitako zazpi txostenak, Bake Akordioa baino lehen Ebazpena Kolonbiako legedian sartzeari buruzkoak, eta Akordioaren ondorengo txosten bat, Ebazpenaren 20. urteurrenean argitaratua; eta Generoa Bakean Taldeak (GPAZ) orain arte argitaratutako hiru txostenak: 2018koa, arauen aurrerapena aztertzen

---

1 Doktoretza aurreko ikertzailea Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Hegoa–Nazioarteko Lankidetzari eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutuan, euskal unibertsitate sistemako (IT434-22) Giza Segurtasunari, Tokiko Giza Garapenari eta Nazioarteko Lankidetzari buruzko Ikerketa Taldearen (2022-2025) esparruan. Bere doktore-tesian, Kolonbiako trantsizio justizia mekanismoetan genero-ikuspegia txertatzeko erakunde feministen diskurtsoa eta agenda aztertzen ditu. Bere ikerketa-gai nagusiak honako hauek dira: bakearen eraikuntza, gizarte justizia gatazka osteko testuinguruetan eta bake proposamenak ikuspegi feminista eta generokoetatik.

duena; 2019koa, aurrerapen teknikoari arreta handiagoa eskaintzen diona, araudiak, zirkularrak eta ebazpenak aztertuz; eta 2021ekoa, interesa garapen operatiboan jartzen duena<sup>2</sup>.

Azterketa dokumentalaz gain, bakegintzan lan egiten duten Kolonbiako emakumeen eta feministen zortzi erakunderi egindako *online* inkestaren emaitzan oinarritzen da lana. Hala, herrialdearen bake-prozesuaren testuinguruan, erakunde horiek 1325 Ebazpenaren inguruan duten iritzia eta ikuspegia ezagutu nahi izan dugu. Honako hauek dira ikerketan parte hartu duten erakundeak: *Corporación Para la Vida Mujeres que Crean*, *Colectivo Mujeres al Derecho*, *Organización Femenina Popular*, *Ruta Pacífica de las Mujeres*, *Corporación Humanas*, *Liga Internacional de Mujeres por la Paz y Libertad* (LIMPAL-WILPF), *Corporación Vamos Mujer* eta *Sisma Mujer*. Erakunde horiek, batez ere, honako lan ildoak dituzte: 1) emakumeen giza eskubideak babestea eta sustatzea; 2) bakearen eraikuntza; 3) emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea eta borrokatzea; 4) trantsizioko justizia, memoria, erreparazioa eta babesa; 5) ekonomia feminista; 6) monitorizazioa, ikerketa eta prestakuntza ikuspegi feministetatik; eta 7) emakumeen parte hartze politikoa.

Testua hiru ataletan banatuta dago. Lehenengoak Kolonbiako lege eta politika publikoen esparruari erreparatzen dio, aztertzeko, alde batetik, herrialdeko araudian 1325 Ebazpenaren edukirik badagoen eta, bestetik, Bake Akordioan sartutako generoko neurriak, haien inplementazio mailan arreta jarritz. Bigarren atalean, emakumeen eta feministen erakundeek bakegile gisa duten ibilbidea, 1325 Ebazpenak haien lanean duen erabilgarritasunari buruz duten iritzia eta nazioarteko lankidetzak Ebazpena sustatzeko izan dezakeen eginkizuna aztertuko ditugu.

## 2. Emakumeen, Bakearen eta Segurtasunaren agenda Bake Akordioaren aurreko lege eta politika publikoen esparruan

Emakumeen, Bakearen eta Segurtasunaren nazioarteko agenda ez dute modu esplizituan sartu Kolonbiako legerian eta politika publikoan eta oraindik ez da 1325 Ebazpena gauzatzeko eta lurraldera egokitzeko Ekintza Plan Nazionalik egin, ekintza zehatzak, ebaluazio mekanismoak eta abian jartzeko finantzabideak dituen.

Chaparro González eta Martínez Osorioren arabera (2016: 81), Kolonbiako Estatuaren partetik ez da genero-ikuspegia politiketan aplikatzeko konpromiso estrukturalik egon; aitzitik, konpromiso hori desberdina izan da administrazio bakoitzean. EBS agenda txertatzea eta garatzea ere Estatuaren borondate politikoaren menpe dago eta, *Corporación Humanas* erakunde feministarentzat (2013), “emakumeen eskubideak bermatzeko helburuz herrialdean egiten diren ekintza edo ekimen guztiak ez datoz bat emakumei, bakeari eta segurtasunari buruzko ebazpenen espirituarekin”.

---

2 1325 Koalizioak Kolonbiako emakumeen eta feministen zenbait erakunde biltzen ditu, Emakumeen, Bakearen eta Segurtasunaren agenda Kolonbiako legeetan eta politika publikoetan txertatzeko prozesuaren jarraipena egin dutenak, 2011tik 2017ra bitartean urtero argitaratutako txostenen bitartez. 1325 Koalizioak txostenak egiteari utzi zion Bake Akordioa sinatu eta gero, eta orduan emakumeen, feministen eta LGTBI erakundeen koalizio berri bat sortu zen, *Grupo Género en la Paz* (GPAZ) izenekoa. Horrek Bake Akordioaren generoko neurriak martxan jartzeko prozesuaren jarraipen lanarekin jarraitu du.



Hala ere, 2000ko hamarkadaz geroztik onartutako tresna legal batzuek agenda horretan sar daitezkeen elementuak dituzte. Jarraian, tresna horien zenbait adibide aurkeztuko ditugu, EBS agendaren jarduketa-eremu nagusi hauekin duten loturaren arabera: parte-hartzea, prebentzioa, babesa eta errehabilitazioa eta erreparazioa.

## 2.1. Parte-hartzea

1325 Ebazpenaren inplementazioarekin zerikusia duen lehen araua 2000ko 581 Legea da, administrazio publikoko kuotei buruzkoa. Lege horren bitartez emakumei sektore publikoko karguen % 30 gordetzen zaizkie erabakitzeko maila guztietan. Egiatan, ez da nabarmen aurreratu neurri horretan; izan ere, emakumeen ehunekoa botere legegilean 2018-2022 denboraldirako, % 19,7 da; % 21,3 Senatuan eta % 18,7 Kongresuan.

Emakumeak gutxienak dira erabakitzeko esfera instituzionalan eta beren parte-hartzea askoz handiagoa da beste erabakitzeko maila ez instituzional batzuetan, bate ere tokiko eta komunitate eremuan, informala eta politika eragiteko ahalmen gutxiagokoa. Eremu horretan, emakume lider sozialen eta giza eskubideen defendatzaileen parte hartzeak arriskuak dakartza haien segurtasunerako. *Corporación Sisma Mujer* erakundearen datuen arabera (2020), 2017an 16 emakume lider eta giza eskubideen defendatzaile hil zituzten, 2018an 11 eta 2019an 16 (hiru urte horietan hildako hiru emakume LGTBIak ere kontuan hartuta). Indarkeriazko egoera larriagotu da azken urteetan, paradoxikoki Bake Akordioaren ostean, eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta horren aurrean babesteko alderdiei arreta eskaintzera behartzen gaitu, 1325 Ebazpenak ere jasotzen dituen.

## 2.2. Prebentzioa eta babesa

2008ko 1257 Legeak emakumeen kontrako indarkeriari eta diskriminazioari buruz sentsibilizatzen eta hura prebenitzen eta zigortzen du. Legeak ez du gatazka armatua inola ere aipatzen, baina aldaketa kualitatiboa ekarri zuen emakumeen aurkako indarkeriaren aintzatespen instituzionalari dagokionez, “familia barruko indarkeriaren” ordez “genero-indarkeriaz” hitz egiten baitzuen. Legeak, 2. artikuluan, horrela definitzen du genero-indarkeria: “emakume izate hutsagatik heriotza, kalte edo oinaze fisikoa, sexuala, psikologikoa, ekonomikoa edo ondarezkua eragiten duen edozein ekintza edo omisio, baita horien mehatxuak, derrigortzea edo askatasun-gabetze arbitrarioa, bai eremu publikoan bai pribatuan”.

Gatazka armatuko indarkeriari buruzko legeei dagokienez, Kolonbiako Auzitegi Konstituzionalaren 2008ko 092 Autoa funtsezkoa elementua da emakumeen eskubideak babesteko; izan ere, emakumeek genero eta sexu arrazoiengatik gatazka armatuan pairatzen duten indarkeriaren baldintza espezifikokoak aintzat hartzen ditu. Gainera, Autoak, lehenengo aldiz, emakumeen egoera aztertzen du lekualdatze behartua pairatzen duen kolektibo gisa. Emakumeen eta feministen erakundeek hori lortzen lagundu zuten<sup>3</sup>.

3 2007. urtean, *Ruta Pacífica de las Mujeres* erakundeak emakumeen lekualdatze behartuari buruz eztabaidatzeko foro bat antolatu zuen eta Auzitegi Konstituzionalako epaileak gonbidatu zituen. Horiek, aldi berean, galderak egin zizkieten hainbat erakunderi emakumeen gatazka armatuko lekualdatze behartuei buruz jasotako informazioa egiaztatzeko eta, azkenik, Gorteak lehen aipatutako 2008ko 092 Autoa idatzi zuen.

Indarkeria prebenitzeko eta emakumeak babesteko beste arau bat Barne Ministerioaren 2012ko 0805 Ebazpena da, prebentzio eta babes protokolo espezifikoak proposatu zuena. Ebazpen horrek arreta handiagoa eskaintzen dio emakumeek gatazka armatuan izan dezaketen “babesgabetasun” handiagoari, eta bereziki mehatxatuta dauden horien babes bermatzeko egiten du protokoloa.

### 2.3. Errehabilitazioa eta erreparazioa

Modu mugatua bada ere, 2005eko Justizia eta Bakearen 975 Legeak gatazka armatuan emakumeek sexu eta generoaren arabera pairatutako indarkeria espezifikoak bistaratzen du, biktimak direla onartzen du eta babestuak eta erreparatuak izateko eskubidea aitortzen die. Geroago, 2008an, Erreparazioa Administratiboko 1290 Dekretua onartu zen. Horren bitartez, gatazkako biktimei banakako erreparazioa emateko programa sortu zuen. Emakumeen eta feministen zenbait kolektibok zalantzan jarri zuten Justizia eta Bakearen Legea eta Álvaro Uribereren gobernuak gerrillen gatazka armatua ukatzeak (horiei “talde terrorista” deitzen zien). Gainera, erakunde horiek kritikatu zuten Erreparazio Administratiboko Dekretuak kalte-ordain ekonomiko eskasa ematen zuela beste justizia eta erreparazio neurri batzuei uko egitearen truke, hala nola lurrak itzultzeari edo hilketak eta desagertze behartuak ikertzeari (Gómez Correal eta Montealegre Mogrovejo, 2021: 100).

2011n, gatazka armatuko biktimen mugimenduen presioari esker, Juan Manuel Santosen gobernuak Biktimen eta Lurrak Itzultzearen 1448 Legea onartu zuen. Testu horrek biktimen eskubideak bermatzeko helburua zuen, batez ere erreparazioa eta lurrak itzultzea, eta gatazka armatuko sexu-indarkeria ere aipatzen zuen.

Delitu horren aintzatespena 2014ko ekaineko 1719 Legearekin indartu zen. Legeak sexu-indarkeria nabarmendu zuen, batez ere gatazka armatuari zegokiona, eta biktimen justizia eskubidea ere. Justizia eta Bakearen Legearekin alderatuta, berritasun bat da frogatzearen ardura alderantzikatzen duela; hau da egitateak frogatzeko ardura biktimei egokitu beharrean, Lege berri honekin ardura Estatuarena da (Naranjo Álvarez, 2021). Gainera, azalean bada ere, legeak “homofobiagatiko krimenaren” tipologia sartzen du LGTBI kolektiboko biktimentzat.

## 3. Bake Akordioaren generoko neurriak eta inplementazioa

Bake Akordioak genero-ikuspegidun 122 neurri ditu puntu guztietan banatuta: landa erreforma integrala, parte-hartze politikoa, gatazkarekin amaitzea, legez kontrako drogen arazoa konpontzea, biktimak eta egiaztapena. *Grupo Género en la Paz* erakundeak (2021) inplementazioaren inguruan egindako azken jarraipen txostenaren arabera, neurrien % 26k ez dute inolako aurrerapenik izan edo hori oso txikia izan da, % 50k aurrerapen partziala izan dute, % 20k aurrerapen egokia eta % 4ri buruz ez dago informaziorik. Txosten horretan inplementazioaren erritmoak behera egin duela hautematen da, aurreko aldiarekin konparatuta. Izan ere, aurrerapen oso txikia edo aurrerapenik ez duten neurriak % 2 murrizten badira ere, gora egiten dute aurrerapen partziala duten horiek eta kategoria berri bat agertzen da, informaziorik ez dugun neurriak hartzen dituenak. Inplementazioa, neurri handi batean, gobernuaren borondate politikoaren menpe dagoenez, esan dezakegu Iván Duqueren gobernuan ez dela konpromiso instituzional nahikorik egon Bake Akordioaren generoko neurriekin (GPAZ, 2021).

Jarraian, Akordioaren puntu desberdinetako generoko neurrien inplementazioaren bilakaerara hurbiltzen gara.

### 3.1. Landa Erreforma Integrala

Landa Erreforma Integralaren atalean aurrerapen urriak aurkitzen ditugu 10 neurritan (% 40), aurrerapen partziala 11 neurritan (% 44), aurrerapen egokia hirutan (% 12) eta informaziorik gabeko neurri bat (% 4). Aurrerapenik ez edo oso txikia duten genero-ikuspegidun neurriak, oro har, ekonomikoak eta materialak dira eta lurra edo etxebizitza egokia izatearekin, elikadura eskubidearekin eta elikadura politikarekin lotuta daude.

Alde batetik, emakume landatarrentzat, lurra izateko aukeraren demokratizazio eskasa ikusten da. Hori bereziki deigarria da lurren doako banaketari dagokionez: emakumeek, batez beste, 1,7 hektarea jaso dituzte eta gizonek 3,4 hektarea. Lurra izateko aukeraren arrakala horrek ez du Bake Akordioan jasotakoa betetzen eta emakume landatarrek gizonen aurrean pairatzen dituzten desparekotasunak larriagotzen ditu (GPAZ, 2021: 30).

Beste alde batetik, lurra eskuratzeko eta landako lurra erabiltzeko neurriek ez dituzte emakume LTBen eskubideak bermatzen. Hori LGTBI kolektiboko pertsonen eskubideen sustapenaren hutsune gisa identifikatzen da eta “LGTBI pertsonak Landa Erreforma Integralaren eskaintza instituzionalerako sarbidea bermatzeko estrategiarik ez dagoela” erakusten du (ibid.: 31).

### 3.2. Parte-hartze politikoa

Parte-hartze politikoaren atalean, generoko neurriak hiru gai nagusi hauen inguruan egituratzen dira: oposizio politikoa egiteko eskubideak eta berme osoak, herritarren parte-hartzerako mekanismo demokratikoak eta nazio, eskualde eta tokiko mailako politikan parte-hartze handiagoa sustatzea.

Kasu honetan, aurrerapenik gabeko edo aurrerapen gutxiko hamar neurri aurkitzen ditugu (% 39), batez ere honako hauei dagozkienak: emakume liderren parte-hartze politikorako bermeak eta babesa; gizarte erakundeen sustapena eta indartzea; eta kaltetutako taldeak ez estigmatizatzea, hala nola emakumeak eta LGTBI pertsonak. Beste hamarrek aurrerapen partzialak dituzte (% 39), horien artean Zaintza Sistema Nazionala dugu emakumeen parte-hartze politikoa bermatzeko. Aurrerapen urriak ikusi dira, ez baita inplementatu Zaintza Politika Publikoa eta bakarrik hartzen baita kontuan lurralde mailan, agintarien borondate politikoaren arabera. Bost neurriek aurrerapen egokiak dituzte (% 19), adibidez hauteskunde antolamenduaren erreformari edo generoarekiko sentikorrek diren aurrekontuak sustatzeari dagozkionak. Halaber, informaziorik gabeko neurri bat dago (% 3) (GPAZ, 2021: 39).

### 3.3. Gatazkaren amaiera

Akordioan gatazkaren amaierari buruzko generoko neurriak bi alderdiri dagozkie: borrokalari ohiak bizitza zibilera itzultzeko prozesua, eta giza eskubideen defendatzaileei erasotzen dieten erakundeen eta jokabide kriminalen aurkako borroka.

Kasu honetan, generoko 13 neurrik implementazio partziala izan dute (% 65), bostek ez dute aurrerapenik (% 25) eta baten inguruan ez dago informaziorik (% 5). Aurrerapen egokiko neurri gutxien izan duten puntuetako bat da hau; egia esan, bat besterik ez da zenbatzen, Segurtasun Bermeen Batzorde Nazionala emakumeen benetako parte-hartzearekin osatzeari dagokiona. Gutxien aplikatu diren neurrien artean, emakume borrokalari ohiei dagozkien horiek azpimarra ditzakegu: horien birgizarteratze sozio-ekonomikoa, arreta psikosoziala edo haien babesa. Estatuak arlo horretan egindako lan ezaren aurrean, borrokalari ohiek ekimen autogestionatuak abiatu dituzte, baina modu mugatuan eta baliabide urriekin, batez ere nazioarteko lankidetzatik etorriak (1325 Koalizioa, 2021). Estatuaren omisioak, desmobilizatutako pertsonen aurkako indarkeria gero eta handiagoarekin batera, ziurgabetasun egoera batean kokatzen ditu borrokalari ohiak beren eskubideen berme instituzionalari dagokionez.

### 3.4. Legez kontrako drogen arazoaren konponketa

Puntu hau legez kontrako laboreen ekoizpenari eta kontsumoari konponbidea emateko politikei dagokie, Kasu honetan, aurrerapenik gabeko edo aurrerapen gutxiko generoko neurri bakar bat dago (% 8), 8 neurri aurrerapen mugatuarekin (% 67), 2 aurrerapenik gabe (% 17) eta neurri bat informaziorik gabe (% 8).

Aurrerapenik izan ez duen neurri bakarrak Ordezkapen eta Garapen Alternatiboko Udal eta Komunitate Plan Integrala (PISDA) eraikitzeke proposamenak egitean emakumeek parte hartzea du helburu. Aurrerapen mugatuko neurriak hainbat alderdi hartzen dituzte: politikoak, hala nola Legez kontrako Laboreen Ordezkapen Programa Nazional Integralaren gauzatzean eta ebaluazioan parte hartzea; ekonomikoak, hala nola haur-eskolak sortzea eta lan-aukerak hobetzea; eta kontsumokoak, adibidez, desestigmatizazioa eta kontsumoaren aurrean babestea, kontsumitzaileei arreta ematea eta kontsumoak eragindako kaltea murrizteko ekintzak. Aurrerapen egokiak dituzten neurrien artean, aipatzekoak dira legez kontrako drogen kontsumoari lotutako ikerketak garatzea, eta politika publikoak legez kontrako kontsumoaren aurrean birformulatzea, honako faktore hauen arabera premia espezifikoak kontuan hartuz: adina, sexua, baldintza ekonomikoa eta kokapen geografikoa.

### 3.5. Gatazka armatuaren biktimak

Hau da gehien landu den puntuetako bat, Bake Akordioaren nagusietako bat izan baitzen. Generoko zortzi neurrik aurrerapen egokiak dituzte (% 40), hamarrek aurrerapen mugatuak dituzte (% 50), batek ez du aurrerapenik (% 5) eta bati buruz ez dago informaziorik (% 5).

Aurrerapenik gabeko neurria Bizikidetzarako eta Ez Errepikatzeke Errehabilitazio Psikosozialeko Plana martxan jartzea da, ikuspegi diferentziala eta generokoa kontuan hartuz. Aurrerapen mugatuko neurriak honako hauei dagozkie: justizia (sexu-indarkeriako krimenei amnistia edo indultua ez ematea; Bakerako Jurisdikzio berezian emakumeei eragindako kalteengatik zigorrak ezartzea; sexu-indarkerian espezializatutako ikerketa taldeak); egia (Egia Argitzeko Batzordearen bitartez, ikuspegi diferentziala eta generokoa duena eta emakumeen eta LGTBI pertsonen baldintza espezifikoak kontuan hartzen dituena); erreparazioa eta ez errepikatzea (erreparazio kolektiboa, biktimen sendakuntza emozionalerako arreta psikosoziala hobetzea, lekualdatutako pertsonak itzultzea eta birkokatzea; gobernuak giza eskubideen defentsarekin eta bakerako eskubidearekin konpromisoa hartzea).

### 3.6. Egiaztapena

Puntu honek Bake Akordioaren inplementazioa egiaztatzeko ezarritako mekanismoak hartzen ditu. 2020. urtean, pandemiaren eraginez, jarraipena zailagoa izan bazen ere, egiaztapen lanak aurrera jarraitu zuen. Kasu honetan, *Centro de Investigación y Educación Popular, Programa por la Paz* (CINEP/PPP) eta *Centro de Recursos para el Análisis del Conflicto* (CERAC) erakundeak jarraipen txostenak idazteaz arduratzen dira. Nazioarteko Bake Ikasketen Kroc Institutuak (Notre Dameko Unibertsitatea) ere laguntza teknikoa eskaintzen du egiaztapenaren nazioarteko osagai gisa, txosten bereziak eginez.

Genero neurriei dagokienez, honako hauek ditugu: hiru neurri aurrerapen egokiekin (% 42,9), nazioarteko bidelaguntzari eta genero-ikuspegidun behaketari dagozkienak; bi neurri aurrerapen mugatuarekin (% 28,6), emakumeen premiak Akordioak Inplementatzeko Esparru Planean sartzeari eta komunitate etnikoetan modu diferentzialean eta genero-ikuspegitik birgizarteratzeari dagozkienak; eta inplementatu gabeko neurri bat (% 14,3), hau da, legez kontrako laboreekin lotutako delituei trataera penal berezia emateko legea onartzea, erakunde kriminaletan ez dauden nekazarietara mesede egiten diena eta emakumeentzat trataera berezia ere ezartzen duena. Gainera, informaziorik gabeko neurri bat dago (% 14,3).

## 4. Emakumeen eta feministen erakundeek bakearen eraikuntzan duten ibilbidea

Kolonbian emakumeen eta feministen taldeen alde antolatutako ekintzak eta mobilizazioak ugaritu ziren 90ko hamarkadatik aurrera. 2000ko hamarkadaz geroztik, gatazka armatuari irtenbide negoziatua ematearen aldeko erakunde horiek, aldendu ziren eta Uriberen gobernuaren “segurtasun demokratikoko” politikari aurre egin zioten. Izan ere, horrek gatazka armatua ukatzen zuen eta gerrillei “talde terrorista” deitzen zien, herrialdeko militarizazioa areagotu zuen eta matxinoen jardura zein protesta soziala eta herritar antolatuak kriminalizatu zituen (Garrido Ortolá, 2020).

Bakearen aldeko emakumeen eta feministen erakundeek emakume asko mobilizatu zituzten kaleetan, indarkeriaren aurka agertzeko eta gatazka armatuaren amaiera exijitzeko. Mobilizazioez gain, beste estrategia batzuk abiatu zituzten: auzitegi sinbolikoak egin zituzten emakumeen kontrako indarkeria eta haren erantzuleak salatuz; Estatu osoan emakume taldeen topaketarako eremuak, plataformak eta sareak sortu zituzten; harremanak estutu zituzten giza eskubideen, gatazkako biktimen, LGTBI pertsonen, nekazarien, afrikar jatorriko pertsonen eta herri indigenen elkarteekin; eta emakumeen aurkako giza eskubideen urraketak dokumentatu zituzten<sup>4</sup> (Gómez Correal eta Montealegre Mogrovejo, 2021). Pixkanaka, ikuspegi eta proposamen feministak beste gizarte erakunde batzuetara heldu ziren eta emakumeek gero eta garrantzi handiagoa izan zuten politikan, bakearen eraikuntzako funtsezko eragile gisa.

4 Horren adibide izan zen *Ruta Pacífica de las Mujeres* erakundeak herrialde osoan egindako ikerketa. Lan sakon hura hainbat urtetan egin zen, oraindik gatazka armatuko testuinguruan, eta erakundeak Kolonbiako Emakumeen Egiairen eta Memoriaren Batzorde izena eman zion (*Ruta Pacífica de las Mujeres*, 2013).

FARC-EPren eta Kolonbiako gobernuaren arteko negoziazioetan, 2012ko abenduaren 4an, emakumeen erakundeek *La paz sin las mujeres ¡no va!* manifestua aurkeztu zuten, negoziazioetan parte hartzea eskatzeko eta Emakumeen, Bakearen eta Segurtasunaren nazioarteko agendaren edukiak kontuan har zitzaten. Manifestua funtsezko urratsa izan zen 2014an Emakumeen eta Bakearen Nazioarteko Lehen Gailurra antolatzeko. Horretan, *Sin mujeres no hay paz* eta *Las mujeres queremos ser pactantes y no pactadas* bezalako leloak izan ziren eta herrialde osoko 449 emakumek parte hartu zuten, hainbat erakundetik etorriak: giza eskubideen defendatzaileak, feministak, afrikar jatorrikoak, ikasleak, nekazariak, etab. (Garrido Ortolá, 2020).

Gailurra emakumeen bozgorailu izan zen eta hauek bake-prozesuan parte hartzea, gatazkaren ondorioak generoaren arabera aintzat hartzea eta 1325 Ebazpena Kolonbian inplementatzea exijitu zuten. Gainera, Gailurra ezinbestekoa izan zen urte horretan Habanako negoziazioetan Generoko Azpibatzaordea sortzea sustatzeko. Horrek, genero-ikuspegia Bake Akordioan zeharkatzeko aukera eman zuen. Bultzada hori baliatuz, 2016an Emakumeen eta Bakearen II. Gailur Nazionala ospatu zen, *Las mujeres vamos por la paz* manifestua eman zuena.

Gobernuak Bake Akordioa berresteko 2016ko urriaren 2an deitutako erreferendumaren aurrean, “ez”aren aldeko zenbait sektore kontserbadorek behin eta berriro errepikatu zuten Akordioak “generoko ideologia” zabaldu, “familia tradizionalarekin” hautsi eta “Kolonbiako biztanleak homosexualizatu” nahi zituela (Fernández-Matos eta González-Martínez, 2018: 125). “Ez”aren aldekoek oso gutxigatik irabazi zuten erreferenduma eta, horren ondorioz, emakumeen eta feministen taldeek, gizarte beste sektore zabal batzuekin batera, kaleak hartu zituzten Habanan adostutakoa defendatzeko. Hainbat mobilizazio izan ziren bakearen alde, milaka pertsonarekin (Gómez Correal eta Montealegre Mogrovejo, 2021: 107). Izan ere, mobilizazioak funtsezkoak izan ziren Akordioa mantentzeko, haren edukian zenbait aldaketa negoziatzea beharrezkoa izan bazen ere. Aldaketen artean, genero-ikuspegiaren eta LGTBI pertsonen eskubideen garrantzia murriztu behar izan zuten.

## 5. Emakumeen eta feministen erakundeak 1325 Ebazpenaren aurrean eta nazioarteko lankidetzaren eginkizuna

Ikerketan parte hartu duten erakunde kolonbiar guztiek 1325 Ebazpena oso ondo (4) edo nahiko ondo (4) ezagutzen dute. Gainera, gehienak bat datoz 1325 Ebazpenaren bake eta segurtasun ikuspegiarekin, maiz erabiltzen dute, haien lehentasunekin lotura handia duela uste dute eta ados daude genero-harremanak eraldatzeko izaera duela.

Erakunde gehienek (7) uste dute tresna haien lanerako nahiko erabilgarria (5) edo oso erabilgarria (2) dela, eta batentzat bakarrik ez da oso erabilgarria. Guztiek onartzen dute tresnak erakunde publikoetan eta gizarte zibilean eragiteko ekintzak indartzen dituela eta, zalantzak dituen batek izan ezik, beren erakundeak indartzeko balio duela uste dute.

1325 Ebazpenaren erabilera oso hedatuta dago galdetutako erakundeen artean; izan ere gehienek beti (4) edo askotan (3) erabiltzen dute beren proiektuetan, eta batek gutxitan erabiltzen du. Haien ekintzetan Ebazpena aipatu ala ez, guztiek onartzen dute harekin lotura duten jarduerak sustatzen dituztela. Adibidez, honako hauek aipatzen dituzte: emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea; haien parte-hartzea sustatzea; indarkeriaren aurrean babestea; indarkeria pairatu dutenen

errehabilitazioa eta erreparazioa; bakeari eta gatazka armatuari buruzko gaiekin lotutako jarduerak; lurrak itzultzea; eta eskubide ekonomikoen defentsa indarkeria pairatu duten emakumeen parte-hartzea konpontzeko eta sustatzeko.

Erakunde gehienek (5) 1325 Ebazpenak potentzialtasun handia duela uste dute eta hiruk zalantzak dituzte. Zentzu horretan, guztiek uste dute eta aldarrikatzen dute Kolonbian 1325 Ebazpena aplikatzeko Ekintza Plan Nazional bat egin beharra dagoela.

Erakundeen erdiak uste du 1325 Ebazpena generoari, bakeari eta segurtasunari buruzko nazioarteko tresna nagusia dela, bik zalantzak dituzte eta beste bi ez daude ados horrekin. Egia esan, 2000ko hamarkadaz geroztik, emakumeen eta feministen erakundeek bake agenda propioa ezartzen hasi ziren, generoaren, gatazka armatuen eta bakearen eraikuntzaren arloan hainbat tresna aipatzen zituen (Fernández-Matos eta González-Martínez, 2018). Hala, galdetutako erakundeak, 1325 Ebazpenaz gain, beste tresna eta organismo batzuk hartzen dituzte kontuan, batez ere nazioartekoak eta estatu mailakoak (ikus 1. taula).

1. taula. Kolonbiako emakumeen eta feministen erakundeentzat erreferentzia diren generoari, gatazkei eta bakeari buruzko tresnak eta erakundeak
<b>Nazioartean</b>
Giza Eskubideen Nazioarteko Esparrua Emakumeen Kontrako Diskriminazio Era Guztiak Ezabatze Konbentzioa (CEDAW) Pekineko Adierazpena eta Ekintza Plataforma Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren Emakumei, Bakeari eta Segurtasunari buruzko ebazpenak Nazio Batuen Idazkari Nagusiaren txostenak Nazio Batuen Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko Kontalari Bereziaren txostenak Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialaren Batzordea (CSW)
<b>Eskualde mailan</b>
Giza Eskubideen Amerikarteko Batzordea
<b>Estatu mailan</b>
Kolonbiako 1991ko Konstituzio Politikoa 2016ko Bake Akordioa Bake Akordioak Inplementatzeko Esparru Plana (PMI) Politika Ekonomiko eta Sozialaren Batzorde Nazionalaren (CONPES) 161. dokumentua 2008ko 1257 Legea, emakumeen aurkako indarkeriari eta diskriminazioari buruz sentsibilizatzeari eta hura prebenitzeari eta zigortzeari buruzkoa. 1719 legea, Sexu Indarkeriari buruzkoa Trantsizioko Justiziari buruzko legeak

Iturria: egilea.

Kolonbian proiektuak dituzten nazioarteko lankidetzako erakundeek laguntza ekonomikoa eta teknikoa eskaini diote emakumeen eta feministen mugimenduari, hala nola ekimen hauei: *Ruta Pacífica de las Mujeres* erakundearen Emakume Kolonbiarren Egiaren eta Memoriaren Batzordea eta orain arte ospatutako Emakumei eta Bakeari Buruko Gailur Nazional biak (Mesa, 2014); “*Mujeres, participación política y procesos de paz: experiencias de El Salvador, Guatemala y Colombia a la luz de la Resolución 1325*” Nazioarteko Foroa, Kolonbiako Emakumeen Sare Nazionalak antolatua (Ramírez Cardona, 2014); edo 1325 Koalizioarentzat Emakume Bakegileen Mundu Sarearen bitartez egindako 1325 Ebazpenaren monitorizazio txostenak, eta GPAZek gaur egun egindakoak.

Lan honetan galdetutako erakundeek harremanak dituzte edo izan dituzte Europako eta Ipar Amerikako lankidetzarekin eta, horietako bostek, euskal lankidetzarekiko harremanak aipatzen dituzte bereziki. Erakunde gehienek (5) uste dute nazioarteko lankidetzak ez duela eskatzen proiektuetan 1325 Ebazpena erabiltzeko; aitzitik, tresna hori erabiltzea norberaren erabaki politikoa da. Erakundeetako bik, ordea, bai adierazten dute lankidetzak 1325 Ebazpena aipatzeko eskatzen duela, eta batek zalantzak ditu.

Erakunde guztiek uste dute nazioarteko lankidetzak 1325 Ebazpenaren ezaguera eta erabilera sustatu beharko lukeela Kolonbian, eta bere ahaleginak honako ekintza honetara bideratu:

- Estatuari presioa egitea, nazioarteko konpromisoak bete ditzan: 1325 Ebazpena inplementatzea eta horretarako Ekintza Plan Bat egitea.
- Bake Akordioaren generoko neurriak bete daitezen bultzatzea.
- Genero-ikuspegidun justizia eta erreparazio neurriak bete daitezen eragitea.
- Emakumeek gatazka armatuaren esparruan pairatzen dituzten arrisku eta kalte bereizgarriak aintzat hartzea eta haien babesa indartzea.
- Indarkerien *continuum*-a elikatzen duten alderdi soziokultural eta politikoak ezabatzen laguntzea, bake egonkorra eta iraunkorra lortzeko.
- Bakearen eta segurtasunaren kontzepzioaren inguruan hausnartzea eta hura zabaltzea.
- Emakumeen erakundeen eta mugimenduaren lana babestea.
- Emakumeek bakearen eraikuntzan eta Akordioaren inplementazioan duten parte-hartzea eta ahalduntzea sustatzea eta indartzea.
- Emakumeek gatazken konponketan eta bakearen eraikuntzan duten eginkizunari buruzko ezagutza sortzeko finantzamendua ematea.

## 6. Ondorioak eta gomendioak

Kolonbiako lege eta politika publikoen esparruak ia ez ditu gatazka armatuko genero-desparekotasunei dagozkien arazoak lantzen, gatazkako sexu-indarkeria aipatzen eta delitu horren biktimentzat justizia eta erreparazio neurriak ezartzen dituzten duten zenbait lege kenduta. Hala,



politika publikoek huts egiten dute gatazka armatua genero-ikuspegitik ulertzeari dagokionez, eta huts horrek emakumeen eta LGTBI kolektiboaren eskubideak kaltetzen ditu bereziki. Egoerak Kolonbiako Estatuak Emakumeen, Bakearen eta Segurtasunaren agendarekin eta 1325 Ebazpenaren inplementazioarekin duen konpromisoaren inguruko zalantzak sortzen ditu.

Bake akordioak genero-ikuspegia zeharkakotzen du, neurri handi batean, emakumeen eta feministen erakundeen presioaren eta horiek bakearen eraikuntzan duten rol politikoaren ondorioz. Alabaina, generoko neurriek, oro har, oso aurrerapen gutxi izan dute. Hala, Estatuako instituzioek bake-prozesuan genero-ikuspegia txertatzeko duten konpromiso eskasak 1325 Ebazpenaren eta bake negoziatioetan adostutakoaren inplementazioa zailtzen du. Gainera, Estatuak Emakumeen, Bakearen eta Segurtasunaren agendarekin duen konpromiso ezaren erakusgarri da 1325 Ebazpenari buruzko Ekintza Plan Nazionalik ez egotea. Izan ere, emakumeen eta feministen erakundeek urte askoz eskatu dute Plan hori, estatuaren ekintzak zehaztu eta baliabideak konprometituko dituen tresna gisa.

Galdetutako erakunde gehienek uste dute 1325 Ebazpena tresna erabilgarria dela hiru eremu hauetan: Estatuaren erakundeetan eragitea hainbat lurralde mailatan; jendartea eta genero-harremanak eraldatzea; eta erakundeak indartzea eta beste gizarte mugimendu batzuekin aliantzak sortzea. Horregatik, gehienek itxaropenak dituzte Ebazpen horien eta haren potentzialtasunaren inguruan.

Nazioarteko lankidetzak Ebazpenaren zabalkundean eta inplementazioan izan dezakeen eginkizunari dagokionez, erakundeek honako gomendio hauek egiten dituzte:

- Estatuako erakundeekiko elkarrizketa sustatzea gobernu-maila desberdinetan, 1325 Ebazpena inplementatzeko eta Ekintza Plan Nazionala egiteko konpromisoak lortzeko.
- Emakumeen, Bakearen eta Segurtasunaren agenda lantzen duten erakundeei laguntzea, adibidez, honako hauen bitartez: baliabideak ematea, gaitasun teknikoak indartzea, kanpainak eta komunikazio arloko beste jarduera batzuk, laguntza juridikoa, eta 1325 Ebazpena eta Bake Akordioa inplementatzen laguntzea.
- 1325 Ebazpena zabaltzeko eztabaida eta prestakuntza eremuak sortzea (foroak, mahai-inguruak, etab.).
- Nazioarteko erabakitze eremuetan eragiteko antolakuntzak bilatzea, hala nola Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluan.
- Kolonbiako bake-prozesua babesten duten nazioarteko eragileen artean koordinazio maila altuagoak ezartzea.

## 7. Bibliografia

Chaparro González, Nina eta Margarita Martínez Osorio (2016): *Negociando desde los márgenes. La participación política de las mujeres en los procesos de paz en Colombia (1982-2016)*. Centro de Estudios de Derecho, Justicia y Sociedad, Dejusticia, Bogota, Kolonbia.

<https://dialnet.unirioja.es/servlet/libro?codigo=738764>

Coalición 1325 (2011): *Informe de monitoreo de la Resolución 1325 de Naciones Unidas en Colombia – 2011*. <https://mujerespazyseguridad.co/informes-pdf/>

– (2012): *2º Informe de monitoreo de la Resolución 1325 de Naciones Unidas en Colombia – 2012*. <https://mujerespazyseguridad.co/informes-pdf/>

– (2013): *3º Informe de monitoreo de la Resolución 1325 del Consejo de Seguridad de Naciones Unidas en Colombia – 2013*. <https://mujerespazyseguridad.co/informes-pdf/>

– (2014): *4º Informe de monitoreo de la Resolución 1325 de las Naciones Unidas en Colombia – 2014*. <https://mujerespazyseguridad.co/informes-pdf/>

– (2015): *5º Informe. Mujeres, Seguridad y Paz en Colombia – 2015*. <https://mujerespazyseguridad.co/informes-pdf/>

– (2017): *6º Informe de monitoreo de la Resolución 1325 del Consejo de Seguridad de Naciones Unidas en Colombia*. <https://mujerespazyseguridad.co/informes-pdf/>

– (2020): *A 20 años de la Resolución 1325. Las organizaciones de mujeres revisan su implementación en Colombia durante 2019*. <https://mujerespazyseguridad.co/informes-pdf/>

Corporación Humanas (2013): *Los trece de la 1325 en Colombia*. Centro Regional de Derechos Humanos y Justicia de Género, Observatorio de Humanas: Mujeres, Paz y Seguridad, Bogota, Kolonbia. <https://www.humanas.org.co/los-trece-de-la-1325/>

Fernández-Matos, Dhayana Carolina eta María Nohemí González-Martínez (2018): “La paz sin las mujeres ¡No va! El proceso de paz colombiano desde la perspectiva de género”, *CIDOB D’Afers Internacionals*, 121. zkia., 113-133. <https://bonga.unisimon.edu.co/handle/20.500.12442/3013?show=full>

Garrido Ortolá, Anabel (2020): “El papel de las mujeres en los acuerdos de paz en Colombia: la agenda internacional”, *Política y Sociedad*, 1. libk., 57. zkia., 77-97. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=7357776>

Gómez Correal, Diana Marcela eta Diana María Montealegre Mogrovejo (2021): “Bakea eraikitzeke estrategia feministak: Kolonbiako emakumeen eta feministen mugimenduen ikaspenak, lorpenak eta erronkak”. In Mendia Azkue, Irantzu (argtz.): *Justizia eta erreparazio estrategia feministak Guatemalan eta Kolonbian*, Hegoa Institutua, Bilbo. <https://publicaciones.hegoa.ehu.eus/es/publications/458>

GPAZ (2018): *La paz avanza con las mujeres. Observaciones sobre la incorporación del enfoque de género en el Acuerdo de Paz*. <https://mesadeapoyo.com/informe-gpaz-observaciones-sobre-la-incorporacion-del-enfoque-de-genero-en-el-acuerdo-de-paz/>

– (2019): *La paz avanza con las mujeres. Observaciones sobre la incorporación del enfoque de género en el Acuerdo de Paz*. <https://co.boell.org/es/2020/05/04/la-paz-avanza-con-las-mujeres>

– (2021): *La paz avanza con las mujeres. III Informe de observaciones sobre la incorporación del enfoque de género en el Acuerdo de Paz*. [https://www.coljuristas.org/sala\\_de\\_prensa/articulo.php?id=560](https://www.coljuristas.org/sala_de_prensa/articulo.php?id=560)

- Mesa, Manuela (2014): “Por un futuro de paz en Colombia”, *CEIPAZ Urtekaria*, 77. zkia, 219-244.  
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4942661>
- Naranjo Álvarez, Jorge (2021): “La violencia sexual a la luz de la Ley de Justicia y Paz: conceptualización y elementos para su estudio”, *Novum Jus*, 15. libk., 2. zkia., 91-119.  
<https://novumjus.ucatolica.edu.co/article/view/NovumJus.2021.15.2.4/3865>
- Ramírez Cardona, Claudia (konp.) (2014): *Memorias Foro Internacional: Mujeres, participación política y procesos de paz: experiencias de Colombia, El Salvador y Guatemala a la luz de la Resolución 1325*, Corporación Humanizar, Bogota, Kolonia.  
<https://issuu.com/rednacionaldemujeres/docs/memoriasforointernacional1325>
- Ruta Pacífica de las Mujeres (2013): *Memoria para la vida: Una comisión de la verdad desde las mujeres para Colombia*, Hegoa Institutua, Bilbo.  
[https://publicaciones.hegoa.ehu.eus/uploads/pdfs/225/Memoria\\_para\\_la\\_vida.pdf?1488539769](https://publicaciones.hegoa.ehu.eus/uploads/pdfs/225/Memoria_para_la_vida.pdf?1488539769)
- Sisma Mujer (2020): *Situación de derechos humanos de las personas defensoras en Colombia 2016-2020*, Buletina. <https://www.sismamujer.org/2020-realidad-en-cifras>